



Instituto Vasco del Conocimiento
de la Formación Profesional

Lanbide Heziketaren
Ezagutzaren Euskal Institutua



IRUDIA ETA
SOINUA

Oinarrizko Curriculum Diseinua

IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUEN ETA
IKUSKIZUNEN ERREALIZAZIOKO
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA



AURKIBIDEA

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA	4. or.
2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA	4. or.
2.1 Konpetentzia orokorra	
2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
2.3 Lanbide-ingurunea	
3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK	5. or.
3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
3.3 Lanbide-moduluak	
1. Zinemako eta bideoko errealizazioaren plangintza	
2. Zinemako eta bideoko errealizazio-prozesuak	
3. Telebistako errealizazioaren plangintza	
4. Telebistako errealizazio-prozesuak	
5. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren plangintza	
6. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren errealizazioa	
7. Ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketaren plangintza	
8. Ikuskizunak eta ekitaldiak zuzentzeko prozesuak	
9. Ikus-entzunezko eta eszenako baliabide teknikoak	
10. Ingeles teknikoa	
11. Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen errealizazio-proiektua	
12. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
13. Enpresa eta ekimen sortzailea	
14. Lantokiko prestakuntza	
4. GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	128. or.
4.1 Espazioak	
4.2 Ekipamenduak	
5. IRAKASLEAK	131. or.
5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK	133. or.
7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZAGARRITASUN ETA EGOKITASUN LOTURAK	134. or.
7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioko goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Irudia eta Soinua.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: CINE-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

2.1. Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra da filmatutako, grabatutako edo zuzeneko ikus-entzunezko proiektuen prestaketa, errealizazioa eta muntaia antolatzea eta gainbegiratzea, bai eta ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen antzezpeneen prozesu teknikoak eta artistikoak zuzentzea ere. Horretarako, baliabide teknikoak eta giza baliabideak koordinatuko dituzte, eta edukia, forma, proiektu artistikoa eta finkatutako kalitatea kontrolatuko dituzte.

2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- a. Zinematografiako eta ikus-entzunezko lanetako zuzendaritzarako laguntza IMS220_3 (1228/2006 Errege Dekretua, urriaren 27koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:
 - UC0700_3: Ikus-entzunezko proiektua garatzeko beharrezkoak diren baliabideak zehaztea.
 - UC0701_3: Filmatzeko/grabatzeko behar diren giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta artistikoaren egokitzapena eta bitartekoak koordinatzea.
 - UC0702_3: Filmaketa/grabazioa eta postprodukzio-prozesua antolatzea eta kontrolatzea.
- b. Telebistako errealizazioko laguntza IMS077_3 (295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:
 - UC0216_3: Telebistako produkzio baten errealizazio-premien, agertokiaren eta kokalekuen eszenaratzearen garapena koordinatzea.
 - UC0217_3: Baliabide teknikoak eta giza baliabideak kontrolatuz telebistako produkzio baten errealizazio-kontrollean laguntzea.
 - UC0218_3: Telebistako produktuen postprodukzioan parte hartzea.
- c. Ikus-entzunezkoen muntaketa eta postprodukzioa IMS296_3 (irailaren 14ko 1200/2007 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
 - UC0947_3: Ikus-entzunezko produktu baten muntaketa- eta postprodukzio-prozesua planifikatzea.
 - UC0948_3: Muntaketarako eta postprodukziorako beharrezko materialak eta efektuak prestatzea.

UC0949_3: Muntaketa egitea, hainbat lekutako materialak eta postprodukzioko tresnak erabiliz.

UC0950_3: Muntaketako eta postprodukzioko amaierako prozesuak koordinatzea amaierako ikus-entzunezko produktua sortu arte.

- d. Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketa IMS431_3 (abenduaren 18ko 1957/2009 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barnean hartzen ditu:
- UC1420_3: Premia teknikoak eta artistikoak zehaztea, eta zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien entseguak planifikatzea.
 - UC1421_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien entseguak prestatzen eta garatzen prozesu teknikoak eta artistikoak gainbegiratzea eta zuzentzea.
 - UC1422_3: Lokal finko batean eta birak egitean zuzeneko ikuskizunak eta ekitaldiak burutzen prozesu teknikoak eta artistikoak gainbegiratzea eta zuzentzea.

2.3. Lanbide-ingurunea

Titulu hau lortzen duten pertsonak edozein motatako ikus-entzunezko programen produkzioaren eta errealizazioaren sektorean (zinema, bideo, multimedia, telebista eta *new media*) eta ikuskizunen produkzioaren eta errealizazioaren sektorean (arte eszenikoak, musika-produkzioak eta ekitaldiak) egiten dute lan.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Zinemako zuzendaritza-laguntzailea.
- Bideo-errealizazioko laguntzailea.
- Telebista-errealizazioko laguntzailea.
- Ikus-entzunezkoen alorreko arduraduna (jarduerarekin lotuta ez dauden enpresatan).
- Zinema-muntatzailea.
- Bideoko editore muntatzailea.
- Kudeaketa-burua.
- Zuzeneko ikuskizunen kudeatzailea.
- Ekitaldien kudeatzailea.
- Hormen kudeatzailea.

3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK

3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Ikus-entzunezko adierazpen-, narrazio- eta komunikazio-kodeak aplikatzea, ikus-entzunezkoen proiektuen, ikuskizunen eta ekitaldien ezaugarri formalak eta adierazpenekoak zehazteko.
2. Ekipamendu teknikoaren eta materialen premiak eta funtzioak aztertzea, ikus-entzunezko proiektuen, ikuskizunen eta ekitaldien errealizazioan haien ezaugarriak zehazteko.
3. Langile teknikoaren antolakuntza funtzionala, beharrak eta zereginak aztertzea, ikus-entzunezko proiektuen, ikuskizunen eta ekitaldien errealizazioan haien ezaugarriak zehazteko.
4. Proiektuaren beharren arabera artisten ezaugarriak baloratzea, ikus-entzunezkoetako proiektuen, ikuskizunen eta ekitaldien errealizatorako haien ezaugarriak zehazteko.

5. Giza jarduerak eta baliabideak zein materialenak programatzeko teknikak aplikatzea, ikus-entzunezko proiektuen, ikuskizunen edo ekitaldien errealizazioko lan-prozesua planifikatzeko.
6. Baliabide materialen eta teknikoaren eraketa eta egokitzapena gainbegiratzea erabilgarri edukitzeko, ikus-entzunezko proiektuen, ikuskizunen edo ekitaldien errealizazioan laneko plana kontuan hartuz.
7. Ikus-entzunezkoen proiektuen, ikuskizunen eta ekitaldien antzezpenean eta erregistroan erabilitako ekipamendu teknikoak eta elementu eszenikoak muntatzeko, desmuntatzeko eta gordetzeko jarraituko dituzten irizpideak finkatzea, laneko planaren arabera erabilgarri edukitzeko.
8. Dokumentazio teknikoaren arabera burutuko dituzten ekintzen egitura eta sekuentzia aztertzea, talde tekniko eta artistikoko partaideei euren jarduteko moduari buruz ahoz eta idatziz aurrez adierazteko eta irakasteko.
9. Errealizazio-kontrollean, zinema-, bideo- eta telebista-platoan eta agertokian, filmazioan, grabazioan eta antzezpenean errealizazio-teknikak aplikatzea, eszenaratzea, aktoreen mugimenduak, figurazioa eta ikusleak koordinatzeko.
10. Komunikatzeko helburuak lortzen muntaketa-teknika egokiak analizatzea eta aplikatzea, ikus-entzunezko proiektuen muntaia/edizioa eta postprodukzioak egiteko.
11. Materialak eta efektuak prestatzeko eragiketak planifikatzea eta koordinatzea, ikus-entzunezko proiektuak muntatzeko/editatzeko eta postprodukzioeko prozesuen errealizaziorako.
12. Ikus-entzunezko proiektuak eta ikuskizunak entseatzeko, grabatzeko edo filmatzeko dokumentazio teknikoak osatzeko, sekuentzien eta eszenaratzeen plangintzako narrazio- eta adierazpen-teknikak aplikatzea.
13. Prestaketa- eta errealizazio-prozesuetan hartutako erabakiak ebaluatzea, bai eta ikus-entzunezko proiektu bat, ikuskizun bat edo ekitaldi bat abian jartzen sortutako aldaketetara egokitzea ere, antzezpenearen ezaugarriak gidoi teknikoan edo kudeaketa-liburuan behin betiko finkatzeko.
14. Ikus-entzunezko sektorearen eta ikuskizunen berezko komunikazioaren eta informazioaren teknologien programen eta gailuen aukerak eta ezaugarriak aztertzea, ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioan aplikatzeko.
15. Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
16. Sormena eta berrikuntzako izpiritua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.
17. Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabeherari aurre egiteko eta horiek ebazteko.
18. Gidaritza, motibazio, gainbegiratze eta komunikazioko teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lan-taldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
19. Komunikatzeko estrategiak eta teknikak aplikatzea, transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta, komunikazio-prozesuetan eraginkortasuna ziurtatzeko.
20. Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzeko den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.
21. Irisgarritasun unibertsalari eta guztiontzako diseinuari erantzuteko beharrezko lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.



22. Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak hobetzeko.
23. Ekintzailtzako, enpresako eta ekimen pertsonaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bat egiteko.
24. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

3.2 Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

LANBIDE MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0902. Zinemako eta bideoaren errealizazioaren plangintza	132	1.a
0903. Zinemako eta bideoaren errealizazio-prozesuak	165	1.a
0904. Telebistako errealizazioaren plangintza	120	2.a
0905. Telebistako errealizazio-prozesuak	180	2.a
0906. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postproduzioaren plangintza	132	1.a
0907. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postproduzioaren errealizazioa	200	2.a
0908. Ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketaren plangintza	132	1.a
0909. Ikuskizunak eta ekitaldiak zuzentzeko prozesuak	165	1.a
0910. Ikus-entzunezko eta eszenako baliabide teknikoak	165	1.a
E-200. Ingeles teknikoak	40	2.a
0911. Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioko proiektua.	50	2.a
0912. Laneko prestakuntza eta orientabidea.	99	1.a
0913. Enpresa eta ekimen sortzailea.	60	2.a
0914. Lantokiko prestakuntza.	360	2.a
Zikloa guztira	2.000	

3.3 Lanbide moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak



1. lanbide-modulua

1

ZINEMAKO ETA BIDEOKO ERREALIZAZIOAREN PLANGINTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Zinemako eta bideoko errealizazioaren plangintza
Kodea:	0902
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	132 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Kompetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0700_3: Ikus-entzunezko proiektua garatzeko beharrezkoak diren baliabideak zehaztea. UC0701_3: Filmatzeko/grabatzeko behar diren giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta artistikoen egokitzapena eta bitartekoak koordinatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 5.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 19.a / 21.a / 22.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ikus-entzunezko sekuentzien adierazpen-plangintza egiten du, eta, horretarako, ikus-entzunezko lengoaiaren teknika estandarizatuak eta kodeak aplikatzen ditu, eta eskatutako komunikazio-helburuak lortzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Genero-tipologia, komunikatzeko helburua, guztientzako diseinuaren baldintzak eta ikus-entzunezko produktuen errealizazioan erabilitako adierazpeneko kodeak aztertu ditu.
- Ikus-entzunezko proiektuak erabakitzean hartutako enkoadraketaren erabilera, kamera-angeluaren eta bere mugimenduen adierazpeneko erabileraren komunikazioko ondorioak baloratu ditu.
- Ikus-entzunezko sekuentzia baten adierazpeneko eta komunikazioko balioa irudiaren alderdi espazialekin erlazionatu ditu, hala nola, eremua, eremuz kanpokoak, eta planoen barruko eta kanpoko mugimenduak.

- d) Ikus-entzunezko sekuentziak ulertzeko eta interpretatzeko guztientzako konposizioko eta diseinuko forma batzuk edo besteak hartzeak dituen adierazpeneko ondorioak eta ondorio funtzionalak justifikatu ditu.
- e) Subjektu baten mugimenduarekin, eta pertsonaia bat, bi edo gehiagoren hartzeekin, ikus-entzunezko sekuentzien erabakian jarraitutasuna burutzeko teknikak aplikatu ditu.
- f) Ikus-entzunezko produkzio baten soinu-banda osatzen erabilitako soinu-baliabideen balio funtzionala, adierazpenekoa eta komunikatzekoa aztertu ditu.
- g) Ikus-entzunezko soinu-bandaren adierazpeneko egitura diseinatu du, produktu horren komunikatzeko baldintzei erantzunez.

2. Ikus-entzunezko lan bat eszenaratzearen ezaugarriak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, proiektuaren helburuen arabera lan hori osatzen duten elementuen artean ezarritako erlazioak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezko lan bat eszenaratzea osatzen duten elementuek betetzen dituzten funtzio teknikoak, adierazpenekoak eta komunikatzekoak erlazionatu ditu.
- b) Ikus-entzunezko lan baten osagai eszenografikoaren egokitasuna ebaluatu du, bertako girotea, eta bertako dekorazioaren eta atrezzoaren osatzen duten elementuen azterketa oinarri gisa hartuz.
- c) Ikus-entzunezko lan batean bere kromatismoaren eta argiztapenaren aukeraketak eskaintzen duten komunikatzeko eta adierazpeneko helburuak lortzea baloratu du.
- d) Ikus-entzunezko lan bat eszenaratzean eragina duten jantziak, makillajea, karakterizazioa eta estilistikako beste elementu batzuk egokiak ote diren zehaztu du.
- e) Ikus-entzunezko lan baten interpretazioan adierazpeneko eta komunikatzeko baliabide gisa erabilitako gorputz-lengoiaren eta keinuzko kodeen funtzioak bereizi ditu.
- f) Zinemak esperimentatutako adierazpeneko eboluzioa eta eboluzio teknikoa, batetik, eta eszenaratzea eta argiztapena erabiltzeko gaur egungo moduak eta formak, bestetik, erlazionatu ditu.
- g) Ikus-entzunezko proiektuen irizpide formalak eta estetikoak aztertu ditu, garaiko itxurak, erreferentzia historikoak, estilo artistikoak, argiztatze-estiloak, soinu-segmentuaren jatorria eta eszenografia kontuan hartuz.

3. Ikus-entzunezko gidoi teknikoa osatzen du, eta, horretarako, bertako egitura narratiboa eta, planteatutako egoeren arabera, erabili behar dituzten tratamenduak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aurretik badagoen literatura-lan bat ikus-entzunezko gidoi batera egokitzeak sortutako zailtasunak, abantailak, ezaugarriak eta prozesuak baloratu ditu.
- b) Literaturako gidoiaren sekuentzia dramatikoak osatu ditu, fase estandarizatuak jarraituz: ideia, dokumentazioa, story line, argumentua eta tratamendua zehaztea.
- c) Zati bat literatura-gidoi batetik aterata sekuentzia dramatiko bat ikus-entzunezko gidoi teknikoaren berezko egiturara eta *storyboard*era eraldatzeko prozesua burutu du.
- d) Gauzatze-proiektuaren narrazio-estilora egokitutako ikus-entzunezko gidoi baten *storyboard*a osatu du.
- e) Gidoiko narrazio-soluzioak eta elkarrizketak errealizazio- eta proiektu-motaren ezaugarrietara egokitu ditu.
- f) Ikus-entzunezko gidoiaren narrazio-soluzioan efektuak eta musika markatu ditu.



- g) Gidoi baten plangintzako dokumentu nagusiak osatzean ikus-entzunezko gidoiaren kodeak eta soluzioak aplikatu ditu: gidoi teknikoa, *storyboarda*, dekorazioko plantak eta laneko gidioa.
- h) Ikus-entzunezko proiektu baten irizpide formalak eta estetikoak aplikatu ditu gidoi teknikoan, garaiko itxurak, erreferentzia historikoak, estilo artistikoak, argiztatze-estiloak, soinu-segmentuaren jatorria eta eszenografia kontuan hartuz.

4. Zinema-, bideo- edo multimedia-lan baten errealizatorako beharrezkoak diren baliabideen ezaugarriak zehazten ditu, eta, horretarako, produkzio-prozesuak beharrezko baliabide teknikoekin eta prozesu profesionalekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Tipologiaren (zinema, bideoa, multimedia eta *new media*), irismenaren eta generoaren arabera ikus-entzunezko lan baten errealizazioan biltzen diren profesionalen funtzioak eta erantzukizunak definitu ditu.
- b) Gidoia xehatu ondoren, ikus-entzunezko proiektu baten fase guztien errealizatorako behar diren giza baliabideen, baliabide artistikoen eta teknikoen beharrak definitu ditu.
- c) Ikus-entzunezko proiektu baten gauzatze adierazgarriko beharrezko baliabide teknikoen, materialen, makineriaren eta ekipoen ezaugarriak definitu ditu.
- d) Ikus-entzunezko proiektu baten gauzatze adierazgarriko kokalekuen, dekoratuen, estudioen eta hauei dagokien girotzearen ezaugarri zehatzak definitu ditu.
- e) Gidoia xehatuta, ikus-entzunezko proiektu bat errealizatzeko ikusmenaren, irudiaren eta soinuaren arloetako dokumentazioari dagozkion premia zehatzak definitu ditu.
- f) Kokapeneko txostenetatik atera ditu irisgarritasunari, espazioaren banaketari, egokitze eszenografikoko eta teknikoko beharrei, segurtasunaren erabilgarritasunari, komunikazioei eta beharrezkoak diren beste hainbat alderdiri buruzko datuak, sekuentziak kokalekuan bertan erregistratzen direla bermatzeko.
- g) Gidoi baten errealizazioko bideragarritasun teknikoa ebaluatu du, bideografiako edo zinatografiako errealizazioko testuinguru zehatz batean baliabideen arloan dituzten beharrak zehaztu eta bere egitura aztertu ondoren.

5. Ikus-entzunezko lan bat erregistratzeko beharrezkoak diren agertokien girotzea eta ezaugarriak zehazten ditu, eta, horretarako, proiektuaren komunikazio-helburuak gauzatzea eta gidoiaren narrazio-premiak hartuko ditu kontuan.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezko grabazio bat burutzeko kokaleku posibleen zerrenda justifikatu du, ikuspegi estetikitik eta narratibotik aldeko eta kontrako argudioak adieraziz.
- b) Hainbat kokalekuren dokumentazioa, grabazioak, argazkiak, planoak, Internet edo eskura dauden beste informazio-iturri batzuk ikus-entzunezko narrazio-proiektuaren beharretara egokitzea baloratu du.
- c) Gidoi tekniko baten premiekin bat datorren dekoratu baten girotzearen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Txostenak egin ditu, kokaleku alternatiboen aukeraketa justifikatuz (*cover set*), baldin eta aukeratutako kokalekuetan arazoak sortzen badira.
- e) Estudioaren edo kokalekuaren egokitze-txostena egin du, alderdi teknikoei eta eszenografikoei dagokienean.
- f) Narrazioaren aukerara, baliabide tekniko eta artistiko guztien konbinaziora, eta grabazio-estudioaren eta grabatzeko tokien kokalekura egokituta, sekuentziak grabatzeko ordena proposatu du.

6. Ikus-entzunezko lanetarako aktoreak aukeratzeko probak egiten ditu, eta, horretarako, gidoian definitutako pertsonaien profilak eta aukeratzeko aktoreak bateragarri egiteko dauden hainbat teknika baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Probak egiteko, aktore protagonistek, bigarren mailakoek eta tarteka agertuko direnek bete beharreko baldintzak adierazi ditu, gidoian aipatutako errekerimendu artistikoak eta dramatikoak kontuan hartuz.
- Aktoreen parte-hartze denboren eta iraupenen banakapena egin du, jantzitegiko, karakterizazioko eta makillajeko beharrak gidoiaren eskaeretara egokituz.
- Proiektuaren ezaugarrien arabera, aktoreak eta figuranteak aukeratzeko probetan zein irizpide artistiko eta funtzional bete behar dituzten zehaztu du.
- Ikus-entzunezko errealizazio-proiektu zehatz batean aktoreak aukeratzeko probaren egitura eta ezaugarri espezifikoak diseinatu ditu.
- Aktoreen probetan bildutako datuekin txostenak osatu ditu, paper bakoitzerako partaideen egokitasun-irizpideak adieraziz.
- Gidoiaren informazioa kontuan hartuz, jantzitegiari, karakterizazioari eta makillajeari dagokionean pertsonaia bakoitzaren beharrak zehaztu ditu.
- Gidoiaren errekerimendu artistikoetara eta dramatikoetara egokitzen diren hautagaiak justifikatu ditu.

7. Ikus-entzunezko lan baten sekuentzien filmazioa/grabazioa planifikatzen du, eta, horretarako, egokitasuneko eta antolakuntzako irizpideen arabera saioen banaketa justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Xehatze-zerrendetan oinarrituz, ikus-entzunezko proiektuaren produkzio-sekuentzia bakoitzerako beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak esleitu ditu.
- Produkzioko, blokeetako edo ikus-entzunezko proiektua azpibanatu duten beste edozein unitate koherenteren sekuentzietako bakoitza erregistratzeko behar duten denbora kalkulatu du.
- Komunikatzeko, baliabideak optimizatzeko eta denborako irizpideak kontuan hartuz, ikus-entzunezko proiektuaren produkzioaren, blokeen edo beste unitate koherente batzuen sekuentzien erregistro-ordena erabaki du.
- Filmaketa/Grabazio Plana landu du, finkatutako aurrekontura egokituz eta sor daitezkeen gertakizunak aurreikusiz beste soluzio batzuk barne hartuz.
- Filmaketa Planean beharrak, bertan egoteko ordutegiak eta aurreikusitako denborak jasotzeko antolakuntza-teknikak aplikatu ditu.
- Informazioa proiektuaren arduradunei banatu die, bakoitzak bere ekipoa behar bezala kudeatzeko.

c) Oinarrizko edukiak:

1. IKUS ENTZUNEZKO SEKUENTZIEN ADIERAZPEN PLANGINTZA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero zinematografikoetan, bideografikoetan, multimedien eta <i>new median</i> sortzeko baliabideak analizatzea. - Ikus-entzunezko diseinua eta komunikazioa. Irudiaren semiotika. - Ikus-entzunezko errealizazioan konposizio-arauak aplikatzea. - Ikus-entzunezko agertokia zatitzeko teknikak aplikatzea.



	<ul style="list-style-type: none"> - Sekuentzien planifikazioa eta adierazpen-erabilera. - Ikus-entzunezko mezuaren analisiari eta eraikuntzari buruzko kamera-mugimenduak aukeratzea eta erabiltzea. - Iradokitako espazioak eraikitzea: eremua eta eremuz kanpo. - Kamera-kokapena aukeratzea, ekintza-ardatz diferentekin eta pertsonaia-kopuru aldakorrarekin. - Pertsonaia-kopuru diferentekin egoerak eta elkarrekintzak erabakitzeke ikus-entzunezko errealizazio-teknikak aplikatzea. - Musika-giro objektiboa eta subjektiboa sortzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero zinematografikoak eta bideografikoak. - Multimedia eta <i>new mediako</i> generoak: Internet, telefono mugikorak, beste pantaila batzuk. Ezaugarriak. - Ikus-entzunezko lengoaia. Planoen eskala. - Ikus-entzunezko espazioa. - Sekuentzia, narrazio-unitate gisa. - Narrazioa eremuan eta eremuz kanpo. - Kamera-mugimenduen adierazpen-balioak. - Kontaketan espazioaren/denboraren antolakuntza-prozedurak. - Jarraitutasuna mantentzea: espazioei, objektuei eta pertsonei lotutako <i>raccorda</i>. - Ekintza-ardatzak mantentzea: <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonaien arteko elkarrekintza. • Pibot-planoak eta ardatz-jauziak. • Ardatz-jauzia egiteko modu zuzenak. - Ikus-entzunezko produkzio baten soinu-baliabideak: <ul style="list-style-type: none"> • Soinu-baliabideen funtzionaltasuna, adierazpena eta komunikazioa. • Soinu-bandaren osagaiak. • Ikus-entzunezko soinu-banden diseinua, euren komunikatzeko baldintzei erantzunez.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Konposizio-arauak aplikatzeko interesa. - Irudiarekin eta soinuarekin narrazio-lengoaia erabiltzeko aukerak ikertzea.

2. IKUS ENTZUNEZKO LANAK ESZENARATZEKO EZAUGARRIAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko lan baten eszenaratzea osatzen duten elementuek betetzen dituzten funtzio teknikoak, adierazpenekoak eta komunikatzekoak analizatzea. - Ikus-entzunezko lan baten osagai eszenografikoaren egokitasuna ebaluatzea, bertako girotzea, eta bertako dekorazioaren eta atrezzoaren osatzen duten elementuen azterketa oinarri gisa hartuz. - Ikus-entzunezko lan batean bere kromatismoaren eta argiztapenaren aukeraketak eskaintzen dituzten komunikatzeko eta adierazpeneko helburuen lorpena baloratzea. - Girotzeko, dekorazioko eta atrezzoko teknika eszenografikoak aplikatzea. - Argi-iturriekin giroak sortzea. - Argiztatzeko oinarriko triangulua aplikatzea. - Jantzitegia, makillajea, karakterizazioa eta ile-apainketa personalizatzea. - Interpretazioan keinuen kodeak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eszenaratzearekin lotuta, ikus-entzunezko mugimenduak eboluzionatzea. - Ingurunearen araberrako eszenaratzearen antzekotasunak eta

	<p>diferentziak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eszenaratzearen funtzio teknikoak, adierazpenekoak eta komunikaziokoak. - Argiztapenaren adierazpen-balioa. - Goi Klabeke eta Behe Klabeke efektuak. - Luminaria-motak. - Argiztatzeko oinarriko triangelua. - Jantzitegiaren, makillajearen, karakterizazioaren eta ile-apainketaren adierazpen-funtzioak. - Interpretazioan keinuen kodeen funtzioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eszenografiako girotze-estiloak ikertzeko eta sortzeko interesa. - Argiztatzeko-estiloak aplikatzeko eta argiaren adierazpen-balioarekin esperimentatzeko interesa.

3. IKUS ENTZUNEZKO GIDOI TEKNIKOAK LANTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko gidoi-motak eta -formatuak identifikatzea. - Literaturako gidoi osatzea. - Literaturako gidoiaren sekuentzia dramatikoak osatzea, fase estandarizatuak jarraituz: ideia, dokumentazioa, <i>story line</i>, argumentua eta tratamendua zehaztea. - Sekuentzia dramatiko bat ikus-entzunezko gidoi tekniko baten berezko egiturara eta <i>storyboard</i>era eraldatzeko prozesua gauzatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Literaturako gidoi gidoi teknikoan eraldatzea: plangintza. • <i>Storyboarda</i> sortzea. • Narrazioko soluzioak eta elkarrizketak egokitzea. - Soinua ikus-entzunezko gidoietan irudikatzea. - Gidoi baten plangintzako dokumentuak osatzean ikus-entzunezko gidoiaren kodeak eta soluzioak aplikatzea: gidoi teknikoak, <i>storyboard</i>, dekorazioko plantak eta laneko gidoiak. - Pelikulako gidoi-egitura analizatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko gidoi-motak eta -formatuak. - Literatura-lan bat ikus-entzunezko gidoiara egokitzea. - Fikziozko ikus-entzunezko kontaketen eraikuntzara aplikatutako narrazio-teknikak: <ul style="list-style-type: none"> • Gaiari buruzko ideia eta ideia dramatikoak. • Oinarriko intriga eta gatazka. • Planteamendua, garapena eta amaiera. • Pertsonaien ezaugarriak eta tipologiak. • Ikus-entzunezko elkarrizketen ezaugarriak eta funtzioak. - Soinu-adierazpenaren eta irudiaren elkarrekintza ikus-entzunezko gidoietan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gidoi tekniko baten proposamenak egiteko ekimena. - Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziarioa.

4. ZINEMAKO, BIDEOKO EDO MULTIMEDIAKO LAN BAT ERREALIZATZEKO BEHARREZKO BALIABIDEEN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ekipo teknikoak eta artistikoak aukeratzeko irizpideak analizatzea. - Material eszenografikoak aukeratzeko irizpideak analizatzea. - Tipologia eta ezaugarriak kontuan hartuz, ikus-entzunezko proiektuen errealizazioa babesteko ikus-dokumentazioa, dokumentazio grafikoa
----------------	---



	<p>eta soinu-dokumentazioa osatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren behin betiko dokumentazioaren edo gidoiaren analisisan oinarrituta, baliabideak xehatzeko teknikak aplikatzea. - Kokapeneko txostenak lantzea, kokalekuari, irisgarritasunari, espazioaren banaketari, egokitze eszenografikoari eta teknikoari, segurtasunari, komunikazioei eta beharrezkoak diren beste hainbat alderdiri buruz, sekuentziak kokalekuan bertan erregistratzen direla bermatzeko. - Gidoia xehatu ondoren, ikus-entzunezko proiektu baten fase guztien errealizatorako behar diren giza baliabideen, baliabide artistikoen eta teknikoen beharrak definitzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko industria. - Zinema, bideo, multimedia eta <i>new mediako</i> industriaren funtzioak eta antolakuntza-egitura. - Ikus-entzunezko produkzioaren prozesu-motak. - Proiektuaren produkzio-faseetan teknikarien eta artisten ezaugarriak eta tipologia. - Gidoia xehatzea lantzeko teknika. - Proiektuaren produkzio-faseetan baliabide materialen eta logistikoen ezaugarriak eta tipologia. - Karakterizazioan erabilitako elementuen ezaugarriak eta tipologia. - Erregistro-exijentzien eta kokalekuaren ezaugarrien inguruko dokumentazioa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko obretako ekipo teknikoen eta artistikoen terminologia erabiltzeko zehaztasuna. - Ikus-entzunezko eta multimediatikoko industriaren eboluzioa ezagutzeko interesa.

5. IKUS ENTZUNEZKO LAN BAT ERREGISTRATZEKO AGERTOKIEN GIROPENA ETA EZAUGARRIAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gidoi tekniko baten premiekin bat datorren dekoratu baten giropenaren ezaugarriak definitzea. - Dekoratuak eratzea eta kokalekuak egokitzea ikus-entzunezko produktotarako. - Giropena eta eszenografia kontuan hartuz, atrezzoak, jantzitegia, ile-apainketa, makillajea eta karakterizazioa pertsonalizatzea. - Kokalekuari buruzko kudeaketak egitea: <ul style="list-style-type: none"> • Dokumentazioa aztertzea eta kokalekuak gauzatzea. • Kokaleku-fitxak eta -txostenak osatzea. • Kokalekurako baimenak idaztea. - Zinemako eta bideoko agertokitan hornikuntza elektrikoko iturriak eta generadore autonomoak aukeratzea eta konfiguratzea. - Narrazio-aukeretara, eta baliabide tekniko eta artistiko guztien konbinaziora egokitutako sekuentzietan banatutako grabazio-ordena osatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Girotzea eta eszenografia. - Zinemarako eta bideorako agertokia: <ul style="list-style-type: none"> • Filmazio-espazioaren ezaugarriak. • Kokaleku-prozedurak. - Kokalekuen eta dekoratuen adierazpen-aukerak. - Elikadura-instalazioak zinemako eta bideoko agertokian. - Agertokietan gertakizunak kudeatzea.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Agertokiak ikertzeko eta sortzeko ekimena. - Filmaketarako kokalekuak aurkitzeko jarrera ekintzailea. - Txostenen izapidetzea zorrotz gauzatzea.
--------------	--

6. IKUS ENTZUNEZKO LANETARAKO AKTOREAK AUKERATZEKO PROBAK	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Artistak aukeratzeko prozesua lantzea: <ul style="list-style-type: none"> • Aukeraketa-proben irizpide artistikoak eta funtzionalak definitzea. • Pertsonaia-profila definitzea. • Aukeraketa-probak antolatzea. • Aktoreek parte hartuko duten denborak eta iraupenak xehatzea. • Aukeratzeko jardueren emaitzen txostenak idaztea. • Pertsonaien ezaugarriak analizatzea, eta hautagaien aukeraketa justifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aktoreak aukeratzeko teknikak, gidoiaren errekerimendu artistikoak eta dramatikoak kontuan hartuz. - Pertsonaien tipologia: protagonistak, bigarren mailakoak, tarteka agertzen direnak, figuranteak, espezialistak, beste batzuk. - Pertsonaien definizioa, ezaugarritzea eta egoerak. - Artistak kontratatzeako ereduak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko produkzioan egin beharreko ekintzen barruan, antolakuntza-kudeaketaren garrantzia baloratzea. - Txostenen izapidetzea zorrotz gauzatzea.

7. IKUS ENTZUNEZKO LAN BATEN SEKUENTZIEN FILMAKETA/GRABAZIOA PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Filmaketa/Grabazioko Plan-eredua osatzea, bitartekoa eta produktumota kontuan hartuz. - Filmaketa Planean beharrak, bertan egoteko ordutegiak eta aurreikusitako denborak jasoko dituzten antolakuntzako teknikak aplikatzea. - Hartualdi-prozesuan antolakuntza planifikatzea. Erregistro-ordenak. - Errealizazioa produkzio-sekuentzien, multzoen edo unitate koherenteen arabera prestatzea. - Produkzioko, blokeetako edo ikus-entzunezko proiektua azpibanatu duten beste edozein unitate koherenteren sekuentzietako bakoitza erregistratzeko denbora kontrolatzeko eredu bat osatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Filmaketa/Grabazio Plana eraikitzeako teknikak. - Filmaketa/Grabazio Plana eraikitzean baliabideak esleitzeko eta optimizatzeko teknikak. - Unitate koherenteen, multzoen edo produkzioko sekuentzien arabera erregistro- edo errealizazio-denbora baloratzeko teknikak. - Ikus-entzunezko lanaren aurrekontua eta errealizazio-eredua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko produkzio-prozesuaren barruan metodologiaren eta antolakuntzaren garrantzia baloratzea. - Filmaketa-prozesuan gertakizunak aurreikustea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziarioa

Modulu hau **1. multzotik** has daiteke ematen. Bertan, ikus-entzunezko eta multimediarako generoak, bakoitzaren ezaugarri bereizleak eta erabilitako narrazio-teknikak identifikatuko dituzte. Sekuentzien adierazpeneko plangintzari dagozkion kontzeptutan sakontzeko gomendatzen dute. Eduki horietakoren batzuetan honako gai hauei buruzko teoria garatzen dute:

- Konposizio-arauak.
- Ikus-entzunezko narriatiba. Iradokitako espazioak: eremua eta eremuz kanpo.
- Ekintza-ardatz diferenteko egoeratan kamera finkatzea.
- Soinuen funtzionaltasuna eta adierazpena, eta musika-giroak sortzea.
- Sekuentzia, narrazio-unitate gisa. Sekuentzien planifikazioa eta adierazpen-erabilera.

Aipatutako narrazio-teknikak landu daitezke eszenaratzeko ezaugarri teknikoari, adierazpenekoei eta komunikaziokoei buruzko **2. multzoko** edukiekin. Era horretan, ikus-entzunezko narriatibari eta narriatiba eszenikoari buruzko ikuspegi zabala emango lukeen eduki-talde homogeneoa osatuko luke. Lehen multzokoekin osa daitezkeen **2. multzoko** garatzeko elementu komunak honako hauek dira:

- Eszenaratzearen funtzio teknikoak, adierazpenekoak eta komunikaziokoak.
- Eszenaratzearekin, girotzearekin, dekorazioarekin, atrezzoarekin eta jantzitegiarekin lotutako ikus-entzunezko mugimenduak.
- Agertokiaren egituraketa.
- Girotzea argi-iturrien bitartez.

Ondoren, **4. multzoko** edukiak azalduko lituzkete. Bertan, teknikarien eta artisten funtzioak, euren lanerako tresnak eta sortutako dokumentazioa aztertzen dituzte. Multzo honetan ikus-entzunezko produkzio-prozesuak deskribatzen dituzte eta aurreko atalean aztertutako ikus-entzunezko generoen profil profesionalak erakusten dituzte.

Jarraian, **3. multzoko** jorratuko litzateke, ikus-entzunezko gidoi teknikoak aztertuz. Bertan, ideia sortzen denetik gidoi tekniko batean jaso arteko pausoak landuko lituzkete. Aldi berean, grabatzeko kokalekuaren edo tokiaren girotzearekin lotutako **5. multzoko** edukiak (eta aipatutako **2. multzokoak**) landu beharko lirateke, gidioan jasota garatzeko.

Fikzio lan bateko pertsonaien profilak finkatuta eta, lanaren exigentziekin bat etorrita, **6. multzoko** garatuko lukete. Bertan, aukeraketa-probak gauzatzen dituzte eta prozesu honetako emaitzarako dokumentazioa lantzen dute, kontratatzeko txostenak eta ereduak idatziz.

Azkenik, filmaketa/grabazioa planifikatzeari, gauzatze-ereduei eta aurrekontuari buruzko **7. multzoko** edukiak garatu ahal izango dituzte.

Eduki komunak (modulu-mailan eta moduluen arteko mailan), honela landuko dituzte:

- Moduluan zeharka, eduki horiek jasoko dituzten unitate didaktiko guztietan sartuz.
- Beste modulu batzuekiko zeharka; hau da, gai horiek barne hartzen dituzten moduluen programaziorako sekuentziarioa eta eduki zehatza adostuko dituzte.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan ikus-entzunezko lanak eta ikuskizunak planifikatzeari buruzko kontzeptu teorikoen azterlana kontzeptu horien aplikazio praktikoarekin konbinatu behar dira. Horretarako, irakasleek azalpeneko edukiak eta prozedurazkoak txandakatu beharko dituzte.

“Egiten ikasteko” helburu honekin, hainbat motatako zinemako, bideo, telebistako, animazioko, multimediako eta *new mediako* proiektuen (hala nola, publizitate spot-ak, bideoklipak, dokumentalak, magazinak, informatiboak eta dramatikoak) plangintza-teknikei buruzko lanak biltzea komeni da. Produktu horiek guztiak honako gai hauei buruzko irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerari lotuta egongo dira:

- Zinemako, bideo, animazioko, multimediako eta *new mediako* proiektuen gidoi teknikoak lantzea.
- Proiektua grabatzeko baliabideen eta agertokien ezaugarriak definitzea eta baloratzea.
- Zinemako eta bideo proiektuak filmatzeko edo grabatzeko proiektuak eszenaratzeko ezaugarriak definitzea.
- Zinemako eta bideo proiektuak filmatzeko edo grabatzeko planak osatzea.

Lan hau bakarka edo taldeka egin daiteke. Bi kasuetan, metodologiak eta edukiak berritzearekin eta eguneratzearekin lotutako dokumentu-iturrien eta -ereduen informazio-bilaketa sustatuko dute. Horretarako, argitalpen espezializatutara edo *on line* zerbitzutara (Internet) jo ahal izango dute.

Talde-lanak harreman-konpetentziak garatu ahal izango ditu ikasleengan, eta giza talde profesionalen funtzionamendua, laneko tresnak eta hauekin lotutako guztia ezagutu ahal izango dute ikasleek: talde-antolamendurekin, rolen eta zereginen banaketarekin, pertsonen arteko komunikazioarekin, gatazken ebazpenarekin, eta abarrekin lotutako guztia. Lana taldeka egin badaiteke ere (ez du hala izan behar, derrigorrez), proiektua garatzean ikasle bakoitzak eskuratutako eskuduntzak ebaluatuko dituzte, plangintza orokorreko fasean, amaierako fasean edo filmatzeko fasean.

Ikus-entzunezko lanak planifikatzeko dokumentazioa sortzeko eta kudeatzeko lanak erraztuko dituzten informatikako aplikazioak sartzeko gomendatzen dute.

Zikloko irakasle-taldeak honako alderdi hau ere jorratu beharko luke: beste moduluekin koordinatzea, eta, bereziki, **“Zinemako eta bideo errealizazio-prozesuak”** moduluarekin, bertako eduki asko beste modulutan ere lantzen dituztelako.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ikus-entzunezko sekuentziak eratzea:
 - Sekuentzia bat planifikatzea, kameraren enkoadraketako, angeluko eta mugimenduetako adierazpen-irizpideak aplikatuz.
 - Espazioarekin lotutako alderdien ekarpena: eremua, eremuz kanpoko, barne-eta kanpo-mugimendua.
 - Jarraitutasuneko teknikak aplikatze (mugimenduen *raccorda*).
 - Ekintza-ardatzak identifikatzea.
 - Audio-banda objektiboa eta subjektiboa eraikitzea.
- ✓ Ikus-entzunezko lan baten eszenaratzea ebaluatzea:
 - Eszenaratzearekin lotuta, ikus-entzunezko mugimenduak identifikatzea.



- Girotzeko eta eszenografiako estilotan irizpide estetikoak aplikatzea.
 - Kromatismoaren eta argiztatzeko motaren adierazpeneko aukeraketa.
 - Ikus-entzunezko lan bat eszenaratzeko osatzen duten elementuek betetzen dituzten funtzio teknikoak, adierazpenekoak eta komunikatzekoak identifikatzea.
- ✓ Gidoi teknikoaren osatzea:
 - Ideia lantzea, garatzea eta tratatzea.
 - Literaturako gidoia osatzea edo egokitzea.
 - *Storyboarda* sortzea. *Storyboard*-tipologia proiektuaren arabera.
 - Literaturako gidoia gidoi teknikoan eraldatzea.
 - Sekuentzia dramatiko batetik eta bere *storyboard*etik abiatuta gidoi teknikoaren osatzea.
 - Gidoi teknikoan audio-iturrien (*off* ahotsa, elkarrizketak, musika eta efektuak) arteko erlazioa irudikatzea.
 - ✓ Proiektuaren tipologiaren arabera baliabide profesionalak aukeratzea:
 - Tipologiaren (zinema, bideoa, multimedia eta *new media*) irismenaren eta generoaren araberako profesionalen funtzioak eta erantzukizunak definitzea.
 - Gidoi baten errealizazioaren bideragarritasun teknikoaren ebaluazioa, beharrezko baliabideak kontuan hartuz:
 - Gidoia xehatzean oinarrituta, giza baliabideak, baliabide artistikoak eta teknikoak definitzea, produkzio-prozesuak profesionalekin eta baliabide teknikoekin erlazionatuz.
 - Gidoiaren jarraibideen arabera, ingurumenak (kanpoaldeak edo estudioak) aurkitzea eta egokitzea.
 - Hornikuntza elektrikoa agertokitan konfiguratzea.
 - Ikus-dokumentazioa, dokumentazio grafikoa eta soinu-zuzkoa egokitzea, proiektuaren tipologiaren eta produkzio-prozesuaren arabera.
 - Lanaren aurrekontua eta errealizazio-eredua osatzea.
 - ✓ Jasotze-prozesua planifikatzea:
 - Filmaketa Planari buruzko dokumentazio teknikoaren lantzea, sekuentziak xehatzea eta beharren zerrenda egitea.
 - Grabazio-ordena planifikatzea errentagarritasun-irizpideak kontuan hartuz (lekuak, baliabide teknikoak eta giza baliabideak), gidoia xehatzearen arabera:
 - Produkzio-sekuentzien araberako errealizazioa.
 - Multzoen araberako errealizazioa.
 - Unitate koherenteen araberako errealizazioa.
 - ✓ Edizio sinple batean aukeratutako hartualdiak ebaluatzea:
 - Ikus- eta soinu-material baliadunen edizio-pisten kokapena.
 - Gordinean editatutako multzoaren ebaluazioa, eta gidoian edo *storyboard*ean markatutako helburuen betetze-mailaren lehen balorazioa.
 - ✓ Beste erregistro baterako hobekuntza posibleak idaztea.

2. lanbide-modulua ² ZINEMAKO ETA BIDEOKO ERREALIZAZIO PROZESUAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Zinemako eta bideoko errealizazio-prozesuak
Kodea:	0903
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	165 ordu
Kurtsua:	1.a
Kreditu kop.:	8
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Kompetentzia-atal honi lotuta dago: UC0702_3: Filmaketa/grabazioa eta postprodukzio-prozesua antolatzea eta kontrolatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 5.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 19.a / 22.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ikus-entzunezko produktu bat filmatzeko/grabatzeko beharrezko giza baliabide artistikoak eta teknikoak koordinatzen ditu, eta, horretarako, plangintza-faseko dokumentazio teknikoak aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Giza talde artistikoen eta teknikoen zereginak koordinatzeko eta gainbegiratzeko alderdiak definitu ditu, filmaketa/grabazioa planifikatzeko fasean sortutako dokumentazio teknikoaren analisisan oinarrituz: Filmaketa Plana, sekuentzien arabera xehatzea eta baliabideen zerrenda, besteak beste.
- Kameren kokalekua, altuera eta mugimendua aukeratu ditu, sekuentzien errealizazioaren adierazpeneko helburua kontuan hartuz.
- Argizatze-eskemak osatu ditu, sekuentziarako lortu nahi duen adierazpen-efektua kontuan hartuz.
- Gidoiaren narrazio- eta adierazpen-asmoen arabera, sekuentziak grabatzeko/filmatzeko beharrezko planoak bereizi ditu.
- Pertsonaien mugimenduak eta eszenografia antolatu ditu, besteak beste, gidoiaren narrazio- eta adierazpen-asmoak kontuan hartuz.

- f) Makillajeko, ile-apainketako eta joskintzako lanak grabatuko edo filmatuko duten sekuentziaren errekerimenduetara egokitzen direla egiaztatu du.
- g) Talde teknikoko eta artistikoko kideentzako lan-aginduak osatu ditu, lan horiek banatzeko prozedura ziurtatuz.
- h) Ikus-entzunezko lana filmatzeko/grabatzeko prozesuan, esku hartzen duten giza talde tekniko eta artistiko guztiek garatu behar dituzten zeregin zehatzak esleitu ditu.

2. Ikus-entzunezko produktu bat filmatzeko/grabatzeko beharrezko baliabide teknikoan, materialen eta logistikoen eskuragarritasuna koordinatzen du, eta, horretarako, plangintza-faseko dokumentazio teknikoa aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Filmaketako/grabazioko egunerako ekipamendu teknikoaren eskuragarritasuna egiaztatu du, erregistratuko dituzten sekuentziak xehatzea eta baliabideen zerrendak kontuan hartuz.
- b) Ikus-entzunezko erregistro-ekipamenduak, argiztapenak, soinuak, filmatzeko makineriak eta filmaketan/grabazioan esku hartzen duten beste instalazio tekniko batzuek ondo funtzionatzen dutela bermatzeko, beharrezko egiaztapen teknikoak egin ditu, hartualdia filmatzeko/grabatzeko beharrak kontuan hartuz.
- c) Filmaketa-platoan edo kokalekuan dekoratuak eta atrezzoak zuzen instalatu, kokatu eta egokitu dituztela bermatzeko beharrezko egiaztapenak egin ditu, hartualdia filmatzeko/grabatzeko beharrak kontuan hartuz.
- d) Sekuentzien filmaketan edo grabazioan sartzeko, grabatutako irudi-elementuak eta eszenak egokiak diren egiaztatu du.
- e) Sekuentziaren filmaketan sartzeko, musikako eta soinuko efektuak eta mozketak egokiak diren egiaztatu du.

3. Ikus-entzunezko proiektu bat filmatzean/grabatzean esku hartzen duten ekipo tekniko eta artistikoen entseguak zuzentzen ditu, eta, horretarako, dokumentazio teknikoa interpretatzen du, eta alternatibak eta hobekuntzak proposatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku hartzen duten giza talde artistikoen eta teknikoek entseguetarako aurreikusitako zitazioak betetzen ote dituzten egiaztatze sistema ezarri du.
- b) Filmatuko edo grabatuko duten sekuentzia entseatu du talde artistikoak, laneko gidoiaren arabera jarraibideak adieraziz.
- c) Entseuetan eta teknikariek, eragiketa teknikoak zuzen gauzatu dituztela eta eszenaratzerako egokitzen direla egiaztatu du, denborak eta iraupenak ebaluatuz.
- d) Kamerak probatzeko eta testatzeko egiaztatze-sistema bat ezarri du, artisten jantzitegiak, ile-apainketak, makillajeak eta karakterizazioak zuzendaritza artistikoak finkatutako irizpideak jarraitzen dituztela ziurtatzeko.
- e) Aktoreekin eta, hala badagokio, figuranteekin egindako entsegutan, ekintzaren garapena, elkarrizketak eta esku-hartzeak, posizioak seinalatzea eta interpretatzeko modalitate aproposa egiaztatu ditu.
- f) Etorkizuneko entsegutan edo filmatzeko/grabatzeko unean kontuan hartu behar dituzten teknikako, eszenografiako eta interpretazioko zuzenketak biltzeko txostenak egin ditu.

4. Ikus-entzunezko lan baten filmaketa/grabazioa zuzentzen du, eta, horretarako, proiektuan finkatutako irizpide artistikoak eta teknikoak gauzatzearekin alderatzen ditu emaitzak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sekuentzien filmaketan/grabazioan aktoreen interpretazioa zuzendu du, gidoiaren adierazpen-asmoak eta interpretatzeko maila gordez.
- b) Sekuentziaren hartualdien filmaketa/grabazioa zuzendu du, pertsonaien mugimendua eta ekintza, eta efektu bereziak koordinatuz, gidoi teknikoan planifikatutako adierazpen-asmoa kontuan hartuz.
- c) Eszenako elementuen eta narrazioko jarraitutasuna kontrolatu ditu, finkatutako plangintza kontuan hartuz.
- d) Egindako hartualdia eta bere soinu-kontrola baloratu ditu, eta behin eta berriz errepikatu du hartualdi zuzena lortu arte.
- e) Hartualdi bakoitza erregistratu ondoren eta filmaketaren/grabazioaren aurretik, dekoratuko eta atrezko elementuak eszenaren jarraitutasun formala mantentzera egokitzen ote diren egiaztatu du.
- f) Erregistroan kontuan hartu du hartualdian eragiten duten postprodukzioko efektuen ondorengo errealizazioa.
- g) Filmaketako/grabazioko egunaren txostena egin du. Bertan, egindako hartualdiek balio ote duten, zein ekintza burutu eta erabaki hartu dituen, gertakari azpimarragarriak eta Filmaketa/Grabazio Plana aldatzea bidezkoa ote den adierazten du. Hala, produkzio-ekipoan eragina duten lan-agindu berriak osatu ditu.
- h) Ikus-entzunezko proiektua filmatzean/grabatzean gatazkak konpontzeko, langileak kudeatzeko eta motibatzekeo teknikak aplikatu ditu.
- i) Ikus-entzunezko proiektu baten filmaketaren/grabazioaren berezko jardueraren ondoriozko ingurumeneko, lanbideko eta laneko arriskuak prebenitzeko arauak betetzen ote diren hartu du kontuan.

5. Beranduago muntatu eta postproduzitzeko, ikus-entzunezko proiektu baten filmaketan/grabazioan erregistratutako ikus-entzunezko materiala antolatzen du, eta, horretarako, irudiak eta soinua jasotzea ebaluatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Irudiko zein soinuko hartualdi baliodunak baloratu ditu, haiek ikusi eta entzun ondoren, eta kameraren txostena kontuan hartuz.
- b) Bideo-zinten minutajea zorrotz neurtu du, denbora-kodeak, irudi- eta soinu-dukia, plano-mota, iraupena eta, aurrerago, proiektua muntatzeko eta postproduzitzeko prozesurako beharrezkoak izan daitezkeen beste elementu batzuk adieraziz.
- c) Jasotako irudiak eta soinuak muntatzeko eta postproduzitzeko formatu aproposenera egokitu ditu, jatorrizko formatuaren kalitatea babestuz.
- d) Filmaketan/grabazioan sortutako ikus-entzunezko materiala kudeatzeko, kontserbatzeko eta artxibatzekeo prozesua burutu du, etorkizunean erabiltzeko eta egokitzekeo.
- e) Muntaia eta/edo postprodukzioa planifikatzeko muntatze-gidoia landu du, grabatutako irudi-hartualdien ebaluazioa eta gidoi teknikoa kontuan hartuz.
- f) Soinuztatze eta Bikoizte Plan bat osatu du, grabatutako soinu-hartualdien ebaluazioa eta gidoi teknikoa kontuan hartuz.

c) Oinarrizko edukiak:

1. FILMATZEKO/GRABATZEKO GIZA BALIABIDEAK, BALIABIDE ARTISTIKOAK ETA TEKNIKOAK KOORDINATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Filmatzeko/grabatzeko prozesuaren dokumentazio teknikoa prestatzea. - Kamera batekin edo gehiagorekin filmaketaren/grabazioaren prozesu mekanikoak antolatzea eta kontrolatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Kameren kokapena egokitzea, errealizazioaren helburua eta adierazgarritasuna, aukeratutako helburuak eta altuera kontuan hartuz. • Filmatzeko makineriaren mugimenduak eta kamera-euskarriak egokitzea, errealizazioa kontuan hartuz. • Filmaketan/grabazioan argiztapena egokitzea. • Beharrezko osagarriak eta luminariak aukeratzea eta kokatzea, burutu behar duten grabazio-mota kontuan hartuz. • Eszenografia kontrolatzea. • Filmaketan/grabazioan soinu-alderdien grabazioa definitzea. • Beharrezko osagarriak eta mikrofonoak aukeratzea eta kokatzea, burutu behar duten grabazio-mota kontuan hartuz.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Filmatzeko/grabatzeko prozesuaren dokumentazio teknikoa: <ul style="list-style-type: none"> • Filmaketa/Grabazio Plana. • Baliabideen zerrendak. • Ekipo artistikoentzako eta teknikoentzako lan-aginduak. • Filmaketa-egunerako txostenak prestatzea. - Baimenak eskatzea eta bideratzea. - Filmatzeko/grabatzeko prozesuak: kameren, filmatzeko makineriaren eta euskarrien kokalekua. - Pertsonaien mugimenduak eta osaketa eszenografikoa diseinatzea, gidoiaren narrazio- eta adierazpen-asmoa kontuan hartuz. - Soinuko, argiztatzeko eta agertokiko eskemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko produkzio-prozesuaren barruan metodologiaren eta antolakuntzaren garrantzia baloratzea. - Txostenen izapidetzea zorrotz gauzatzea. - Filmaketa-prozesuan gertakizunak aurreikustea.

2. FILMATZEKO/GRABATZEKO BALIABIDE TEKNIKOEN, MATERIALEN ETA LOGISTIKOEN ESKURAGARRITASUNA KOORDINATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Filmatzeko setean edo kokalekuan ekipamendu teknikoaren egokitzapena egiaztatzea. - Ekipo teknikoaren funtzionamenduaren filmatzeko setean edo kokalekuan egiaztatzea: <ul style="list-style-type: none"> • ikus-entzunezko erregistro-ekipamenduaren, argiteriaren, soinuaren, filmatzeko makineriaren eta filmaketan/grabazioan zer ikusia duten beste instalazio tekniko batzuen funtzionamenduaren egiaztapen teknikoa. - Filmatzeko espazioak eta instalazioak egiaztatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Instalazioa, kokalekua eta dekoratuaren egokitzapena egiaztatzea. • Eszenografiaren kontroleko eta atrezko elementuak egiaztatzea. - Sekuentziaren filmaketan sartzeko, musikako eta soinuko efektuak eta mozketak egiaztatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Soinua erregistratzeko eta irudiak hartzeko ekipotan prebentzioko

	<ul style="list-style-type: none"> - mantentze-lana. - Argi-lanparak erabiltzeko prebentzioa. - Argitarako, soinutarako eta kameratarako euskarriak eta tripodeak mantentzea. - Grabazio- edo filmaketa-lekuaren azpiegitura teknikoak: <ul style="list-style-type: none"> • Kokalekuen egokitze teknikoaren kontrol-teknikak. • Grabazio-estudioaren mantentzea. - Logistikako erabakitasun-teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko produkzio-prozesuaren barruan metodologiaren eta antolakuntzaren garrantzia baloratzea. - Filmaketa-prozesuan gertakizunak aurreikustea.

3. FILMAKETAN/GRABAZIOAN ESKU HARTZEN DUTEN EKIPO TEKNIKOEKIN ETA ARTISTIKOEKIN ENTSEGUAK ZUZENTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Teknikariekkin entseatzea eta egiaztatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Eszenaratzeko iraupenak eta denborak ebaluatzea. - Artistekin entsegu-teknikak aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Aktoreak, figuranteak eta espezialistak zuzentzeko teknikak. • Entseguetan figurazioaren lana antolatzea. • Efektu berezien eta espezialisten lana antolatzea. - Etorkizuneko entsegutan edo filmatzeko/grabatzeko unean kontuan hartu behar dituzten teknikako, eszenografiako eta interpretazioko zuzenketak biltzeko txostenak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Entseguetan langileekin komunikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Zitazioak eta deialdiak, garraio-aginduak. • Teknikariekkin entsegu-teknikak. • Eszenaratzeko denborak kontrolatzea. - Artistekin entsegu-teknikak. - Zuzenketa teknikoan, eszenografikoan eta interpretaziokoan txostenak diseinatzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolamenduko taldeekin lankidetzan jardutea. - Jarraibideak betetzeko ardura, interpretazioari zein gauzatzeari dagokienean.

4. IKUS ENTZUNEZKO LAN BATEN FILMAKETA/GRABAZIOA ZUZENTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Filmaketarako/grabaziorako dokumentazioa osatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Filmaketako plangintza-dokumentuak egokitzea: gidoi teknikoak eta <i>storyboard</i>ak. • Kamerako txostenak eta filmaketako/grabazioko beste dokumentu batzuk osatzea. - Filmaketan/grabazioan errealizazio-teknikak aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Estaldura-planoak, master-planoa eta sekuentzia-planoa kontrolatzea eta errealizatzea. • Kamera bakar batekin elkarrizketa egitea eta eszenaratzzea. • Elkarrizketa-eszenak erabakitzea. • Grabazio-teknika kamera sorbalda gainean. • Klaketa identifikatzeko teknikak. - Filmaketako/grabazioko teknikak aplikatzea eszenografia birtualarekin eta efektu optikoekin. - Soinua jaso eta kontrolatzeko balorazioa. - Jarraitutasun formala mantentzeko ebaluazioa. - Egindako hartualdiek, ekintzek eta hartutako erabakiek balio ote duten
----------------	---



	adierazten duen filmaketaren/grabazioaren egunari buruzko txostena egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gidoi teknikoaren egitura - <i>Storyboarden</i> funtzionaltasuna. - Filmaketako/grabazioko dokumentuak. - Sekuentzia-planoa, master-planoa eta estaldura-planoa. - Narrazioa ulertzen laguntzen duten errealizazioaren irizpide edo printzipio estilistikoak. - Filmaketako/grabazioko teknikak, eszenografia birtualarekin eta efektu optikoekin. - Postprodukzioko efektuen eta erregistroaren arteko erlazioa: hartualdiaren errealizazioan eragiten duten faktoreak. - Jarraitutasuneko <i>raccorda</i> kontrolatzea. - Filmaketan zehar arrisku profesionalak eta ingurumenekoak prebenitzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Laneko dokumentuak osatzeko prestasuna. - Ikus-entzunezko produkzio-prozesuaren barruan metodologiaren eta antolakuntzaren garrantzia baloratzea. - Ezarritako segurtasun-arauekiko errespetua azaltzea.

5. IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTU BAT FILMATZEAN/GRABATZEAN ERREGISTRATUTAKO IKUS ENTZUNEZKO MATERIALA ANTOLATZEA	
es	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Postprodukzioaren eta muntaiaaren aldez aurreko plangintza: <ul style="list-style-type: none"> • Muntatzeko formatuak egokitzea. • Irudia muntatzeko materiala hautatzea. • Soinua muntatzeko materiala hautatzea. • Zinten minutajea, denboren kodea adieraztea, irudiaren eta soinuaren edukia, plano-mota eta iraupena. - Muntaia eta/edo postprodukzioa planifikatzeko muntatze-gidoia egitea, grabatutako irudi-hartualdien ebaluazioa eta gidoi teknikoa kontuan hartuz. - Soinu-zatze eta Bikoizte Plan bat osatzea, grabatutako soinu-hartualdien ebaluazioa eta gidoi teknikoa kontuan hartuz. - Ikus-entzunezko erregistroa sailkatzea eta kontserbatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Postprodukzioa eta/edo muntaia planifikatzeko muntaia-gidoia diseinatzea. - Soinu-zatze eta Bikoizte Plana diseinatzea. - Muntaketako eta postprodukzioko faserako dokumentazio teknikoa prestatzeko teknikak. - Erregistratutako materiala hautatzeko irizpideak. Soinu- eta irudi-iturrien bateragarritasuna eta egokitzapena. - Filmaketan sortutako ikus-entzunezko materiala kudeatzea, kontrolatzea, kontserbatzea eta gordetzea. - Filmatzeko/grabatzeko dokumentazio teknikoa ixteko prozedurak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errealizazioko dokumentazioak eta informazioak betetzea eta kudeatzea. - Antolamenduko taldeekin lankidetzan jardutea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakasteko eta ikasteko prozesua antolatzeko eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen hasieran **1. eta 2. multzoak** garatu daitezke. Bertan, filmatzeko espazioen eta instalazioen egiaztapenari, kokalekuan edo setean ekipamendu teknikoaren egokitzapenari eta kokalekuari buruzko edukiek eta bertatik ondorioztatutako beste batzuek –hala nola, premia teknikoak eta sortutako dokumentazioa– elkarri eraginez dihardute.

Kronologiari dagokionean, **3. multzoko** entseguen prozesuari buruzko edukiak jarraituko lituzkete, baina **4. multzoko** edukiak ere kontuan hartuz. Eduki hauek gidoi egituratu bat abian jartzen laguntzen dute. Era horretan, teknikariek, aktoreekin eta espezialistekin entseguak zuzenduko lituzkete, beharrezko komunikazio-protokoloak burutuko dituzten eta denborak kontrolatuko dituzten prozesu batean.

Fase honetan bertan filmaketa edo grabazio bat zuzentzeko errealizazio-tekniken ondoriozko dokumentazioa landuko lukete, plano diferenteak (sekuentzia-planoa, master-planoa eta estaldura-planoak) erregistratuz narrazio-jarraitutasuna egituratuz.

Azkenik, **5. multzoaren** barruan, erregistroak kontserbatzeko eta postproduzitzeko materialak aukeratzeko edukiak landuko lituzkete, formatuen bateragarritasuna aztertzeko eta editatzeko soinu- eta irudi-iturriak egokitzea azpimarratuz. Ikus-entzunezko erregistroa gordetzeko eta muntaketa-faserako dokumentazio teknikoak landuko lukete.

Eduki komunak (modulu-mailan eta moduluen arteko mailan), honela landuko dituzte:

- Moduluan zeharka, eduki horiek jasoko dituzten unitate didaktiko guztietan sartuz.
- Beste modulu batzuekiko zeharka; hau da, gai horiek barne hartzen dituzten moduluen programaziorako sekuentziazioa eta eduki zehatza adostuko dira.

2) Alderdi metodologikoak

“**Zinemako eta bideoko errealizazio-prozesuak**” batez ere prozedurazko modulua da. Horregatik, eskuratutako ezagutza teorikoak praktikara eramatera bideratu behar da edozein ekintza didaktiko. Horretarako, irakasleek batez ere lan praktikoa egitera bultzatuko dituzte ikasleak, “egiten ikasteko” helburuarekin.

Modulua gaindituz gero, ikasleak ikus-entzunezko, ikuskizunetako edo ekitalditako proiektu zehatz bat definituko dituzten komunikazio-kodeak aplikatzeko gai izango dira, beharrezko ekipamenduaren premiak zehaztuko dituzte, ekipo teknikoa eta artistikoa koordinatuko dituzte, lana planifikatuko dute, eta entseguen eta grabazioen beharrezko dokumentazio teknikoak landuko dute. Bide beretik, antzeppenaren ezaugarriak zehaztuko dituzte gidoi teknikoan edo kudeaketa-liburuan.

Helburu horrekin, errealizazioan laguntzeari buruzko dokumentu errealak, zuzendaritza-teknikak, eta zinemako eta bideoko proiektuen gidoiak lantzeko, hainbat informazio erabiliko duten ariketak egitea eta jardura praktikoa lantzea gomendatzen dute moduluan zehar. Ikasleek modulu honetan beharrezko balio-aniztasuna eskuratzeko,

hainbat motatako zinemako eta bideoko proiektuen errealizazio-teknikak landu beharko lirateke, hala nola, dokumentalak eta dramatikoak.

Talde-lanaren bitartez rolei esleitutako antolakuntzako lanei buruzko eskuduntzak esleitu ahal izango dizkiete ikasleei, eta koordinazio teknikoak, dokumentazio logistikoa, ekipoen funtzionamendua, eta entsegu- eta zuzendaritza-erantzukizunak ezagutuko dituzte. Web-ean informazio teknikoak bilaketaren, eta beharrezko dokumentazioa osatzeko eta kudeatzeko informatikako aplikazioen bitartez lana suspertuko dute. Ildo horretatik, ikasleek kontuan hartuko dituzte informazioaren eta komunikazioaren teknologien aukerak euren lana garatzean.

Ikasleek taldekideen artean komunikazioa dinamizatuko dute, sortuko diren arazoak konpontzen lagunduz. Koordinazio-lanei dagokienean, modulu hau **“Zinemako eta bideoko errealizazioaren plangintza”** moduluarekin batera lantzea gomendagarria da, euren jarduerak garatzeko garaian.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Filmaketa/grabazioko prozesuaren antolaketa:
 - Dokumentazio teknikoan adierazitako zereginak gainbegiratzea (Filmaketa/Grabazio Plana, baliabideen zerrenda, laneko ordenak, filmaketa-eguneko txostenak).
 - Gidoian erabakitako errekerimendu teknikoak burutzea:
 - Kameran mugimenduak, kokalekuak eta optikak aukeratzea.
 - Filmaketako setean edo eszenografian argiteria planifikatzea eta kontrolatzea.
 - Efektu bereziak eta audio-hartunea egokitzea.
 - Grabazio-baldintzetan ekipoen funtzionamendua optimizatzea.
 - Ekipo teknikoekin eta artistikoekin entseguak zuzentzea, eszenaratzeko denborak ebaluatuz.
- ✓ Ikus-entzunezko lan baten filmaketa/grabazioa zuzentzea:
 - Dokumentazio teknikoak analizatzea eta lantzea:
 - Gidoi teknikoak eta *storyboard* interpretatzea eta filmaketa-baldintzetara egokitzea.
 - Hartualdiak baliozkotzeko erregistroko eta kamerako txostenak lantzea.
 - Estaldura-planoak, master-planoa eta sekuentzia-planoa kontrolatzea eta errealizatzea. Klaketa identifikatzea:
 - Ikus- eta narrazio-jarraitutasuneko teknikak aplikatzea, finkatutako plangintza kontuan hartuz.
 - Eszenografia birtualarekin eta kromarako atzealdeekin hartualdiak egitea.
 - Soinu-kontrolerako eta soinu-grabazioko mailak ebaluatzea.
- ✓ Material erregistratua aukeratzea eta antolatzea:
 - Kamerako txostenaren aginduen arabera, bideoko eta audioko hartualdi onak aukeratzea.
 - CT bidez zinten minutajea kontrolatzea, edukia, plano-mota eta iraupena adieraziz.
 - Bideo- eta audio-iturriak muntatzeko formatu aproposenera egokitzea.
 - Postproduktzio-prozesurako dokumentazio teknikoak osatzea:
 - Muntaia eta/edo postproduktzioa planifikatzeko muntatze-gidoia sortzea, gidoi teknikoan eta hartualdien ebaluazioan oinarrituta.
 - Soinuztatze eta Bikoitze Plan bat osatzea, grabatutako soinu-hartualdiak eta gidoi teknikoak kontuan hartuz.
 - Grabatutako materiala sailkatzea, kontserbatzea eta gordetzea.

3. lanbide-modulua ³ TELEBISTAKO ERREALIZAZIOAREN PLANGINTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Telebistako errealizazioaren plangintza
Kodea:	0904
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	120 ordu
Kurtoa:	2.a
Kreditu kop.:	10
Irakasleen espezialitatea:	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu-mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC0216_3: Telebistako produkzio baten errealizazio-premien, agertokiaren eta kokalekuen eszenaratzearen garapena koordinatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 13.a / 14.a / 15.a / 18.a / 20.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Telebistako programa baten ezaugarriak eta formatua definitzen ditu, eta, horretarako, telebista bateko programen emankizunen zerrendan ipintzeko aukerak eta generoaren tipologia kontuan hartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Programa-proiektuko telebista-generoa definitu du, telebista baten aurrez definitutako programazioaren aukerak eta ezaugarriak proiektuaren hasierako tratamenduetara eta ideietara aplikatuz.
- Audientzia-potentziala, emisio-bitartekoak, ordutegi-tarteak, publizitate-aukerak edo zerbitzu publikoko justifikazio posiblea kontuan hartuz, programa-proiektu baten helburuak definitu ditu.
- Telebistako programa baten fitxa teknikoa landu du, programaren egituraren azterketa, bere eraikuntzan erabilitako errealizazio-kodeak, guztientzako diseinuaren baldintzatzaileak, erabilitako giza baliabideak eta baliabide teknikoak, eta programa osatzen duten elementu guztien azterketa xehatua oinarri gisa hartuz.

- d) Telebistako programa-proiektu bat martxan jartzeko erabiliko dituzten ikus-entzunezko lengoaiaren baliabideak zehaztu ditu, enkoadraketaren adierazpen-erabilerak eta erabilitako konposizioa espezifikatuz, bai eta soinuko eta argiztapeneko baliabideak ere.
- e) Telebista-programa baten eskaleta matrizea garatu du, bere egituraren eta edukien garapenean oinarrituz.
- f) Programaren errealizazioan erabiliko dituzten narrazioko baliabideak, erritmoa eta egitura zehaztu ditu.

2. Gidoia xehatzean oinarrituz, telebista-programa baten errealizazio-eskaleta garatzen du, eta, horretarako, baliabideen beharrak eta multikamera-errealizazioaren adierazpen asmoen lorpena erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Telebistako programa-proiektu bateko gidoia xehatu du, zerrenda koherentetan abian jartzeko beharrezko baliabideak identifikatuz eta taldekatuz.
- b) Multzo edo sekuentzia bakoitzean pertsonaien eta figurazioaren parte-hartzeak markatu ditu gidoian, jantzitegia eta karakterizazioak identifikatuz, eta datuak xehatze-orrietara eramanez.
- c) Gidoian markatu ditu kokalekuak, dekoratuak, elementu eszenografikoak, atrezzoak, ibilgailuak, eta argiztatze- eta soinu-efektuak, eta datuak xehatze-orrietara eraman ditu.
- d) Grabazio-estudioaren edo kokalekuaren ezaugarriak tokian bertan edo oinplanoan aztertu ditu, haien egokitasuna baloratuz, kokalekuko fixari edo txostenari soluzioak emanez, eta berau osatzen duten elementuen bideragarritasuna egiaztatuz.
- e) Multikamera-errealizazioaren egitura eta erritmoa zehaztu ditu, programaren adierazpen-asmoak eta edukia kontuan hartuz.
- f) Eskaleta garatu du, telebistako programaren edo fikzioaren multzoak, esku hartzen duten pertsonen parte-hartzeak, une bakoitzean behar diren jardun teknikoak, eta erreproduzitu behar den material grafikoa eta ikus-entzunezkoa sekuentzialki definituz.
- g) Produkzioak finkatutako baldintzekin koordinatuta, programaren errealizatorako laneko plan bat osatu du.

3. Telebista-programa baten aurreproduzioan behar diren materialak prestatzen ditu, eta, horretarako, programaren ezaugarriak eta baldintzak programa beraren errealizazioaren antolamendurekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mediateken funtsaren kontsultan oinarrituta, programa aurreproduzitzeko beharrezko ikus-entzunezko materialak eskuratzeko plan bat ezarri du.
- b) Jatorrizko formatuak bateratzen dituen laneko euskarri batera programa aurreproduzitzeko behar den ikus-entzunezko materiala transferitu du, kalitate teknikoak produkzioaren errekerimenduetara doitzen direla egiaztatuz.
- c) Editore ez-linealetan edo erredakzio eta edizio birtualeko sistemetan aurreproduzitzeko beharrezko bideo-piezak editatu ditu.
- d) Aurreproduzitzeko materiala osatzen duten piezak garbi identifikatu ditu, eskaletan erlacionatutako grabazio-zatitan jasoz. Era horretan, zerbitzu batean sartu ahal izango ditu edo programa errealizatzean bideo-erreproduktoreen bitartez atera ahal izango ditu.
- e) Beharrezko material grafikoaren ezaugarriak eta baldintzak zehaztu ditu, eta, programan zehar, material horren errealizazio eta antolaketa kudeatu ditu, eskaletan jasotako ordenan.

- f) Eskaletaren aurkezpen-ordena islatzen duen errotuluen zerrenda osatu du.
- g) Zerrenda batean programan erabili behar dituzten musika-pieza guztiak jaso ditu, hauek kudeatzeko eta jabetza intelektualeko araudia betetzeko.

4. Kontroleko multikamera-errealizazioaren garapen espaziala eta denborazkoa planifikatzen du, eta, horretarako, telebistako programaren komunikatzeko asmoak gauzatzea eta esku-hartze teknikoaren koordinazioa erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Studioko edo kokalekuen oinplanoan, plano eszenografikoetan deskribatutako set-ak kokatu ditu, dekoratuko eta atrezko elementuak non ipini finkatuz.
- b) Programan esku hartzen dutenen eta pertsonaien posizioak zehaztu ditu, bai eta eszenaratzeko mugimenduak ere.
- c) Kameran plangintza osatu du, kameraren kokapena, estaldura, mugimenduak, jarraitu behar dituzten pertsonak edo pertsonaiak, enkoadraketa- eta plano-motak deskribatuz, eskaletan jasotako ordena kronologikoa jarraituz.
- d) Soinuaren grabazioan nahi duten adierazpeneko erabilera lortzeko beharrezko baldintza teknikoak zehaztu ditu, mikrofonoen kanalak, audio-lineak, kanpo-lineak, musikak eta soinu-efektuak modulatz.
- e) Argiztatze-efektuen plangintza eta programan zehar egongo diren aldaketen espezifikazioa landu ditu.
- f) Programaren garapen espazialean eta denborazkoan eragin dezaketen aurrez ikusteko moduko gabezia teknikoak eta eszenografiakoak zuzentzeko sistema bat finkatu du.
- g) Aurkezleek irakurriko dituzten testuak eskaletara egokitzea gainbegiratzeko prozedura finkatu du, bai eta testu horiek *autocuen* sekuentzialki sartzea ere.

5. Telebista-jarraitutasuneko prozesutan emisioko, publizitateko eta autosustapeneko denborak planifikatzen ditu eta kontrolatzen ditu, eta, horretarako, espazio hauek osatzen dituzten elementuen erabilera funtzionalak eta telebistaren programazioarekin duten erlazioa bereizten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Telebista-instalazio baten eguneroko emisioaren ikus-entzunezko osagai guztiak eskaletan eta jakinarazpenen bitartez dokumentatu ditu, jarraitutasun-kontrolako irizpide funtzionalak eta antolakuntzakoak aplikatuz.
- b) Identifikazio-sistema baten bitartez, telebista-programa bat osatzen duten blokeetako bakoitza zehaztu du, bai eta programaren abiapuntua eta amaierako puntua ere.
- c) Telebistako kanal edo emisora baten autopromozioak identifikatzeko sistema ezarri du, programazio- eta emisio-denbora osoa hartuta haren eragina baloratz.
- d) Telebista batean publizitate-blokeen emisio-sistema zehaztu du. Sistema hori telebistan publizitatea emititzeko lege-araudiarekin bateragarria da.
- e) Publizitateari bide emateko eta bertatik ateratzeko segidak eta goiburuak identifikatzeko sistema ezarri du, emisioko eta programazioko denboraren guztizko zenbaketan duten eragina kontuan hartuz.

c) Oinarrizko edukiak:

1. TELEBISTA PROGRAMA BATEN FORMATUAREN ETA EZAUGARRIEN DEFINIZIOA

prozedurazkoak	- Telebistako errealizazio-ereduak analizatzea.
----------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> - Telebistako programetan adierazpen-argiztapena analizatzea. - Telebistako programetan soinu-baliabideak aplikatzea. - Telebistako errealizazioan narrazioko eta adierazpeneko baliabideak aplikatzea. - Honako programa hauetarako telebistako gidoia planifikatzea eta diseinatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Informazio-programak. • Entretanimendu-programak. • Telebistarako fikzioko programak edo serieak. - Telebista-programa baten eskaleta matrizea gauzatzea, bere egituraren eta edukien garapenean oinarrituz. - Programaren errealizazioan erabiliko dituzten narrazioko baliabideak, erritmoa eta egitura zehaztea. - Audientzia-potentziala, emisio-bitartekoak, ordutegi-tarteak, publizitate-aukerak edo zerbitzu publikoko justifikazio posiblea kontuan hartuz, programa-proiektu baten helburuak definitzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telebistako enpresa-motak: plataformak, emisoreak, produktoreak eta zerbitzu-enpresak. - Telebista-generoak: <ul style="list-style-type: none"> • Askotariko programak eta musika-programak. • Informatiboak, elkarrizketak eta eztabaida. • Fikzio-serieak. • Lehiaketa-programak. • Ekitaldi bereziak eta kirol-emanaldiak. - Formatuak: <ul style="list-style-type: none"> • Informazio-formatuak. • Entretanimendu-formatuak. • Fikzio-formatuak. • Multimedia-formatuak. - Telebistako programazio-teknikak. - Argiak telebistako set-etan. - Adierazpen-soinua telebista-programetan. - Telebistako errealizazioan narrazio-moduak aplikatzea. Guztientzako diseinuaren eragileak. - Telebistako gidoia eta eskaleta. - Egitura, erritmoa eta narrazio-baliabideak TB programa baten errealizazioan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioaren analisi, bilketa eta formatua aukeratzeko ekimena. - Jarrera ekintzailea errealizazio-ereduen azterlanean.

2. TELEBISTAKO PROGRAMAREN ERREALIZAZIO ESKALETA GARATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Multzo edo sekuentzia bakoitzean pertsonaien eta figurazioaren parte-hartzeak markatzea gidoian, jantzitegia eta karakterizazioak identifikatuz, eta datuak xehatze-orrietara eramanez. - Gidoian markatzea kokalekuak, dekoratuak, elementu eszenografikoak, atrezzoak, ibilgailuak, eta argiztatze- eta soinu-efektuak, datuak xehatze-orrietara eramanez. - Telebistako programetan eta fikzioko proiektutan gidoia xehatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Multzotan banatzea • Banaketa sekuentzia mekanikotan eta dramatikotan. • Pertsonaiak xehatzea. • Argumentu-atrezzoak xehatzea. - Telebista-programaren errealizazio-gidoia xehatzea. - Multikamera-errealizazioaren egitura eta erritmoa definitzea,
----------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> - programaren adierazpen-asmoak eta edukia kontuan hartuz. - Telebistako programen eskaletaren errealizazioa. - Produkzioak finkatutako baldintzekin, programaren errealizatorako laneko plana idazteko teknikak koordinatuta aplikatzea. - Grabazio-estudioaren ezaugarriak eta gidoian oinarritutako kokalekuak zehaztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gidoia xehatzeko ereduak: <ul style="list-style-type: none"> • Telebistako programaren errealizaziokoa. • Fikzio-proiektuena eta telebista-programena. - Telebistako programen eskaletaren errealizazio-teknikak: <ul style="list-style-type: none"> • Egitura multzotan. • Egitura sekuentzian. - Grabazio-estudioaren ezaugarriak eta gidoian oinarritutako kokalekuak zehaztea. - Telebista-programetan eta fikzio-proiektutan narrazio-baliabideak, erritmoa eta egitura. - Laneko teknikak eskaleta informatizatuekin.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko produkzioaren barruan antolakuntza-kudeaketaren garrantzia baloratzea. - Sor daitezkeen egoeretara egokitzea.

3. TELEBISTA PROGRAMA BAT AURREPRODUZITZEKO MATERIALAK PRESTATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telebistako programetan artxiboko ikus-entzunezko materiala zehaztea eta beharrak analizatzea. - Ikus-entzunezko iturrien dokumentuak eskuratzea: <ul style="list-style-type: none"> • Agentzietako albisteak biltzea. • Ikus-entzunezko dokumentu-funtsak erabiltzea. - Material grafikoa zehaztea eta osatzea. - Agentzietako albisteak biltzea: <ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezko dokumentu-funtsak erabiltzea. - Iturrietako formatuak bateratzea. - Aurreproduktzioarako bideo- eta soinu-piezak editatzea. - Zerbitzarian sartzeko edo programaren errealizazioan erabiltzeko postproduktzio materiala aukeratzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko iturrien baliabideak telebista-programetan: <ul style="list-style-type: none"> • Fitxategi-materialak. • Albiste-agentziak. • Ikus-entzunezko dokumentu-funtsak. - Edizioko sistema birtualak, eta ikus-entzunezko dokumentuak eta albisteak idaztea. - Grafismo-materiala telebistako programetan. - Jabetza intelektualak babestutako baliabideak kudeatzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa bilatzeko ekimena. - Garatu beharreko produktuaren kalitatearekiko interesa.

4. TELEBISTAKO KONTROLEAN MULTIKAMERA ERREALIZAZIOA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telebistarako eszenografia planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Eszenografiako elementuak identifikatzea. • Dekoratuaren goiko bistak, eta aurretiko bistako eta hiru
----------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> dimentsioko irudikapenak egitea. <ul style="list-style-type: none"> • Eszenografia birtualak osatzea. - Telebistan multikamera-errealizazioan ekintzaren mugimendua planifikatzea: kamera-posizioak eta mugimenduak. - Soinuaren adierazpen-analisia, eta seinaleak eta soinu-efektuek ondo funtzionatzen dutela ikusteko probak. - Erabilitako argi-puntuaren adierazpen-analisia eta argiztapen-efektuen plangintza. - Testuetako eskaleta prestatzea: <ul style="list-style-type: none"> • <i>Autocuen</i> aurkezleek irakurritako testua sekuentzian sartzea . • Beste bitarteko batzuk.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eszenografia birtualeko teknika. - Telebistako programetan eta fikzioen proiektutan eszenaratzea. - Multikamera-teknika telebista-kontrollean. - Telebistako errealizazioan espazioaren eta denboraren teknikak. - Telebistako programetan irudia eta soinua antolatzeako teknikak. - Testuak irakurtzeko prozedurak ezartzea: <i>autocue</i>.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gertakizuneko egoerak aurreikusteko antolaketa. - Burutu beharreko ekintzen sistematizazioa eta sekuentziazioa. - Talde-lana koordinatzea.

5. TELEBISTAKO JARRAITUTASUNEAN EMITITZEKO, PUBLIZITATEKO ETA AUTOSUSTAPENEN DENBORAK KONTROLATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraitutasuneko eskaleta osatzea. - Blokeen emisio-denborak, publizitatea eta autosustapena kontrolatuko dituen jarraitutasuneko eskaleta baten denborak aplikatzea eta neurtzea. - Telebistako jarraitutasunean puntuaketa-teknikak aplikatzea. - Telebistako jarraitutasun-ekipoen eragiketa. - Emititu beharreko piezei eta programei buruzko amaierako edizio-eragiketak egitea. - Emisioan jarraitutasuneko ordenak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Honako elementu hauen denboren kontrola eta eskaleta: <ul style="list-style-type: none"> • Goiburuak eta segidak. • Ikus-entzunezko osagaiak. • Programaren blokeak. • Autopromozioak eta publizitate-blokeak. - Telebistako jarraitutasunean puntuaketako elementuak. - Telebistako jarraitutasun-ekipoak. - Telebistako emisiotan jarraitutasunerako jakinarazpenak eta ordenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Finkatutako denborak betetzeko zorrotasuna. - Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean. - Koordinazioa ekipoko kideen artean.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau **1. multzoko** edukiak irakatsiz has daiteke. Multzo honetan programa baten formatuaren tipologia ikasten dute, telebista-generoa kontuan hartuz, eta gidoia eratzeko aldeaz aurreko pauso gisa. Gidoi hau diseinatzean kontuan hartuko dituzte telebista-errealizazioko baliabide narratiboak, eta audioaren eta argiztapenaren ezaugarriak. Adierazpen-lengoaia jakin bat definitzen duen generoaren eta helburuaren arabera produktuaren diseinua hartu behar dute kontuan.

Aukeratutako estiloaren eta generoaren arabera, gidoia egituratu ondoren xehatu egingo dute. **2. multzoan** honako hau jo daiteke metodologia egokien gisa: argumentuko atrezzoak eta pertsonaiak multzotan, sekuentzia mekanikotan eta dramatikotan banakatzea. Kontuan hartu beharko dute, banakatzea telebista-programa baten errealizazio-eredu baterako pentsatuta dagoen edo fikzioko proiektuak diren. Datu guztiak banakatuta (pertsonaien parte-hartzea multzotan, argiztapena, jantziak, kokalekuak...), eskaleta garatuko dute. Bertan, programaren multzoak, esku-hartzeak, jardura teknikoak, multikamera-errealizazioa, eta erreproduzitu beharreko material grafikoa edo ikus-entzunezkoa sekuentzialki definituta egongo dira.

Fase honetan, **3. multzoko** edukiak lantzen has daitezke. Bertan, eskaleta garatzeko alderdiak eskainiko dituzten ikus-entzunezko edo dokumentuko materialak bilduko dituzte. Hala ere, eskaletak berak definitu ahal izango ditu multzo bakoitzaren denborak eta bildutako materialaren iraupena.

Era berean, multikamera-errealizazioari buruzko 4. multzoko edukiak aurreratu ahal izango dituzte eskaleta osatzen laguntzeko.

Banakatzetan jasotako beharrak eta multzo edo sekuentzia bakoitzetik denbora eskuragarriak definitu ondoren, albisteak idaztea eta ikus-entzunezko baliabideak sortzea bezalako dokumentu-materialak prestatzeko 3. multzoko eduki gehiago garatuko dituzte. Beharrezko bideo-piezak, grafikoa eta errotuluak editatuko dituzte, bai eta beharrezko musika-piezak ere. Aurreproduktzio-fase batean daudenez, eskaletan material guztia identifikatzen saiatuko dira, programa egitean eskaintzeko helburuarekin. Eskaleta osatzen laguntzeko zenbait eduki aurreratu ahal izan badituzte ere, ondoren landu beharko litzatekeen **4. multzoan**, kameraren kokapenei, estaldurei eta mugimenduei, erabili beharreko langile-kopuruari eta multikamera-errealizazioko erritmoari buruzko alderdiak definitu beharko liriteke. Alderdi horiek guztiak une honetan bertan amaitu beharko dira, erreferentzia gisa eskaletan adierazitakoa hartuz. Entsegu multikamerako probak egingo dituzte eta programan zeharreko argiztatze-parametro aldagarriak edo finkoak ezarriko dituzte.

Azkenik, **5. multzoan** dauden denboren kontroleko edukiak emango dituzte. Jarraitutasuneko eskaleta landuko dute eta, bertan, atal bakoitzeko (ENG,S, lokuzioak, publizitatea...) denboren kontrola eta bertako atal bakoitzaren denborak adierazi beharko dituzte. Denboren markaketak programaren narratiban puntuaketa-zeinuak ezartzeko, eta emisioaren denboretara mugatzea eta garapen orekatua lortzen laguntzeko erreferentzia gisa balioko du. Horren haritik, jarraitutasuneko ekipoei eta ordenekin praktikatu beharko dute.

2) Alderdi metodologikoak

Programaren formatua definitzea, gidoia banakatzetik abiatuta eskaleta garatzea, materialak eta baliabideak aukeratzea, multikamera-errealizazioa planifikatzea eta emisio-, publizitate- eta autosustapen-denborak kontrolatzea bezalako moduluaren funtzioak betetzeko ikaskuntza erraztuko dute alderdi metodologikoen, telebista-jarraitutasuneko prozesutan.

Modulu honek izaera teorikoa eta prozedurazkoa du, eta telebistako proiektuen errealizazioa planifikatzeko funtzioei erantzuten die.

Funtzio horiek betetzeko, dokumentazio teknikoko ereduak lan egitea gomendatzen dute, programaren formatua definitzeko, gidoia banakatuta eskaleta garatzeko, beharrezko baliabideak eta materialak definitzeko, multikamera-errealizazioa planifikatzeko, eta telebista-jarraitutasuneko prozesutan autosustapen-, publizitate- eta emisio-denborak kontrolatzeko. Horren haritik, edozein ekintza didaktiko, eskuratutako ezagutza teorikoak praktikan jartzera bideratu beharko da.

Informazioa bilatzeko Internet bezalako teknologia berriak erabili ahal izango dituzte, beste telebista-programa batzuk planifikatzeko ereduak lortzeko edo ondorioztatzeko (generoak, formatuak, estiloak), edo telebistako ikus-entzunezko produkzio-enpresei lotutako jarduera profesionalak ondorioztatzeko.

Telebista profesionala planifikatzeko ekipo baten moduan, taldekako lana gomendatzen dute, kide bakoitzari erantzukizunak esleituz. Telebista-programa bat egiteko, ekipo hau gai izango da errealizazio-eskaletak garatzeko, kokalekuen ezaugarriak ebaluatzeko, eszenaratzea definitzeko, multikamera-errealizazioa planifikatzeko, jarraitutasuneko eskaletak lantzeko eta edozein behar definitzeko.

Irakasleek parte-hartze ikaskuntza bultzatuko dute. Bertan, talde bakoitzaren proiektuak bere berezitasuna emango dio ikaskuntza komun bati. Interesgarria dirudi proiektuari sormena eta orijinaltasuna emango dioten komunikatzeko adierazpen-modu berritan sakontzea. Aipatu den moduan, beharrezkoa dirudi web espezializatuak bezalako kanpoko kontsultetara jotzea. Teknologia-ikerketari esker, eduki eta prozedura eguneratuak erantsi ahal izango dituzte, adibidez, I-news edo New-star motako eskaleta informatizatuak erabiltzeak eskaini ditzakeenak.

Azkenik, koordinazio-lanei dagokienean, modulu hau **“Telebistako errealizazio-prozesuak”** moduluarekin batera lantzea gomendagarria da, euren jarduera didaktikoak garatzeko garaian.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Telebistako programa-proiektu baten definizioa:
 - Zuzentzen zaion audientziaren arabera generoa, formatua eta objektiboak aukeratzea.
 - Programaren egitura, erritmoa eta baliabide narratiboak zehaztea, hauen fitxa teknikoa osatuz.
 - Ikus-entzunezko lengoia zehaztea: enkoadraketa, konposizioa, argiteria eta soinu-baliabideak.
 - Programaren eskaleta matrizea garatzea, bere egiturari eta edukietan oinarrituz.
- ✓ Errealizazio-eskaleta sortzea:
 - Telebista-proiektua banakatzea, beharrezko baliabideak antzemanaz.
 - Gidoiaren sekuentzia edo multzo bakoitzean markaketa burutzea, honako banakatzeko-erri hauetara eramanez:
 - pertsonaien eta figurazioaren esku-hartzeak.
 - kokalekuak, dekoratuak, eszenografia, tresna eta ibilgailuak.
 - argiztapen- eta soinu-efektuak.
 - Multikamera-errealizazioaren erritmoa definitzea.
 - Ikus-entzunezko iturrien baliabideak prestatzea: grafismoa, albisteak eta material dokumentala.

- Eskaleta garatzea, telebistako programaren edo fikzioaren multzoak, esku hartzen duten pertsonen parte-hartzeak, une bakoitzean behar diren jardun teknikoak, eta erreproduzitu behar den material grafikoa eta ikus-entzunezkoa definituz.
- ✓ Emisio-denboren kontrola eta telebistako programa baten errealizazioa planifikatzea:
 - Multikamera-errealizazioan, aukeratutako ingurune eszenografikoan ekintzaren mugimendua planifikatzea, enkoadraketa- eta plano-motak, jarraitu behar dituzten pertsonaiak edo pertsonak, mugimenduak, estaldura eta kokapena erabaki ondoren, eskaletan adierazitako ordena kronologikoa jarraituz.
 - Honako alderdi hauei buruzko baldintza teknikoak finkatzea:
 - soinuaren erregistroa: Soinu-efektuak, musikak, kanpoko lineak, audioko lineak eta mikrofono-kanalak modulatzeko.
 - programan zehar argiztapenaren ezaugarriak eta funtzioak.
 - Emisio-denbora osoa kontrolatzeko eragiketarako egitea, honako alderdi hauek kontuan hartuz:
 - publizitate-blokeak sartzea.
 - segidak eta goiburuak.
 - autosustapenak.

4. lanbide-modulua **4** TELEBISTAKO ERREALIZAZIO PROZESUAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Telebistako errealizazio-prozesuak
Kodea:	0905
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	180 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	8
Irakasleen espezialitatea:	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu-mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0218_3: Telebistako produktuen postprodukzioan parte hartzea. UC0217_3: Baliabide teknikoak eta giza baliabideak kontrolatuz telebistako produkzio baten errealizazio-kontrollean laguntzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 5.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 19.a / 22.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Errealizatorako laneko gidoia garatzen du, eta, horretarako, aurreprodukziotik datorren ikus-entzunezko materialaren iraupena eta kalitatea egiaztatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Programan erreproduzituko dituzten ikus-entzunezko pieza guztien kalitate teknikoa egiaztatzeko sistema ezarri du.
- Bideo-piezen minutajea egin du, bakoitzarentzako iraupena, sarrerako koleatzea, irteerako koleatzea, irteerako testu-oina, irteerako ekintza-oina eta bideoko azken koadroaren deskribapena xehatuz.
- Gidoiaren ekintza-oinak eta testu-oinak identifikatu eta aipatu ditu.
- Musika-ekitaldien minutajea landu du, sarrerako zubiaren iraupena eta ahotsen sarrerako unea, instrumentuak, leloak eta musika-marrazkiak deskribatuz.
- Fikziotan, ikus-emanalditan eta koreografia-emanalditan ekintzen minutajea egin du.

- f) Grabatuko duten telebistako errealizazioaren seinaleak zehaztu ditu: masterra, seinalea inkrustaziorik gabe eta kamera tolestuak edo masterizatuak.
- g) Eskaletaren laneko gidoi osagarria garatu du.

2. Programaren errealizazioan edo emisioan, bideo-piezen emisioa eta erreprodukzioa kontrolatzen ditu, eta, horretarako, minutajeak, laneko gidoiak eta eskaletak bezalako errealizazioko dokumentazio teknikoak jarraitzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bideo-piezen jatorriari eta kopuruari buruz alde zuzenetik informatu du, programaren eskaleta zuzen interpretatuz.
- b) Bideo-pieza guztien edo zatien jatorriari buruz alde zuzenetik informatu du, bai eta minutajeetan aipatutako iraupenari, oinei eta koleatzeei buruz ere, bideoa erreproduzitzean falta den denbora adieraziz, eta amaierako gelditzeen eta planoaldaketen inguruan ohartaraziz.
- c) Grabazioan zehar, zuzeneko edo *playback* bidezko musika-emanaldien inguruan informatu du, sarrerako zubiaren iraupenari eta ahotsen, instrumentuen, leloen eta musika-marrazkien sarrera-uneari buruz, musika-minutajeen adierazitako datuetan oinarrituz.
- d) Fikzioak eta koreografiak grabatzean, ekintza nagusiei buruz informatu du, iraupenak eta oinak aipatuz.
- e) Kirol-emanalditan errepikapenen erreprodukzio- eta grabazio-sistema kudeatu du.

3. Multikamerako telebista-programak egiten ditu, eta, horretarako, prozesuan esku hartzen duten giza baliabide eta baliabide tekniko guztien parte-hartzea baloratzen du, eta horien lana zuzentzen du proiektuaren errekerimenduak kontuan hartuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Grabatutako edo zuzenean emandako multikamerako programa baten errealizazioan esku hartzen duten guztien koordinazioa bermatzeko sistema ezarri du: informatzaileak, aurkezleak, errealizazio-ekipoak, kamerak, soinua, argiztapena, karakterizazioa, eszenografia, artistak eta beste batzuk.
- b) Programa osatzen duten enkoadraketa guztien konposizioko bigarren planoetan nahi ez dituzten lerrokatzeak aurreikusi eta ekidin ditu.
- c) Enkoadraketa guztietan kamerak eta elementu desegokiak agertzea ekidin du eta aurreikusi du.
- d) Enkoadraketetan nahi ez dituzten efektuak sor ditzaketen eszenografia, argiztapen, jantzitegia, ile-apainketa eta makillajeko elementu guztiak identifikatu eta ekidin ditu.
- e) Kameran ekipoari planoak, enkoadraketak eta mugimenduak, bideo-ekipoari bideo-piezak, soinu-ekipoari audio-iturriak eta estudioko errealizaziorako laguntza eskatu ditu, eskaerak nahikoa denborarekin aurreikusiz.
- f) Giza talde teknikoak eta artistikoak zuzendu ditu, programaren helburuak lortzeko aginduak emanez, hartualdiak baliozkotuz eta grabatuen kasuan errepikapenak aginduz.
- g) Programa grabatzeko aginduak eman ditu edo emisioan sartzeari buruz informatu du.
- h) Telebista-programa egin du, grabatzeko edo emititzeko ateratzen diren irudi- eta soinu-iturriak sekuentzietan aukeratuz.

4. Entseguetan eta grabazioan telebistako platoaren berezko jarduerak koordinatzen ditu, eta, horretarako, antolakuntzako funtzioen betearazpenak eta programaren errealizazioaren helburuak lortzea erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Programaren eszenografiarekin lotuta artisten mugimenduak kontrastatzeko prozedura ezarri du, bere bideragarritasuna eta behar den denboran gauzatzea bermatzeko.
- b) Telebistako programaren errealizazioan ikus-jarraitutasuna konprometitu dezaketen elementu mugikorren eta atrezzoko elementuen ezaugarriak eta posizioak egiaztatu eta finkatu ditu.
- c) Multikamerako fikzio-programetan figurazioak edo programetan ikusleek hartuko dituzten posizioak zehaztu ditu, burutu behar dituzten ekintzak haiei jakinaraziz.
- d) Estudioan diharduten ekipo teknikoen koordinazio-prozedura ezarri du, programaren grabazioa edo zuzeneko emisioa abiarazteko.
- e) Programaren errealizazioan zehar kamera, soinu, argiztatze eta efektu berezietako ekipoei jakinarazi behar dizkieten estudioko errealizatorako laguntza-jarraibideak zehaztu ditu.
- f) Kameraren kokalekuak eta hauen mugimenduak egiaztatze sistema finkatu du, bai eta seten arteko mugimendu-denborak eta euren bideragarritasuna ere.

5. Telebistako programaren emisioan edo grabazioan, iturriak, trantsizioak, inkrustazioak eta efektuak nahasten ditu, eta, horretarako, irudiaren kalitatearen kontrola ahalbidetzen duten ekipoen ezaugarri funtzionalak eta operatiboak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dagozkien erregistro-tresnetara, eta kontroleko eta estudioko audio- eta bideo-monitorizazioko ekipoetara audio- eta bideo-seinale bidalketen jatorria zehaztu du.
- b) Kamerak kontrolatzeko unitateen abiapuntu-parametroak doitu ditu, eta irudi-monitorearen, uhin-formako monitorearen, bektoskopioaren eta rasterizadorearen laguntzaz haien seinaleak orekatu ditu, adierazpeneko eta estetikoaren irizpideak jarraituz.
- c) Nahasgailuko busetara bideo-sarrerak konfiguratu ditu, kamerak, bideo-lineak, kanpoko seinaleak, grafikoak eta beste hainbat elementu behar bezala ordenatuz.
- d) Nahasgailuaren irteerak eta programa-seinaleen, alde zuzeneko seinaleen eta seinale osagarrien helburuak konfiguratu ditu.
- e) Kroma, luminantzia edo DSK bidez, nahasgailuan iragaiteak, gortinak, efektu digitalak eta inkrustazioak doitu eta aurrez finkatu ditu, eta telebista-programan erabiliko dituzte.

6. Errealizazioan laguntzeko eragiketa teknikoak burutzen ditu, eta, horretarako, telebista-estudioaren errealizazio-kontrollean kokatutako ekipo osagarriak erabiltzen ditu, hauen ezaugarri funtzionalak eta operatiboak deskribatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Telebistako programa batean, errealizazio-kontrolera bideo- eta audio-seinaleak bidaltzen dituzten erredakzioko eta edizioko sistema birtualen, zerbitzarien eta ekipo osagarrien konfigurazio-aukerak zehazteko prozedura finkatu du.
- b) Telebista-programa baten errealizatorako multipantailan monitorizatzeko konfigurazio egokia zehaztu du.
- c) Programaren ezaugarriak eta errekerimenduak kontuan hartuz, grabagailu osagarrietarako eta pantailentarako aurre-hautagailuak, *switch*erak edo konmutazioko matritzetan bideo- eta audio-seinaleen bideratzeak aurretik finkatu ditu.
- d) Titulatuzailearen testuak biltegitatzeko aukerak eta aukera grafikoak konfiguratu ditu, seinalea behar bezala sartzen dela egiaztatuz.

- e) Titulazailan beharrezkoak diren identifikatzeko klaketak eta errotuluak sortu ditu, telebistako programa bat errealizatzeko. Horretarako, elementu horiek gordetzea kudeatu du eta bideo-nahasgailurako irteera kontrolatu du.
- f) Telebistako programa baten errealizazioan programaren seinalea eta beste seinale osagarri batzuk erregistratzeko magnetoskopiaok, disko gogorreko sistemak eta beste grabazio-ekipo batzuk erabili ditu, etiketen, parteen eta informatikako datuen bitartez, grabatutako artxiboak edo euskarriak identifikatu.
- g) Telebista-programa baten errealizazioan ekintzak grabatu ditu ondoren errepikatzen, disko gogorreko grabagailuak edo beste erregistro-sistema batzuk erabiliz.

c) Oinarrizko edukiak:

1. ERREALIZAZIORAKO LANEKO GIDOIA GARATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telebistako programetan erreproduzitzeko bideo-piezak erabiltzea: osorik eta zatiak. - Programen tipologiaren arabera, minutaje-datuak osatzea, bakoitzarentzako iraupena, sarrerako koleatzea, irteerako koleatzea, irteerako testu-oina, irteerako ekintza-oina eta bideoko azken koadroaren deskribapena xehatuz. - Gidoiaren ekintza-oinak eta testu-oinak identifikatzea eta deskribatzea. - Musika-ekitaldien minutajea, sarrerako zubiaren iraupena eta ahotsen sarrerako unea, instrumentuak, leloak eta musika-marrakiazkiak deskribatuz. - Multikamerako errealizazioan laneko gidoiarekin jardutea. - Telebistako errealizazioan grabazio-motak aplikatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Grabatuko dituzten seinaleak zehaztea: mastera, seinalea inkrustaziorik gabe eta kamera tolestuak edo masterizatuak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Musika-emanaldietan bideo-piezak, pasarteak, ahotsak eta instrumentuak identifikatzeko denborak eta minutajea kontrolatzea. - Grabazioa telebistako errealizazioan: <ul style="list-style-type: none"> • Masterra • Inkrustazio gabeko seinalea. • Kamera masterizatuak. - Multikamera-errealizazioan laneko gidoiaren diseinua eta funtzioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Burutu beharreko ekintzen ordena eta metodoa. - Autonomia izatea lanak egitean.

2. TELEBISTAKO PROGRAMETAN EMANALDI ARTISTIKOAK, ITURRIAK ETA BIDEO PIEZAK ERREPRODUZITZEKO ETA EMITITZEKO KONTROLA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontrolean errealizaziorako laguntzan bideoak aurreratzeko metodoak aplikatzea, eskaleta interpretatuz eta honako arlo hauei buruz informatuz: <ul style="list-style-type: none"> • bideo-zatien iraupena. • minutajearen oinak eta koleatzeak. • erreprodukzioan plano-aldaketak eta amaierako gelditzeak. - Musika-emanaldietan aurreratzeko metodoak aplikatzea, antzezpenean edo emanaldian honako gai hauei buruz informatuz: <ul style="list-style-type: none"> • sarrerako zubiaren iraupena.

	<ul style="list-style-type: none"> • ahotsen, instrumentuen, leloen eta musika-marrazkien sarrera, musika-minutajeen adierazitako datuetan oinarrituz. <ul style="list-style-type: none"> - Kirol-emanalditan grabatzeko eta errepikapenak erreproduzitzeko teknikak eta estrategiak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jatorriari eta bideo-piezen kopuruari buruzko kontrolean errealizaziorako laguntzan bideoak aurreratze metodoak. - Musika-emanaldien errealizazioan tresnak, ahotsak, elkarrizketak, ekintzak eta pasarteak aurreratze metodoak. - Fikzioak eta koreografiak grabatzen informazioak. - Kirol-emanalditan errepikapenen erreprodukzioa eta grabazioa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia izatea lanak egitean. - Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.

3. MULTIKAMERA BITARTEZ TELEBISTAKO PROGRAMEN ERREALIZAZIOA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errealizazio-kontrolean ordenak identifikatzea. - Multikamera-teknikarekin telebistako errealizazioan zuzeneko muntaia aplikatzea. - Iragaiteak gauzatzea. Adierazpeneko eta narrazioko erabilerak. - Seinalea inkrustatzeko lana. - Telebistako errealizazioan grafikoak prestatzea eta horiekin jardutea. - Telebistako errealizazioan soinu-elementuak planifikatzea eta erabiltzea. - Kamera-ekipoarekin, bideo-ekipoarekin eta soinu-ekipoarekin errealizazio-entsegua, ekintzak eta eskaerak garaiz aurreikusiz. - Telebistarako fikzio-programetan aktoreen zuzendaritza-entsegua, hainbat kamerarekin zuzeneko errealizazioko teknikak aplikatuz. - Telebista-programa egitea, grabatzeko edo emititzeko ateratzen diren irudi- eta soinu-iturriak sekuentzietan aukeratuz.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Generoen eta formatuen arabera telebistako errealizazioaren dinamika. - Kameraren mugimenduen eta enkoadraketaren adierazpen-funtzioak. - Telebistako errealizazioan zuzeneko muntaiarako aukera teknikoak. - Entsegu-teknikak, kameraren mugimenduekin, planoekin eta enkoadraketekin, bideo-piezekin eta audio-iturriekin. - Errealizazio-kontrolako komunikazioak. - Telebistako fikzio-programetan aktoreak zuzentzeko teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jasotzen dituen aginduak interpretatu eta burutzea. - Autonomia izatea lanak egitean. - Arreta ekipoak erabiltzean.

4. TELEBISTAREN PLATOKO JARDUEREN KOORDINAZIOA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telebistako estudioan ekipo teknikoaren eta artistikoen jarduerak koordinatzea. - Telebistako estudioan artisten kokapeneko eta mugimenduetako teknikak aplikatzea. - Maniobragarritasun-aurreikuspena eta kamera-posizioak gainbegiratzea.
----------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> - Telebistako fikziotan ikus-jarraitutasuna gainbegiratzea. - Telebistako estudioan soinu-efektuak, argi-efektuak eta efektu bereziak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ekipo teknikoak eta artistikoak telebistako estudioan. - Kamera-posizioak eta maniobragarritasuna estudioan. - Telebistako fikziotan ikus-jarraitutasuna. - Telebistako estudioan soinu-efektuak, argi-efektuak eta efektu bereziak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Giza taldeen koordinazioa jarduera zuzen gauzatzeko. - Sormen-mailan beste pertsona batzuek garatutako lana ezagutzeko interesa. - Jarduteko eraginkortasuna egin beharreko zereginak planifikatzean.

5. ITURRIAK, TRANTSIZIOAK, INKRUSTAZIOAK ETA EFEKTUAK NAHASTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Uhin-formako monitorearen, bektoskopiaoren eta rasterizadorearen bidez kameraren seinaleen monitorizatze teknika analizatzea eta ebaluatzea. - Kameraren bideo-seinaleen neurketa eta doikuntza teknika, kameraren kontrol-unitateen bitartez. - Irudiaren adierazpen-interpretazioa eta doikuntza. - Bideo-nahasgailuaren sarreraren konfigurazioa: kamerak, bideo-lineak, kanpoko seinaleak, grafikoak eta beste batzuk. - Bideoko nahasgailuaren irteerak eta programa-seinaleen, alde aurreko seinaleen eta seinale osagarrien helburuak konfiguratzea. - Bideoa nahasteko eragiketak: iragaiteak, gortinak, efektu digitalak, kroma bidezko inkrustazioak, luminantzia edo DSK. - Kudeaketa planifikatzea, alde aurreko doikuntzak eta errotuluak ezartzea telebistako errealizazioan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Nahasteko zenbait kameraren seinaleak orekatzeko eta doitzeko parametroak, irizpide teknikoak, adierazpenekoak eta estetikoak aplikatuz. - Seinaleak doitzeko neurketa-tresnak. - Bideo-nahasgailuaren funtzionamendu-multzoen diagrama: <ul style="list-style-type: none"> • Sektoreak eta funtzioak. • Errendimendua sarrerako eta irteerako lerrotan. • Funtzionamendu-pertsonalizazioa. - "Nahaste" kontzeptua. Aukera teknikoak eta artistikoak: <ul style="list-style-type: none"> • Erabateko eta zatiko iragaiteak. • Inkrustazioak. • Kromak. • Maskarak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - TB seinalea neurtzeko eta kontrolatzeko doikuntzak zorrotasunez eta zehaztasunez aplikatzea. - Ekipamendu teknikoen konfigurazioak ikertzeko interesa. - Autonomia amaierako produktua gauzatzeko.

6. ERREALIZAZIOA BABESTEKO ERAGIKETA TEKNIKO OSAGARRIAK EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errealizazio-kontrolerako bideo-zerbitzarien sistemak, disko gogorrek, urruneko kontrolak eta magnetoskopiaok konfiguratzeko eta doitzeko. - Patch Panel-en seinalea bideratzeko eragiketak. - Bideoa erreproduzitzeko sistemetan eta magnetoskopiotan bideo-piezak prestatzea eta aurkeztea. - Programa-seinaleak eta osagarriak grabatzeko eragiketa. - Grabatzeko eta erreproduzitzeko bideo-zerbitzarien sistemetatik eta disko gogorretatik hedatzea (eragiketak PLAY LISTekin). - Errealizazio-kontrola multipantaila-sistemetan monitorizatzea. - Errealizazio-kontrolan errotulazio-aplikazioekin eta tituladoreekin eragiketa.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errealizazio-kontrolerako bideo-zerbitzarien sistemak, disko gogorrek, urruneko kontrolak eta magnetoskopiaok konfiguratzeko multzoen diagramak. - Audio- eta bide-seinaleak bideratzea. - Programa-seinaleak eta osagarriak grabatzeko sistemak. - Kirol-emanaldietan grabatzeko eta errepikapenak erreproduzitzeko bideo-zerbitzarien sistemen eta disko gogorren eragiketa-teknikak. - Seinalea erregistratzeko/grabatzeko eta kontrolatzeko ekipoak, nahasgailuekin seinale tratamendua (audioa eta bideoa) eta iturriak (audioa eta bideoa) gehituko dituen sistema baten multzoen diagrama. Seinalea grabatzea. Programako seinaleak eta osagarriak erregistratzeko sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gailuen dokumentazio tekniko eta eskuliburuaren zehaztapenak kontsultatzea. - TBko kontrol-sistema bat osatzen duten ekipoak erabiltzeko arauak zorrotz eta zehatz aplikatzea. - Autonomia amaierako produktua gauzatzeko.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Telebistan errealizazio-prozesu osoa garatzen hasi aurretik, TB kontrolan zein platoan eskura dagoen ekipamendu teknikoarekin lotutako kontzeptuak eta prozedurak asimilatu behar dituzte. Modulu horren bitartez ikasleek trebetasun eraginkorrak eskuratuko dituztenez, alde aurretik ekipoen ezaugarri teknikoak eta telebistako platoan errealizaziorako sistema integratu gisa nola funtzionatzen duten ezagutu behar dute.

Horren haritik, **5. multzotik** hasia gomendatzen dute. Bertan, telebistako seinalea interpretatzen dute, ebaluatzen dute eta zuzentzen dute. Multzo honen bitartez grabatutako seinalearen gainean doikuntzako ezagutza teknikoak aplikatzen dituzte, seinalea beste sarrera batzuekin erlazionatuz bideo-nahasgailu batean. Era horretan, nahasketaren emaitzak homogenea izan beharko du, argiteriako eta krominantziako parametroetan. Era berean, trantsizioak eta efektuak eginez, bideo-seinaleak nahastean

trebetasun eraginkorrek lor daitezke, kontzeptuak nahasgailuen diagramen gainean aplikatzen ikasten dutelako.

Bideo-seinalearen azterketan sakontzen jarraitzen dute **6. multzoko** edukiekin. Bertan, telebistako errealizazio-sistema baten multzoen diagramek elkarrekin erlazionatzen dituzte iturriak (magnetoskopiaok, disko gogorak, bideo-zerbitzariak, tituladotak eta kamerak), seinalea tratatzeko ekipoak (audio- eta bideo-nahasgailuak), seinale-kontrolako ekipoak eta erregistrokoak edo grabaziokoak.

Ikasleek ekipoak erabiltzean maila egokia lortu ondoren, ikus-entzunezko proiektu baten errealizazioa burutzea gomendatzen dute. Platoan zuzenean egindako programa bat izan daiteke, disko gogorretatik eta magnetoskopioretatik hartutako kanpo-iturriekin (ENG ad.) lagunduta. Horren haritik, **3. multzoko** edukiak emango dituzte, multikamera-tekniken bitartez telebistako programen errealizazioari buruzkoak, genero eta formatu egokiak aukeratuz. Eduki horien artean ere, zuzeneko muntaketa-teknikak, iragaiteen adierazpen-erabilera eta soinu-baliabideen plangintza aztertuko dituzte.

Generoa eta formatua definituta, ondoren edo aldi berean, **1. multzoari** dagozkion multikamera-errealizazioan laneko gidioa diseina daiteke. Gidoi horretan minutajeari buruzko datuak adieraziko dituzte, programaren tipologiaren arabera. Ildo horretatik bertatik, **2. multzoan** dauden aurrerapen-metodoak aplikatuko dituzte, platoko emanaldiak, iturriak eta bideoko piezak erreproduzitzeko eta emititzeko kontrolari buruzkoak.

Azkenik, **4. multzoan** entseguak abian jartzeak ekipo teknikoaren eta artistikoen jarduera guztiak koordinatzea eragiten du. Bertan, efektuekin, argiekin eta kameraren kokapenarekin lotutako teknikak aplikatuz ikus-jarraitutasun egokia lortuko dute.

2) Alderdi metodologikoak

Alderdi metodologikoen artean daude entseguen eta grabazioen errealizazioaren funtzioak gauzatzen lagunduko duten edukiak betetzea, erregistroan zehar ekipo teknikoaren eta artistikoen koordinatzea, eta produktuaren errealizazio-prozesu osoa kontuan hartzea.

“**Telebistako errealizazio-prozesuak**” metodoaren jarduera teknikoak produktua prestatzera, ekipo teknikoaren eta artistikoen koordinatzeak, eta entseguen eta grabazioen errealizazioa bideratuko dira.

Ikus-entzunezko multzo guztietan modulua batez ere prozedurazkoa da. Horregatik, irakasleek azalpen teknikoak eta dagozkien frogaketa praktikak uztartuko dituzte, eta ikasle bakoitzaren ikaskuntza-prozesuaren bakarkako jarraipena egingo dute, eskuratutako trebetasunen aurrerapenak sistematikoki idatziz.

Ikasleek modulu honetan beharrezko balio-aniztasuna eskura dezaten, hainbat motatako telebistako programen errealizazio-teknikak landu beharko lirarteke, hala nola, publizitate-iragarkiak, bideo-klipak, dokumentalak, magazinak, informatiboak eta dramatikoak. Platoko kudeaketa, platoko errealizazioa, entseguen zuzendaritza eta telebistako programen gidioak osatzearekin lotuko dituzte teknika horiek.

Prozedurazko metodologia bereziki zorrotza izango da 5. eta 6. multzoak eskaintzen. Bertan, iturrien nahasteari eta errealizazioa babesteko eragiketari buruzko edukiak garatuko dituzte. Ikasleek ekipo hauek eurek bakarrik erabiltzeko gai izan behar dute, eta irakasleak banakako ebaluazioa egiteko metodologia aproposena erabakiko du.

Ezagutza teorikoak finkatzeko, ikasleek ariketa eta jarduera praktikoak garatu ahal izango dituzte, eta hauekin batera, eskuliburu teknikoen espezifikazioen analisiak, ekipoen artean konektatzeko eskemak, diagramak edo telebistako errealizazio-gelen konfigurazioari buruzko ikerketa-lanak ere garatu ahal izango dituzte.

Lan horiek burutzean, "egiten ikasi" prozedurazko metodoak eskuliburuak kontsultatzeko eta informazioa bilatzeko, aldizkari teknikoak kontsultatzeko, IKTak erabiltzeko, Internet erabiltzeko eta beste hainbat aukera ematen ditu, ikerketa bultzatuko duten eta sustatuko duten baliabide berri gisa. Ildo beretik, irakasleek problemak ebaztean (PBL) oinarritutako ikaskuntza planteatu dezakete.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Errealizazioaren aurreko kontrol-eragiketak burutzea:
 - Fase bakoitzean erabili beharreko piezak eta hauen minutajea zehaztea.
 - Multikamera-errealizazioan eskaleta babesteko laneko gidoia garatzea.
 - Aurrea hartzeko metodoak aplikatzea.
 - TBren kontrolean komunikazioa eta aginduak identifikatzea: Intercom.
 - Kontrol-gelaren eta platoaren arteko jarduera teknikoak koordinatzea.
- ✓ Ekipoen konfigurazioa, eta honako elementu hauen sarreren eta irteeren errendimendua erlazionatuko dituen konexio-sistema sortzea:
 - iturri-ekipoak:
 - Kamerak.
 - Magnetoskopia.
 - Zerbitzariak / Disko gogorrak.
 - seinalea kontrolatzeko ekipoak:
 - Uhin formako monitorea.
 - Bektoskopioa.
 - CCUak
 - tratamendu- eta nahaste-ekipoak:
 - Bideoa nahasteko mahaia.
 - Audioa nahasteko mahaia.
 - Anezkak.
 - Titulazailak eta grafismo-ekipoa.
 - grabatzeko tresneria:
 - REC magnetoskopia.
 - Disko gogorrean erregistratzea.
- ✓ Kamera-seinaleen eta beste hainbat bideo-iturriren oreka doitzeari honako elementu hauek erabiliz:
 - kamera kontrolatzeko unitateak (CCU).
 - irudi-monitoreak eta uhin formako monitorea (MFO).
 - bektoskopioa.
 - rasterizadorea.
- ✓ Telebistako programa baten errealizazioa:
 - Generoaren eta formatuaren arabera errealizazio-teknikak aplikatzea.
 - Zuzeneko muntaia-eragiketak, platoaren eta kontrolaren arteko jarduerak koordinatuz, erregidorearen irudiaren bitartez, eta honako hauek aplikatuz:
 - Programa eta aurretiko monitoreekin lan eginez, ikusmen edo adierazpeneko jarraitutasun-irizpideak.
 - kamerak aukeratzea.
 - Erabateko eta zatiko iragaitzak.
 - irudiak eta grafikoak inkrustatzea.

- soinua sartzea.
- mozketa eta nahasketa bidezko seinale-kommutazioak.
- kroma-seinaleak (Y eta C).
- maskarak.
- efektu bereziak, argienak eta soinuarenak.
- izenburuak eta errotulazioa.
- VTRetatik bideo-piezak ezartzea eta biltegitratze-diskoak.
- seinalea grabatzea.
- Grabatutako seinalearen ebaluazio teknika eta ikus-jarraitutasunaren balorazioa.

5. lanbide-modulua

IKUS ENTZUNEZKOEN MUNTAIAREN ETA POSTPRODUKZIOAREN PLANGINTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren plangintza
Kodea:	0906
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	132 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	11
Irakasleen espezialitatea:	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu-mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0947_3: Ikus-entzunezko produktu baten muntaketa- eta postprodukzio-prozesua planifikatzea. UC0948_3: Muntaketa eta postprodukzioarako beharrezko materialak eta efektuak prestatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 5.a / 6.a / 10.a / 11.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 18.a / 21.a / 22.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Dokumentazioaren analisisan oinarrituta, muntaia-proiektuaren komunikatzeko eta adierazpeneko ezaugarriak, eta ezaugarri teknikoak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, bere helburuak lortzeko muntaia-teknika aproposak baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ikus-entzunezko muntaiaren teoria eta teknika nagusiak definitzeko ezaugarriak bereizi ditu, euren ibilbide historikoa eta proiektu bat konpontzeko aplikazioa baloratuz.
- Ikus-entzunezko proiektu bat muntatzeko erabakiari jarraipena (narratiboa, pertzepziakoa, formala, mugimendukoa, ekintzako eta zuzendaritzakoa, beste hainbatetan artean) emateko teknikak zuzen edo oker aplikatzeko ondorioak baloratu ditu.

- c) Denboraren, espazioaren, ideia- edo edukiaren eta soinu-bandaren tratamenduen balorazioan oinarrituz, ikus-entzunezko produktu baten muntaian alternatiba posibleak justifikatu ditu.
- d) Ikus-entzunezko proiektuaren helburuak espezifikatu ditu, muntaia gauzatzeko prozedura tekniko gomendagarriak eta laneko formatua zehaztu.
- e) Ikus-entzunezko proiektua muntatzean gehitu behar dituzten barne- eta kanpo-erritmoko ezaugarri espezifikoak erabaki ditu, muntatze-fasean duten eragina baloratu.
- f) Filmaketa/grabazioko fasean egindako errekerimendu espezifikoak dituzten eta ikus-entzunezko produktu baten muntaian gehitu behar dituzten efektu teknikoak kopurua eta ezaugarriak zehaztu ditu.
- g) Muntaketa-prozesu espezifiko bat eskatzen duten hartuenera zerrenda egin du, burutu behar duten muntaketa-soluzioak aurreikusiz.
- h) Ikus-entzunezko proiektu bat muntatzeko komunikazioko eta adierazpeneko ezaugarriak, eta ezaugarri teknikoak baloratzeari buruzko erabaki guztiak bildu ditu, prozesuen katalogo edo dokumentu batean ikus-entzunezko proiektua muntatzeko.

2. Ikus-entzunezko programa bat muntatzeko eta postproduzitzeko prozesua planifikatu du, eta, horretarako, guztientzako diseinuaren baldintzak eta edizio-plataformen ezaugarriak proiektuaren helburu teknikoekin erlazionatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) ikus-entzunezko produktu baten muntaketaren errealizaziorako edizio-gelak eta postprodukzio-enpresak bete behar dituzten ezaugarriak definitu ditu, proiektuaren ezaugarrietan, zerbitzuetan eta produktuaren egituraren analisian oinarrituz.
- b) Ikus-entzunezko proiektu baten muntaia- eta postprodukzio-prozesua burutzeko erabilitako plataformak bete behar dituen ezaugarriak definitu ditu.
- c) Bideo- eta soinu-formatuak, hauek konprimitzea, multigenerazioko aukerak eta kontuan hartu behar diren beste parametro tekniko batzuk erabaki dituzte, ikus-entzunezko produktu bat muntatzeko prozesu teknikoan aplikatzeko.
- d) Argazki-irudiaren formatu digitalen eta analogikoen ezaugarri azpimarragarriak, euren bateragarritasuna eta guztientzako diseinuaren baldintzatzaileak baloratu ditu, ikus-entzunezko produktu baten muntaketa-prozesuan.
- e) Grafikoak sortzeko artxibo-formatuaren ezaugarri teknikoak eta euren bateragarritasunak definitu ditu, ikus-entzunezko produktu baten muntaketan aplikatzeko.
- f) Aplikazio aktiboen artean media artxiboak transferitzeko aukeratutako sistemaren ezaugarriak definitu, ditu ikus-entzunezko produktu baten muntaketaren errealizaziorako eta ikus-entzunezko beste plataforma batzuekin baliabideak trukatzeko.
- g) Fase guztietan ikus-entzunezko produktu bat muntatzeko eta postproduzitzeko prozesua gauzatzeko denbora eta jardueren diagrama egin du, dokumentu teknikoak landuz, eta denbora eta baliabideen optimizazioa kontuan hartuz.

3. Baliabideak edizio-sisteman sartzen ditu, eta, horretarako, materialen kalitate teknikoak eta antolaketa baloratzen ditu, eta ikus-entzunezko postprodukzioko eta muntatzeko proiektuan ezarritako kalitate-errekerimenduak betetzearekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Baliabideen euskarri fisikoen (magnetikoak, optikoak eta fotosentikorrek) kanpoko identifikazio zuzena, eta bertako edukia muntatuko duten programaren

dokumentazioan adierazitakoarekin bat ote datorren egiaztatu du: gidoia, eskaleta eta kamera-zatiak, besteak beste.

- b) Euskarri fisikoen edukia zuzen deskribatu eta minutatu du, aurrerago, ikus-entzunezko produktu baten muntaketan identifikatzeko.
- c) Trinkotzeak, pantailan denbora kodeak dituztela ikuste-kopiak, euskarri fisikoen formatuen kopiak eta/edo bihurketak gauzatu ditu, muntaketan aukeratutako postprodukzioko tresnekin eta baliabide teknikoekin bateragarri egiteko.
- d) Denbora-kodeen osotasuna egiaztatu du eta berriz idatzi du, jarraitutasunik ez, etetea edo sinkronizazio okerra gertatzen den kasuetan.
- e) Irudi, audio eta material grafiko guztien eskuragarritasuna eta kalitate teknikoa egiaztatu du, muntaketaren helburu den ikus-entzunezko proiektuaren dokumentazioan eskatutako kalitate-estandarrarekin bat datorrela ziurtatuz.
- f) Edizio linealeko edo ez-linealeko ekipo osoa konfiguratu, konexionatu eta doitu du, bai eta bere periferikoak ere, seinaleen fluxuaren ibilbideak kontrolatuz eta egiaztatze-eragiketak eginez.
- g) Bideo- eta audio-iturrietatik (analogikoak edo digitalak), edo formatu-bihurketa duten edo ez duten artxibo digitaletatik, edizio-sistema bati baliabideak kapturatu edo berriz kapturatu ditu.
- h) Ikusterakoan antzemandako gertakarien, akatsen eta berezitasunen zerrenda osatu du, eta horiek zuzentzeko behar diren neurriak hartu ditu.

4. Ikus-entzunezko produktu bat muntatzeko eta postproduzitzeko beharrezko materialetarako, grafismoko, soinuko, irudien tratamenduko eta efektuak sortzeko prozesuak gauzatu ditu, eta, horretarako, erabiliko dituzten plataformen, sistemen eta tresnen ezaugarri teknikoak eta operatiboak espezifikatu ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Efektuak, grafismoa eta errotulazioa sortzeko tresna eta plataforma egokienak aukeratu ditu, muntatze-fasean ikus-entzunezko proiektuaren errekerimendu teknikoekin bat etorrira.
- b) Proiektuan aplika daitezkeen irudi-, soinu-, grafismo- eta errotulazio-efektuen ereduak eta jarraibideak sortzeko prozesuak gauzatu ditu.
- c) Edizio-plataforman zuzenean lortu ezin diren eta kanpoko plataforma batean egin behar diren efektuak sortzeko erabili behar duen *software*ko tresna gehigarriaren ezaugarri teknikoak eta eraginkorrak definitu ditu.
- d) Irudi finkoa editatu du ikus-entzunezko proiektuaren muntaketan sartzeko.
- e) Aplikazio gehigarritan, ikus-entzunezko produktu bat muntatu aurreko efektuak, grafikoak eta errotulazioak sortu ditu.
- f) Hala eskatzen duten ikus-entzunezko produktuaren irudiak osatzeko behar dituzten maskarak sortu ditu.
- g) Trukatze-euskarri batean, kanpoko plataforma batera bidali behar dituzten materialak kapturatu eta erregistratu ditu.
- h) Txosten bat egin du, kanpoko plataforma batean egin behar dituzten prozesutan irudi-, soinu-, grafismo- eta errotulazio-efektuak sortzeko jarraibideak adieraziz.

5. Edukiaren arabera, irudi-, soinu- eta infografia-materialak ordenatzen ditu, eta, horretarako, ikus-entzunezko produktu baten muntaketa- eta postprodukzio-prozesuaren aurreragoko faseetan erabilera ahalbidetuko duten sailkapen-irizpideak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hartualdi bakoitzari dagozkion irudi- eta soinu-klipak sortu ditu, hauen edukia identifikatuz, eta muntaketa-gidoian aurreikusitako iraupenaren arabera, sarrerako eta irteerako puntuak esleituz.

- b) Klipak sekuentzien, hartualdi baliodunen eta iraupenaren arabera sailkatu eta taldekatu ditu, muntaketa-saioan klip horiek errazago aurkitzeko.
- c) Ikus-entzunezko produktuaren muntaketan eta postprodukzioan aplikatu behar duten efektuak osatzeko erabili behar dituzten irudi- eta audio-segmentuak, grafikoak eta maskarak, besteak beste, identifikatu, sailkatu eta aukeratu ditu.
- d) Sisteman sartutako hirugarrengoen materialak sailkatu eta identifikatu ditu muntaketan erabili ahal izateko, eskubideak bete behar dituztenean edo haien inguruan erabilera-adierazpena egin daitekeenean.
- e) Proiektutik soberan dauden eta baztertu dituzten materialak sailkatu, ordenatu eta artxibatu ditu, aurrerago material hori eskuratu ahal izateko.
- f) Aldibereko erregistroa egin duten iturrietatik jasotako gordinak sinkronizatu ditu.
- g) Audioko bikoizketa-saio bat egiteko beharrezko *takeak* prestatu, sailkatu eta euskarri egoki batean aurkeztu ditu, ikus-entzunezko produktua muntatu aurretik eskatzen badute prest izateko.

c) Oinarrizko edukiak:

1. MUNTAKETA PROIEKTUAREN EZAUGARRI KOMUNIKATIBOAK, ADIERAZPENENKOAK ETA TEKNIKOAK EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikatzeko helburuaren arabera proiektua planifikatzea honako hauek kontuan hartuz: <ul style="list-style-type: none"> • adierazpen-funtzioak. • barruko eta kanpoko erritmoak sortzea. • denboraren eta espazioaren tratamendua. • audio-banda. - Muntaiaren teknikak aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Muntaiaren sekuentziak. • Elkarrizketa-eszenak muntatzea. • Ekintza-eszenak muntatzea. • Dokumentalak muntatzea. • Suspensea antolatzea. • Muturreko zatiketako teknikak eta arauak haustea. • <i>Jump cuten</i> adierazpen-erabilera. - Muntatzeko efektu teknikoaren errealizazioa eta filmaketa-fasean duen ondorioa. - Jarraitutasuna (narratiboa, pertzepziozkoa, formala, mugimendukoa, ekintzakoa eta zuzendaritzakoa, besteak beste) eta barruko eta kanpoko erritmoa mantentzeko ebaluazioa.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Muntatzearen inguruko teoria azpimarragarriak definitzen dituzten ezaugarriak. - Ikus-entzunezko produktuaren adierazpeneko eta komunikazioko diseinua. - Muntaketaren adierazpeneko funtzioak: <ul style="list-style-type: none"> • Honako hauen tratamendua: <ul style="list-style-type: none"> ○ denbora (egokitzea, laburpena eta elipsia). ○ espazioa. ○ ideia edo edukia muntaketan. ○ audioa. • Soinu-banda muntaketan. - Muntaketan jarraitutasuna mantentzea: <ul style="list-style-type: none"> • Jarraitutasun narratiboa. • Ekintza-jarraitutasuna. • Mugimendu- eta zuzendaritza-jarraitutasuna. - Barneko eta kanpoko erritmoen ezaugarriak.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Diskurtso narratiboan audioaren eta bideoaren adierazpen-baliabideekiko interesa. - Baliabide narratibo gisa, muntaketan efektu teknikoen ekarpena ikertzea.
---------------------	---

2. IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTU BAT MUNTATZEKO ETA POSTPRODUZITZEKO PROZESUA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Postprodukzioko eta muntatzeko prozesuak planifikatzea: denboren eta jardueren diagramak. - Edizio ez-lineala prestatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Proiektua identifikatzea. • Media artxiboak sortzea: <i>binak</i> eta klipak. - Bideo- eta soinu-formatua aukeratzea eta konprimitzea: <ul style="list-style-type: none"> • Irudi- eta soinu-digitalizazioa, eta muntatzearekin eta postprodukzioarekin duen erlazioa. • Bideoak konprimitzeko codec-ak. - Artxibo grafikoaren eta argazki-artxiboaren formatua aukeratzea/egokitzea. - Irudi- eta soinu-multigenerazioko teknikak aplikatzea. - Aplikazioen artean media artxiboen transferentzia egitea: OMF eta MXF formatuak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Irudia eta soinua editatzeko eta postproduzitzeko plataformak eta sistemak. - Zinemarako, bideorako eta TBrako muntaketa- eta postprodukzio-gelen ezaugarriak. - Ikus-entzunezkoen muntaketan eta postprodukzioan esku hartzen duten faseak eta funtzio profesionalak. - Ikus-entzunezkoen muntaiarekin eta postprodukzioarekin lotuta, bideo, zinema, argazki eta soinuko formatuen ezaugarri teknikoak. - Bideo irudiaren definizioa: <ul style="list-style-type: none"> • Definizio estandarra (SD). • Goi-mailako definizioa (HD). - Formatuak bihurtzea. - "Edizio lineala" kontzeptua: magnetoskopioekin, bideo-zintaren gainean. - "Edizio ez-lineala" kontzeptua: ordenagailuarekin, disko gogorraren gainean. - Aplikazioen arteko artxiboen transferentzia. - Plataformen arteko artxiboen transferentzia.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Azaleratzen diren aplikazioak eta teknologiak ezagutzeko interesa. - Eskuliburu zehaztapenak ikustea eta ikus-entzunezko edizioaren dokumentazio teknikoak. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena.

3. BALIABIDEAK EDIZIO SISTEMAN SARTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarri fisikoen kanpoko identifikazioa. - Filmatutako eta jasotako materialaren minutajea egitea. - Edizio ez-linealetan eta linealetan CTrekin eragiketia. - Baliabideen euskarri fisikoen trinkotzeak eskuratzea. - Edizio linealeko eta ez-linealeko sistemen konfigurazioa,
-----------------------	---

	<p>konexionatzea eta eragiketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Iturri analogiko eta digitaletatik edizio-sistema batera baliabideak sartzeko eta kapturatzeko teknikak aplikatzea. - Irudien, audioaren eta material grafikoaren sekuentzien kalitate teknikoaren ebaluatzeko prozedurak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bideo- eta audio-iturriak: <ul style="list-style-type: none"> • Analogikoak edo digitalak. • Formatu-bihurketekin edo bihurketarik gabe. - Denbora-edo minutaje-kontrolerako erregistroak. - Bideo/audio materialen denbora-kodearen ezaugarriak. - Baliabideak sartzeko eta kapturatzeko prozedurak. - Irudien, audioaren eta material grafikoaren sekuentzien kalitate teknikoaren ebaluatzeko eta estandarreko prozedurak: <ul style="list-style-type: none"> • Bideo-parametroak eta -doikuntzak. • Audio-parametroak eta -doikuntzak. • Irudi finkoa eta material grafikoaren ebaluatzeko eta doitzeko. - Baliabideak biltzen dituzten materialen eraginak eta akatsak zuzentzeko teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Azaleratzen diren aplikazioak eta teknologiak ezagutzeko interesa. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Autonomia funtzioak betetzean.

4. EFEKTUAK SORTZEA, IRUDIAK TRATATzea, SOINUA, GRAFISMOA ETA BALIABIDEAK PRESTATzea	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko muntaketa-proiektutarako argazki-irudia editatzea eta tratatzea. - Postprodukzioan efektu bereziak sortzea. - Postprodukzioan ilustrazioa eta grafismoa sortzeko teknikak aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezko proiektutarako grafikoak prestatzea eta konfiguratzea. • Ikus-entzunezko muntaketarako irudi bektoriala tratatzea eta editatzea. • Ikus-entzunezko muntaketarako bit-mapako irudia tratatzea eta editatzea. • Tipografia prestatzea eta editatzea. - Postprodukzioan 2D eta 3D efektuak aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Informatiboen goiburuak. • Programen goiburuak. • Birsorkuntza animatuak. • Prozesuen simulazio animatua.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-fluxua efektuekin: <ul style="list-style-type: none"> • Irudi grabatuak. • Grafismoa. • Errotulazioa. • Audioa. - Efektu bereziak, 2D eta 3D animazioak, infografia, grafismoa eta errotulazioa sortzeko <i>software</i> tresnak eta plataformak. - Irudi-, soinu-, grafismo- eta errotulazio-efektuen ereduak eta jarraibideak sortzeko prozesuak. - <i>Software</i> moten arteko artxiboak trukatzeko prozesuak. - Plataformen arteko trukatzeko protokoloak.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Azalerraten diren aplikazioak eta teknologiak ezagutzeko interesa. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Autonomia funtzioak betetzean.
--------------	---

5. IRUDI ETA SOINU MATERIALEN ETA MATERIAL INFOGRAFIKOEN ANTOLAKUNTZA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabideen artxiboak kudeatzeko teknikak aplikatzea. - Muntatze-saioaren aurretik, informatikako aplikazioen bitartez edizio-proiektuko materialak biltzea eta antolatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Hartualdi bakoitzeko klipak sailkatzea, gidoiaren arabera iraupena, eta sarrera- eta irteera-puntuak identifikatuz. • Klipak sekuentzien arabera taldekatzea. • Errotulazioko, 2D eta 3D grafismoko, audioko eta irudiko segmentuak taldekatzea. - Efektuak lantzeko materialak aukeratzea eta erabiltzea. - Muntaketa aurreko audio-bikoizketarako <i>takeak</i> prestatzeko teknikak aplikatzea. - Soberan dagoen eta baztertu duten materiala antolatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Edizio-proiektuko materialen antolakuntzako aplikazio informatikoak. - Edizio-proiektuko materialen kudeaketa: <ul style="list-style-type: none"> • Filmatutako materialak sailkatzea eta identifikatzea. • Hirugarrenen materialak sailkatzea eta identifikatzea. - Edizio ez-linealeko prozesua: <ul style="list-style-type: none"> • Baliabideen artxiboaren kudeaketa: <i>binak eta klipak</i>. • Edukia identifikatzea, eta sarrerako eta irteerako puntuak esleitzea. • Mihizatze edo sartze bidez editatzea. • Bideo-edizioa eta audio-edizioa. - Soberan dauden eta baztertu dituzten materialak sailkatzeko eta antolatzeko prozedurak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Teknologia berriak aztertze gaitasuna. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Autonomia funtzioak betetzean.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziarioa

Modulu honen sekuentziarioa has daiteke adierazpen-lengoiaren alderdiak eta muntaketaren tekniken berezko komunikazio-ezaugarriak azalduz. Horregatik, aurkezpena egitean **1. multzoko** edukiak hartuko dituzte kontuan, espazio-denbora, elipsi, jarraitutasun-formula, barne-kanpo erritmoaren tratamenduari eta soinu-bandaren adierazpen-azterlanari dagokienez. Faktore horietan guztietan kontuan hartu behar dute ikus-entzunezko proiektuaren helburua, bere estiloa eta narrazioko tratamendua azalduz.

Ondoren, edizio-gelen diseinuari eta konfigurazioei buruzko **2. multzoko** edukiak garatu beharko lirateke. Eduki horien bitartez, ikus-entzunezko proiektu baten edizio eta postproduktio jakin bat planifikatzen lagunduko dute. Horren haritik, iturrien ezaugarriak, eta postproduktioan eta muntaketan dauden bideo, zinema, argazki eta soinuko

formatuak aztertuko lituzkete. Moduluak prozedurazko balio handia duenez, praktikak eta frogaketak burutzeko gomendatzen dute, hala nola, artxiboen artean transferentziak egitea, irudia eta soinua digitalizatzea, eta erabilitako codec-ak ebaluatzea.

Aipatutako praktikak **3. multzoko** prozeduren bidez sakonduko dituzte. Bertan, ikasleak gai izango dira baliabideak (analogikoak edo digitalak izan berdin da) edizio-sistema batean sartzeko lanak egiteko. Edizio-prozesuan minutaje-erregistroa, eta denboren kodearen ezaugarriak eta aplikazioak landuko dituzte.

Jarraian, sekuentziazioan irudiaren manipulazioari buruzko alderdiak hartuko dituzte kontuan. **4. multzoan** garatutako edukiak dira, eta argazki- eta bektore-irudien, soinuaren, grafismoaren, errotulazioaren eta 2D/3D animazioen sorreraren tratamenduan eragiten du. Eskatutako efektuak sortuko dituen *software* espezializatuarekin jardun behar dute ikasleek. Horretarako, eta behar izanez gero, kanpoko plataformak erabili beharko dituzte.

Azkenik, bideo, irudi, soinu eta infografiako landutako materialak **5. multzoan** aipatu bezala bilduko dituzte, muntatze-prozesuan erabiltzeko moduan antolatuz. Era berean, soberan dauden eta baztertu dituzten materialak kudeatzeko jarraibideak markatuko dituzte.

Multzoen ordena sekuentzial hau proiektu bat prestatzearekin (albiste bat editatzea, erreportaje bat edo dokumental bat egitea) bat etor daitekeela dirudi. Era horretan, ikasleek eduki-multzoetan adierazitako prozedurak aplikatu ahal izango dituzte.

2) Alderdi metodologikoak

Irudiak prozesatu, muntatu/editatu eta postproduzitzeko, irudiak, muntaketak eta postprodukzioa manipulatzeko prozesu teknikoak planifikatzeko funtzioak garatzen dituzte modulu honetan. Horregatik, irudi, bideo, soinu eta infografiako *software* landuz, edukien multzoei buruzko batez ere ikasketa praktikoak garatuko dituzte. Irakasleek prozedurazko eskolak garatuko dituzte, eta espero duten helburuen arabera edizio- eta postprodukzio- emaitzak lortzeko taldeen gainean jardungo dute. Ikasleek jardun-prozedura hauek hartuko dituzte eredu gisa, ikasketa mailakatu eta metodologikoki egituratua eskaintzeko.

Ikasleek eskuratutako trebetasunen inguruan irakasleek banakako jarraipena egingo dute, ikasleak emandako aurrerapausoez jabetzeko, eta ikus-entzunezko materialen produkzioarekin eta ekipoekin jarduteko eskatutako eskuduntza eskuratzen dutela egiaztatzeko.

Proiektuak taldetan lantzea ezinbestekoa da modulu honen prozedurazko izaera berresteko. Era horretan, publizitate-iragarkiak, bideoklipak dokumentalak eta dramatikoak bezalako hainbat motatako zinema, bideo, animazio, multimedia eta *new media* eta telebistako proiektuak muntatzeko plangintzako eta postprodukzio- teknika ikasleek landu dezaten erraztuko dute. Teknika horiek ondorengo jardueri lotuta daude: muntaketako eta postprodukzio- prozesuen plangintzaren irakaskuntza-ikaskuntza jardueri, muntaketarako eta postprodukzio- irudi- eta soinu- sekuentziak digitalizatzeari eta manipulatzeari, eta grafismoa, errotulazioa eta efektu bereziak sortzeko *software*ko tresnen eta plataformen eragiketari.

Aipatutako teknikak hobeto ezagutzeko, ikasleek, bakarka edo taldeka, ikerketa-lanak egingo dituzte, heziketa balioanizduna eskuratzeko. Informazioaren teknologia berriak, ezagutzak trukatzeko bideen adierazpena eta eguneratze teknologikoa bultzatuko dituzte. Egindako ikerketak gelan azaldu ahal izango dituzte.

Koordinazio didaktikoko zereginetan, **“Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren errealizazioa”** moduluko jarduerak prestatzea eta garatzea eta, zehazki, muntatzearen errealizatorako eta postprodukziorako materialak lantzea gomendatzen da modulu honetan.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Muntatzeko eta postprodukzioko plataforma konfiguratzeko:
 - Muntatze- eta postprodukzio-gelen ezaugarriak definitzea.
 - Audioko eta bideoa seinale-fluxua zirkulatuz, edizio linealeko edo ez-linealeko ekipoaren konfigurazioa eta konexioak egiaztatzea.
 - Muntatzean eta postprodukzioan esku hartzen duten faseen planifikazioa: denboren eta jardueren diagramak.
- ✓ Plataformaren eta formatuaren definizioa:
 - Proiekturako audioko, bideoa, zinemako eta irudiko formatuen bateragarritasuna baloratzea. Beste plataforma batzuekin baliabideak transferitzea eta trukitzea. Homogeneizazioa.
 - Codec-ak aukeratzea eta ebaluatzea.
 - Irudia eta soinua digitalizatzeko teknikak ebaluatzea.
- ✓ Muntatze-faserako kaptura kontrolatzea eta sartzea:
 - Bideoa eta audioa digitalizatzea, iturri analogikotatik edo digitaletatik.
 - Muntatze-faserako hartualdien minutajea.
 - Trinkotzeak, pantailan denbora kodeak dituztela ikuste-kopiak, euskarri fisikoen formatuen kopiak eta/edo bihurtak gauzatzea, postprodukzioko tresnekin eta baliabide teknikoekin bateragarri egiteko.
- ✓ Kanpoan ikus-entzunezko material gehigarria sortzea:
 - Irudiko, soinuko, grafismoko eta errotulazioko efektuak sortzeko kanpoko plataformetan jarraibideen txostena egitea.
 - Honako elementu hauek sortzea, editatzea eta tratatzea:
 - Grafismoa eta ilustrazioa.
 - Irudi bektoriala eta bit-mapa.
 - Errotulazioa.
 - 2Dko eta 3Dko animazioak.
 - Soinua eta audio-efektuak.
 - Plataformen arteko trukitze-protokoloak aplikatzea.
 - Proiektuko materialak eta baztertutako materialak antolatzeke informatikako tresnak aplikatzea.

6. lanbide-modulua ⁶

IKUS ENTZUNEZKOEN MUNTAIAREN ETA POSTPRODUKZIOAREN ERREALIZAZIOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren errealizazioa
Kodea:	0907
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	200 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu-mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC0949_3: Muntaketa egitea, hainbat lekutako materialak eta postprodukzioko tresnak erabiliz. UC0950_3: Muntaketako eta postprodukzioko amaierako prozesuak koordinatzea amaierako ikus-entzunezko produktua sortu arte.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 6.a / 7.a / 10.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 18.a / 22.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Edizioko eta postprodukzioko ekipamendua konfiguratzeko du eta gordetzen du, eta, horretarako, kalitatezko estandar teknikoaren ezaugarriak eta ekipoen aukera eraginkorrak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Besteak beste, denbora-kodea, sarrerako eta irteerako fluxuen aukeraketa, gailuak urrutitik erabiltzea eta sinkronizazio-doikuntzak bezalako parametrotan edizio-sistemaren osagaiak konfiguratu ditu.
- Muntatzeko sistema osoaren eraginkortasuna egiaztatu du, periferikoak, seinaleen fluxua, biltegiatze-sistema eta, hala badagokio, grabatzekoa frogatuz.

- c) Fabrikatzaileak adierazitako ekipoak zaintzeko ohiturak jarraitu ditu, eta informatikako biltegiratze-unitateak aztertu eta optimizatu ditu.
- d) Bideoko eta audioko seinaleen zirkulazioan eteteak diagnostikatu eta zuzendu ditu, bai eta ekipoen arteko sinkronia-galerako, urrutiko kontroleko eta komunikazioko arazoak ere.
- e) Proiektu bat amaitu ondoren biltegiratze-unitateetan espazioa libratu du, eta euskarri fisikoak birziklatu ditu aurrerago aprobetxatzeko.

2. Ikus-entzunezko produktuak muntatzen/postproduzitzen ditu, eta, horretarako, muntatzeko teknikak, kodeak eta teoriak aplikatzen ditu, eta proiektuaren helburuen eta lortutako emaitzaren arteko lotura ebaluatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Muntatze konplexuak egin ditu, bideoko eta audioko hainbat seinale barne hartuz, eta proiektuaren narrazio-nahikotasunarekin bat etorriko diren abiadura aldakorreko eta ikusteko efektuak, eta iragaiteak aplikatuz.
- b) Muntatze- eta postproduktzio-sistemak trebetasunez erabili ditu, bai eta seinale-prozesuko eta bideoko erregistro- eta erreproduktzio-ekipoak ere.
- c) Inguruneen itxurazko erlazio, ebazpen eta artxiboko formatuak homogeneizatu ditu.
- d) Irudiak eta hauei dagokien audioa sinkronizatu ditu, klaketen irudi- eta soinu-marketan edo beste edozein erreferentzian oinarrituz.
- e) Programa bateko soinu-banda osatu du, audioko banda ugari (elkarrizketak, soinu-efektuak, musikak eta esapideak) erantsiz, mailak doitu, eta iragazkiak eta efektuak aplikatuz.
- f) Edizio batean denboren kodeko offset bat zuzen aplikatu du, eta soinu-bandaren kalitate teknikoa eta adierazpenekoa egiaztatu ditu, bai eta irudiarekin bat datorrela ere. Gainera, akatsak adierazi ditu, hauek dauden kasuetan.
- g) Egindako muntaketaren eta filmatze/grabazioaren dokumentazioaren arteko lotura egiaztatu du, lehen muntaketako akatsak eta gabeziak antzemanen, eta haiek konpontzeko beharrezko ekintzak proposatuz.
- h) Muntaiaren emaitzak baloratu ditu, beste hainbat parametroren artean, erritmoa, adierazpenak argi egitea, ikus-jarraitutasuna eta narrazioaren arintasuna kontuan hartuz. Halaber, aldatzeko proposamen arazoituak egin ditu.

3. Muntatze-prozesuan irudi-efektuak sortzen eta/edo sartzten ditu, eta, horretarako, tresna eta teknologia estandarizatuen ezaugarri funtzionalak eta operatiboak baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezko produktzio bat muntatzeko prozesuan egingo dituen eta/edo sartuko dituen efektuak sortzeko baliabide eta prozedura egokiak aukeratu ditu.
- b) Multigeruza-konposizio bat egin du, kolorea zuzentzeko doikuntzak, irudiaren mugimendu-efektuak edo abiadura-aldaketa (gelditua, moteldua eta azkartua), aurpegiak ezkutetzea/lausotzea, eta egonkortzeko eta jarraipeneko efektuen eta keyen aplikazioak, besteak beste, konbinatuz.
- c) Efektu bat egiteko beharrezko keyak zehaztu eta sortu ditu, eta kasu bakoitzerako mota (argiak, krominantzia, matte eta diferentzia bidez) eta prozesu egokiena aukeratu ditu.
- d) Muntaiaren kanpoko plataforma bateko efektuak sartu ditu. Halaber, kanpoko errotulazioko eta grafismoko plataformak edo karaktereak osatzeko ekipoen errotulazioa eta grafikoak ere sartu ditu.
- e) Irudiaren ikus-kalitatea doitu eta berdindu du, aldatu behar dituzten parametroak eta irudiaren prozesatze-maila zehaztuz, bertako tresnak erabiliz edo kanpotik hartutako ekipoekin eta *software*arekin.

- f) Efektuak doitzeko parametroak artxibatu ditu, aurrerago parametro horiek berreskuratu eta berriz aplikatu ahal izateko.
- g) Trukatze materialak eta datuak zuzen inportatu eta osatu direla egiaztatu du.
- h) Informazioa trukatzeko protokolo estandarizatutan oinarritutako dokumentuak landu ditu, beste plataforma batzuen lana errazteko.

4. Kanpoko enprekin eta beste plataformekin trukatzera zuzendutako materialak prestatzen ditu, eta, horretarako, ikus-entzunezko produktuak eta dokumentuak trukatzeko estandarren eta protokolo normalizatuen ezaugarriak ezagutzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Muntaiaren esku hartzen duten dokumentuak eta baliabideak aurkitzeko zerrendak osatu ditu, muntaiaren edukia, biltegiatze-euskarria eta kokapena adieraziz.
- b) Trukatze beharrezko baliabide eta dokumentu guztiak sailkatu, etiketatu eta biltegiatu ditu.
- c) Baliabideak trukatzeko euskarrien erabilgarritasuna egiaztatu du, eta beharrezko formatu-bihurketak egin ditu.
- d) Beste prozesu batzuen artean, errotulazioa, infografia, animazioak, irudi-efektuak sortzea, materialak eskaneatzeaz arduratzen diren kanpoko enpresen laborategietarako errekerimendu teknikoaren txostenak eta laneko ordenak idatzi ditu.
- e) Ikus-kopiak eta masterra lortzeko, erakusketa/emisioko kopiak inprimatzeko, euskarri fotokimikoak bikoizteko, negatibo-ebaketa eta baliabideak osatzeko kanpoko enpresen laborategietarako errekerimendu teknikoaren txostenak eta lan-aginduak idatzi ditu.
- f) Agindu bakoitzaren errekerimendu espezifikoa argi eta zehatz adierazi ditu.
- g) Txostenak eta lan-aginduak idaztean, ikus-entzunezko produktuak eta dokumentuak trukatzeko protokolo normalizatuak aplikatu ditu.
- h) Egindako lan-aginduekin, kanpoko hornitzaileek prozesatutako materialak (soinubandak eta laborategiko materialak, besteak beste) alderatzeko, eta emaitzak agindu horietara egokitzen ote diren baloratzeko sistema finkatu du.

5. Ikus-entzunezko produktuaren postprodukzioan akabera prozesuak gauzatzen ditu, eta, horretarako, kalitate-araudiak erregistroko, banaketako eta erakusteko formatutara aplikatzeko ezaugarriak aitortzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bereizmen estandarreko eta bereizmen handiko prozesu lineal eta ez-lineal analogiko eta digitaletan postprodukzioaren lan-fluxuak zehaztu ditu, eta azken muntaiaren erabilitako euskarrien eta formatuen ezaugarri teknikoak eta zerbitzuak baloratu ditu.
- b) Hainbat modutan (zinta, telezine, laborategi eta informatikako artxiboak, besteak beste) jasotako jatorrizko elementutan oinarrituta, muntaiaren errepikatzea ziurtatzen duten dokumentuak, artxiboak eta zerrendak osatu eta interpretatu ditu.
- c) Amaierako muntaiaren, kolorea eta etalonajea zuzentzeko prozesu teknikoak aplikatu ditu.
- d) *Offline* edizioan eskuratutako informazioan oinarrituta, euskarri fotosentsibletan, elektronikotan edo informatikotan jatorrizko baliabideekin ikus-entzunezko produktu bat osatu du, eta kanpoko plataformetan sortutako efektuak eta gainerako materialak integratu ditu.
- e) Kanpoko materialak amaierako muntaiaren integrazioa egiaztatzeko sistema ezarri du, bai eta soinu-pisten sinkronizazioa eta edukia ere.
- f) Pisten antolaketari, erreferentziei eta maileri, bideoa trukatzeko formatuei, erakusketa/emisiorako erabiltzean soinu-sistemen ezaugarriak eta

zinematografiako estandar-kopietan soinu-pisten antolaketari buruz dauden araudi nagusien ezaugarriak zehaztu ditu.

- g) Erakusketako eta zinematografiako kopiak argitaratzeko sistemak zehaztu ditu.
- h) Emisiorako zinta bat sortu du, PPD (hedatzeko edo emititzeko prestatua) arau zehatzak jarraituz, eta audio-pisten eskatutako banaketa eta klaketak gehituz.

6. Ikus-entzunezko produktuaren masterraren ezaugarriak erakustaldian erabilitako formatuetara eta teknologietara egokitzen ditu, eta, horretarako, obra ustiatzeko eskubideak babeseke dauden soluzio teknikoak baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ikus-entzunezko produktuak ustiatzeko leihoen ezaugarriak bereizi ditu, bakoitzaren berezko entrega-formatuak zehaztuz.
- b) Ikus-entzunezko produktu bati aplikatu dizkio parametro teknikoak eta trukatzeko protokoloak, DVD edo beste erakusketa-sistema batzuk masterizatzeko, interneten edukiak deskargatzeko, telebista-operadoreentzako emisio-kopiak egiteko, euskarri fotokimikoan eta elektronikoan zine-emanaldietarako kopiak eta segurtasuneko kopiak, eta bestelako kopiak egiteko
- c) Produktuaren ustiapen-ikuspuntuen arabera, masterizatzeko formatu egokia aukeratu du, eta banaketa-kanal bakoitzerako amaierako produkzioko materialak eta prozesuak zehaztu ditu.
- d) Formatu fotosentikorrean, zein elektronikoan eta informatikoan emanaldiko/emisioko kopietarako eta masterrarako dokumentazio teknikoa osatu du.
- e) DVDn edo beste formatu batean egiletza-prozesua burutu du, test, ebaluazio, sustapen eta beste helburu batzuetarako kopiak eskuratuz.
- f) Ustiapen-eskubideak babesteko sistema estandarizatu bat ikus-entzunezko produktu bati aplikatzea baloratu du, produktu hori komertzializatzeko erabilitako teknologian espezifikazio teknikoak kontuan hartuz.
- g) Muntaiaren erabilitako soinu, irudi eta infografiako materialak prestatu, sailkatu eta artxibatu ditu, bai eta ikus-entzunezko proiektu baten tarteko eta amaierako materialak, eta muntaketa-proiektua osatzen duten datuak ere. Era horretan, aurrerago egingo dituzten jarraipenak, eguneratzeak eta egokitzapenak erraztuko ditu.
- h) Proiektuaren datuak, metadatuak eta baliabideak artxibatuzko dokumentazioa osatu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. EDIZIOKO ETA POSTPRODUKZIOKO EKIPAMENDUA KONFIGURATZEA ETA MANTENTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Edizioko/postprodukzioko gelen konfigurazioak egitea. Baliabideak optimizatzea. - Zinemarako, bideorako eta telebistarako postprodukzioko eta irudiak jasotzeko gelak konfiguratzeko. Baliabideak optimizatzea. - Muntaiako eta postprodukzioko ekipoen mantentze-lanak egitea: <ul style="list-style-type: none"> • Akatsak eta matxurak ekipoen artean: atzemateko metodoak eta zuzentzeko ekintzak. • Audioko eta bideoaren seinalearen zirkulazioan zehar eta ekipoen artean komunikazio eteteak antzematea. • Mantentze prebentiboko eragiketak. Proiektu bat amaitu ondoren, diskoan espazioa hustea eta egokitzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Edizioko/postprodukzioko geletako ekipoen artean erlazio funtzionalak. Sistemen konfigurazio bereziak. - Zinemarako, bideorako eta telebistarako audioa jasotzeko eta

	<p>postproduzitzeko geletako ekipoen arteko erlazio funtzionalak. Sistemen konfigurazio bereziak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Edizioko eta postprodukzioako equipoak mantentzeko prebentzioko eta zuzentzeko ekintza bereziak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Azalera diren aplikazioak eta teknologiak ezagutzeko interesa. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Autonomia funtzioak betetzean.

2. IKUS ENTZUNEZKO PRODUKTUEN MUNTAIAREN ETA POSTPRODUKZIOAREN ERREALIZAZIOA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Edizio-parametroen konfigurazioa: <i>settingak</i>. - Ikus-entzunezko muntaketa-eragiketak egitea: <ul style="list-style-type: none"> • Edizio ez-lineala. • Multikamera-edizioa denboren kodearekin grabatutako materialarekin. • Edizio birtuala, ausazko sarrera gordetzeko euskarritan aldi bereko erreproduzitzeko eta grabatzeko gailuekin. - Muntatzeko prozesu berezi baten faseak gauzatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Baliabideak biltzea. • Formatuak homogeneousatzea eta itxura-erlazioa. • Muntaiaren denbora-lerroan. • Soinu-banda eraikitzea. Audio-banda ugari eranstea (elkarrizketak, soinu-efektuak, musikak eta lokuzioak), iragazkiak eta efektuak aplikatuz. - Programak gauzatzean ikus-entzunezko muntaiaren teknikak eta teoriak aplikatzea. - Editatutako lana aztertzea eta ebaluatzea, erritmoa, adierazpen-argitasuna, ikus-jarraitutasuna eta narrazio-jarraitutasuna kontuan hartuz.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko muntaiaren sistemak. Edizio lineala / ez-lineala. Txertatzeak eta mihizatzeak. Edizio digitaleko pistetan bideo-klipak editatzeko baliabide teknikoak (izurrak, lekualdatzeak, ahoa...) - Bideo-formatuak. Itxura-erlazioen eta formatuen arteko diferentziak. Kalitateak eta konpresioak. Homogeneousazioa. Bihurgailuak. - Artxiboak inportatzeko eta esportatzeko prozesuak. - Muntaiaren ebaluatzearen teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Teknologia berriak aztertzearen gaitasuna. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Autonomia funtzioak betetzean.

3. MUNTAIAREN ETA POSTPRODUKZIOAREN PROZESUAN IRUDI EFETUAK SORTzea ETA SARTzea	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Multigeruzako konposizioaren teknikak eta prozedurak aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren antolakuntza eta lan-fluxua. • Geruzak kudeatzea. • Maskarak sortzea. • Animazioa. Interpolazioa. Ibilbideak. - Efektuak ezartzeko prozedurak aplikatzea:

	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkortzea eta mantsotzea. • Fotogramak geldiaraztea. • Atzerako abiadura. • Irudia handitzea eta murriztea. • Key-efektuak. Gainjartzea eta inkrustazioa. • Irudi-efektuak eta kolorea zuzentzea. • Bideoko irudian ukituak egitea. • Jarraipen-efektutarako grabazioa planifikatzea. <ul style="list-style-type: none"> - Errotulazioa eta grafikoak sortzeko teknikak aplikatzea. - Irudian kontrastea eta kolorea berdintzea. - Irudi-dominanteak zuzentzea/sortzea: <ul style="list-style-type: none"> • Luminantzia-efektuak. • Tonu-mailak definitzea. • RGB efektuak. • Tonu-mailen gainean, hiru noranzko kolore-doikuntzak. • Zuzenketa <i>software</i> espezifiko bitartez.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bideo-efektuak sortzeko gailuak. - Irudia postproduzitzeko plataformak eta sistemak. - Irudi finkoa, grafikoak eta errotulazioa sortzeko baliabideak. - Irudi, bideo, soinu eta animazioko efektuak eta tratamendua sortzeko <i>software</i>aren ezaugarriak. - Irudiaren ikus-kalitatea, adierazpeneko argi- eta kolore-irizpideak kontuan hartuz: <ul style="list-style-type: none"> • Kolore-nagusiak. • Etalonajea. - Denbora-efektuen edizioa. - Efektuak errendatzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Teknologia berriak aztertze gaitasuna. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Autonomia funtzioak betetzean.

4. KANPOKO ENPRESEKIN ETA BESTE PLATAFORMEKIN TRUKATZEKO MATERIALAK PRESTATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Materiala trukatzeko sistemak eta protokoloak aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Dokumentu grafikoak eta infografia. • 2D eta 3Dko animazioak. • Material fotosentikorak trukatzea. • Nazioarteko trukatzek: audioa, azpitoluak eta errotulazioak. - Plataformen artean trukatzeko formatuak eta euskarriak prestatzea. - Soinu-postprodukziorako trukatzeko formatuak eta euskarriak prestatzea. - Deskonposizioa. - Baliabideak finkatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kanpoko enpresekin eta beste plataformekin trukatzeko sortutako materialen dokumentazioa. - Baliabideak sailkatzeko, identifikatzeko eta gordetzeko teknikak. - Trukatze formatuak eta euskarriak: <ul style="list-style-type: none"> • Plataformen artean. • Soinu-postprodukziorako.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Teknologia berriak aztertze gaitasuna.

	<ul style="list-style-type: none"> - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Autonomia funtzioak betetzean.
--	---

5. IKUS ENTZUNEZKO PRODUKTUAREN POSTPRODUKZIOA AKABATZEKO PROZESUAK	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Soinuztatzeko eta muntatzeko amaierako prozesuak aztertzea eta aplikatzea. - Negatiboa mozteko eta osatzeko eragiketak analizatzea. - Produktuaren kalitate-kontrolako teknikak identifikatzea eta aplikatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Euskarri bideografikoetan eta zinematografikoetan soinu-pistak banatzea. • Nazioarteko zerrenda. • PPD (hedatzeko edo emititzeko prestatua).
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Produktuaren akaberan laneko fluxuak, prozedurak eta teknikak. - <i>Offline</i> edizioan laneko fluxuak eta teknikak: negatiboa moztea eta osatzea. - Postprodukzioaren amaierako balantzea: balorazio-irizpideak. - Kalitate-kontrola muntaian, edizioan eta postprodukzioan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Produktuaren kalitatearekiko interesa. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Teknologia berriak aztertze gaitasuna.

6. MASTERRAREN EZAUGARRIAK ERABILITAKO TEKNOLOGIETARA ETA FORMATUETARA EGOKITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ustiapen-kopiak eta masterra lantzea. - Blu-ray eta DVD egiletza-sistema erabiliz masterra sortzea. - Bideo-bikoizketa eta segurtasuneko kopiak sortzea. - Muntatzeko/postprodukzioko prozesuan sortutako datuak, dokumentuak eta baliabideak sailkatzea eta artxibatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko produktuen ustiapen-leihoen baldintza teknikoak. - Telebista-operadoreen bitartez ikus-entzunezko produktuak hedatzeko sistemak. - Banaketa komertziala: euskarri fisikodun kopiak eta edukiak deskargatzea. - Zinema-aretotan proiektatzeko formatuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Teknologia berriak aztertze gaitasuna. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Autonomia funtzioak betetzean.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziarioa

Modulu honen ikuspegi orokorra batez ere prozedurazkoa da eta amaierako muntaia burutzeko materialak lantzen dituen **“Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren plangintza”** moduluarekin koordina daiteke.

Amaierako produktuaren ezaugarrien arabera, edizioko eta postprodukzioko ekipoaren konfigurazioa zehaztuko dute. Horregatik, modulu hau **1. multzoa** garatuz hastea gomendatzen dute. Multzo honetan edizio-sistema bateko ekipoen osagaien arteko erlazio funtzionalak eta euren konfigurazio posibleak ezartzen dituzte, eta, aldi berean, eskura dituzten baliabideak hobetzeko aukera ematen dute. Modulua praktikoa denez, ikasleak sistema osoko eragiketak egiaztatu behar ditu, grabatu aurretik audio-seinaleko fluxuak (mikrofono-seinalearen erregistroa, magnetoskopioren edo kanpoko beste iturri baten soinua), eta bideoari buruzko kontrolak zuzenak direla aztertuz. Hasierako multzo honetatik, mantentzeko prebentzioko eta zuzentzeko ekintzei buruzko alderdietan azpimarratzea gomendatzen dute.

2. eta 3. multzoak txandakatu daitezke, irudiak muntatzeko eta editatzeko berezko edukiak baitituzte. Biak postprodukzio batean osatzen dira. Ordena didaktikoagoa jarraituz, **2. multzotik** has daiteke. Multzo honetan ohiko muntatze-prozesua adierazten da: baliabideak biltzea, formatuak homogeneousatzea eta itxurarekin duen erlazioa, eta muntaia denboren lerroan, audio osagarria sartuz. *Offline* eta *online* edizioen helburua azalduko duten ariketa praktikoekin eta denboren kodearekin muntatzeko teknikan sakontzea gomendatzen dute. Geruzen arabera jardungo duen interfaze batean sakonduz, ondoren **3. multzoko** edukiak lantzeko aukera emango du. Bertan ikasleek elementu hauekin lan egingo dute: maskarak, animaziorako interpolazioak, ibilbideen edizioa, gainjartzeak eta inkrustazioak, *keyak*, kolore-zuzenketak, eta edizioko *software* bertatik landutako grafikoak eta tituluak sortzea.

Lan-plataformatik kanpo landutako materiala eransteari buruzko edukiak **4. multzoan** garatuko dituzte. Bertan, kanpoko laborategitarako txosten teknikoak aztertuko dituzte, errotulazio, infografia, animazio eta irudiko efektuak sortzeko enpresei zuzendutako arauak dituzten ereduak. Eduki hauetan materialen fitxa teknikoak aztertuko dituzte, eta hauek ere beste plataformekin trukatzeko erraztuko dute.

Barruko eta/edo kanpoko material guztiak bilduta, **5. multzoko** edukiak gauzatuko dituzte. Ikus-entzunezko produktuaren konformazioa egingo du, *offline* ediziotik eskuratutako informazioan oinarrituz, eta barruan eta/edo kanpoko plataformetan sortutako materialak eta efektuak barne hartuz.

Amaitzeko, **6. multzoan** esportatzeko aukerak aztertuko dituzte, irteerako codec-enak eta irudia jasotzearenak ez diren esportazio-formatuak. Prozedura-mailan, DVD / Blu-ray egiletza-programa batek produzitutako master bat osatzea gomendatzen dute.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan mugimenduan dagoen irudi-proiektua editatzeko eta postproduzitzeko funtzioak, eta postprodukzioko eta muntatzeko amaierako prozesuen errealizaziorako funtzioak lantzen dituzte. Ondorioz, modulua garatzean irakaskuntza praktikoak bultzatuko dituzte, mugimenduan dauden irudien postprodukzioko eta edizioko prozesuen berezko *softwarea* eta ekipoak landuz.

Irakasleen papera erabakigarria da eskola emateko metodoan: Ikus-entzunezko produktuaren edizioan eta postprodukzioan aurkitzen dituzten ohiko prozedurak eta jarraibideak ezarri beharko ditu. Prozedura baten fase bakoitzaren teoriarekin batera bere adierazpen praktikoa edo azalpenekoa egingo dute.

Planteatutako problemen aurrean jarduteko autonomia eta “egiten jakitea” ikasleei eskatzen zaien moduan, irakasleek ikasle bakoitzaren banakako jarraipena egingo dute, euren gaitasunean eman dituzten aurrerapausoak ebaluatzeko. Helburu horrekin, banakako edo taldeko proiektuak gauzatu dituzte. Proiektu horien bitartez muntatzeko eta postprodukzioko jarduerak sustatu dituzte, sistema eta plataforma diferenteak, akabera-prozesuak eta masterizazioa erabiliz.

Modulu hau **“Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren plangintza”** moduluarekin lotuta dagoenez, zinemako, bideo, animazioko, multimediatiko eta *new media* eta telebistako proiektu komunak garatu ahal izango dituzte, hala nola, publizitate-iragarkiak, bideoklipak, animazioak, multimedia, dokumentalak eta dramatikoak. Postprodukzioko tresnak eta hainbat jatorriko materialak bateratzeko helburua izango du, akabera-prozesua koordinatuz.

“Egiten ikasiz” prozedurazko metodoa bultzatuz, lan hauek egitean informazio espezializatua bilatzea eta teknologia aurreratuak (IKTak, Internet, eta abar) erabiltzea bultzatuko du, kontsultako eta aztertze iturri eta baliabide berri gisa. Metodologia deduktiboa aplikatzeko bidetik, irakasleek problemak ebaztean (PBL) oinarritutako ikaskuntza planteatu dezakete.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Postprodukzioko eta edizio sistema bat konfiguratzeko honako hiru egiaztatuak:
 - Ekipo analogikoen edo digitalen sarrerak eta irteerak aukeratzeko:
 - Kanpoko ediziotan honako hiru arteko konexioak: magnetoskopia erreproduktoreak, audio eta bideo nahaste-mahaiak, mahai editorea, magnetoskopia grabatzailea eta ekipo osagarriak.
 - Disko gogorrean ediziotan konektatzea: kamera edo magnetoskopia iturri gisa, ordenagailuan irudia jasotzeko softwarea konfiguratzeko, DVD edo Blue Ray-ra irteera.
 - Konexioak edizio mistotan: magnetoskopia erreproduktorea, ordenagailua, magnetoskopia grabatzailea.
 - komunikazioa, seinaleen fluxua eta ekipoen arteko sinkronizazioa.
 - Denboren kodearekin edizioaren eraginkortasuna.
 - edizio-ekipoen konfiguraziotan mantentzeko ekintza prebentiboak eta zuzentzaileak.
- ✓ Ikus-entzunezko proiektu baten muntaiaren eta postprodukzioaren errealizazioa:
 - Artxibo-formatuak homogeneizatzeko, konpontzeko eta baliabideen itxuraren erlazioa.
 - Beharren arabera, txertatze edo mihizatze bidez edizioa aukeratzeko.
 - Muntai-gidoi batek markatutako jarraibideen arabera, ekipo analogikoekin eta/edo digitalekin edizio sinpleko eragiketak, honako hauekin lan eginez:
 - bideoa eta soinua jasotzea.
 - audio eta bideo hainbat seinalaren nahasketen edizio lineetan edo *timelines* errealizazioa.
 - klaketaren erreferentzia-markekin bideoaren eta audioaren sinkronizazioa.
 - Audio-bandak editatzea (elkarrizketak, soinu-efektuak, musikak eta lokuzioak), mailak doitu, eta iragazkiak eta efektuak aplikatu.
 - *offline-online* edizio-teknika eta denboren kodea.
 - Ekipo digitalekin edizio konplexuko eragiketak, honako hauekin lan eginez:
 - audio eta bideo edizio-lerro anizkunak. Geruzak kudeatzea.
 - edizio-markak.
 - kolore-zuzenketak eta dominatzaileen sorrera.



- abiadura-aldaketak (gelditzea, moteltzea eta arintzea).
 - *keyak* aplikatzea.
 - Ibilbideen edizioa eta animazioa.
 - bideo- eta irudi-iragazkiak erabiltzea.
 - titulazioak eta grafismoa.
 - eskatutako arauen arabera, kanpoko iturriekin sortutako materialak eranstea.
 - etalonajeak.
 - Muntaia baloratzea, erritmoa, ikus-jarraitutasuna eta narrazio-jarioa kontuan hartuz. Emaitzak ebaluatzea eta hobetzea.
- ✓ Masterra lantzea eta banaketa-baldintzak betetzea:
- *Offline-online* grabazio-teknikak aplikatzea.
 - Zintarako irteera-euskarria aukeratzea. Konfigurazioa eta iraultzea.
 - Blu-ray eta DVD egiletza-sistema erabiliz masterra sortzea. Konfiguratzea eta diskoan grabatzea.
 - Produktuaren kalitate-kontrolako teknikak identifikatzea eta analizatzea, hura hedatzeko eta emititzeko.

7. lanbide-modulua ⁷ IKUSKIZUNEN ETA EKITALDIEN KUDEAKETAREN PLANGINTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketaren plangintza
Kodea:	0908
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	132 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1420_3: Premia teknikoak eta artistikoak zehaztea, eta zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien entseguak planifikatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 5.a / 6.a / 7.a / 8.a / 9.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 18.a / 19.a / 20.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Proiektu eszeniko baten ezaugarri dramatikoak, narratiboak, estetikoak eta funtzionalak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, gidoiaren, libretoaren, partituraren edo dokumentazioaren ezaugarri teknikoak eta artistikoak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Antzerki-testuen edo gidoi estandarizatuen berezko kodeak bereizi ditu, ikuskizunen edo ekitaldien proiektuen konponketan aplikatzeko.
- Produktuaren tipologia, ikuskizunaren formatua eta generoa zehaztu ditu, lanaren gidoiaren, libretoaren, partituraren edo dokumentazioaren analisisian oinarrituz.
- Gaia, argumentua, pertsonaiak, espazioa eta denbora zehaztu ditu, bai eta ikuskizuneko edo ekitaldiko egitura dramatikoaren gainerako elementuak ere, alde zuzeneko dokumentazioaren edo gidoiaren analitikan abiatuz.

- d) Lengoia eszenikoak osatzen dituzten elementuen adierazpen-ezaugarriak, eta euren ezaugarri plastikoak, funtzionalak, semantikoak eta teknikoak baloratu ditu, aldez aurreko dokumentazioaren edo gidoiaren analisitik abiatuz.
- e) Gidoi baten narrazio-sekuentzia zehaztu du, gidioia multzotan, ekitalditan eta eszenatan edo koadrotan banatu ondoren.
- f) Garatuko duten ikuskizunaren testuinguru historikoa zehaztu du, gidoiaren irakurketan eta analisisian, eta proiektuaren dokumentazioan oinarrituta.
- g) Ikuspegi historikoa eta garaikidea kontuan hartuz, ekitaldiekin eta arte eszenikoekin erlazionatutako estilo eta mugimendu artistiko azpimarragarrienak bereizten dituzten ezaugarriak zehaztu ditu.

2. Ikuskizun edo ekitaldi bat eszenaratzearen ezaugarriak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, eszena-proposamenaren interpretazioan eta dokumentazio teknikoan oinarritzen da.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Antzezen-espazioen ezaugarriak, antzerki-arkitektura eta funtzionaltasun eszeniko egokiak definitu ditu ikuskizun edo ekitaldi bat errealizatzeko, bere formatua eta tipologia kontuan hartuz.
- b) Keinuen, ahoen eta lengoaiaren kodeen funtzioak bereizi ditu. Halaber, ikuskizun edo ekitaldi bat eszenaratzeko unean, aktoreek eta interpretariak erabili behar dituzten adierazpeneko eta komunikazioko baliabideen moduko teknikak bereizi ditu.
- c) Eszenografiaren ezaugarri funtzionalak, dramatikoak eta adierazpenekoak zehaztu ditu, bai eta ikuskizun edo ekitaldi baten eszena-tresneria ere. Guztia, proposamen eszenikoaren edo dramaturgikoaren analisisian oinarrituta burutuko du.
- d) Proposamen eszenikoaren edo dramaturgikoaren analisitik abiatuz, jantzitegiaren, makillajearen eta karakterizazioaren ezaugarriak zehaztu ditu, ikuskizuneko edo ekitaldiko proiektua eszenaratzeko.
- e) Ikuskizun edo ekitaldi bat eszenaratzeko behar dituzten argiteriako elementuak eta eskemak egokiak ote diren zehaztu du.
- f) Ikuskizun edo ekitaldi bat eszenaratzeko esku hartzen duten musikako, soinuko, ikus-entzunezko edo beste edozein motatako elementuen ezaugarriak zehaztu ditu.
- g) Ikuskizuneko edo ekitaldiko proiektu bat eszenaratzeko, agertokiaren kopurua kalkulatzeko eta agertokia jantzeko elementuak eta teknikak zehaztu ditu.
- h) Ikuskizun edo ekitaldi bat eszenaratzeko aplikatzen dituzten makineria tradizionalako baliabideak definitu ditu.
- i) Arte eszenikoek historikoki esperimentatutako eboluzio teknikoa eta adierazpenekoa erlazionatu ditu, ikuskizun edo ekitaldi bat eszenaratzeko gaur egungo teknikekin eta formekin.

3. Ekitaldi edo zuzeneko ikuskizun baten proiektuaren dokumentazio teknikoa, artistikoa eta antolakuntzako lantzen ditu, eta, horretarako, proiektua abian jartzeko beharrak, eta sektorearen industria-egiturak, egitura profesionalak eta teknikoak erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ekitaldien eta ikuskizunen industriaren antolakuntza- eta enpresa-funtzioen ezaugarriak ezarri ditu, bai eta tipologiaren arabera proiektu baten errealizazioan biltzen diren produkzioko eta emanaldiko faseak eta prozesuak ere.
- b) Ekitaldi- edo ikuskizun-proiektu bat abian jartzeko ekipo artistikoek eta teknikoek beteko dituzten lanak garatu ditu diagramen bitartez.
- c) Aktoreak (protagonistak, nagusiak, sekundarioak, figurazioa eta beste batzuk), esku hartzen dutenak, elementu eszenografikoak, eszena-tresneria, jantzitegia, eta argi, soinu eta ikus-entzunezko efektuak eszenen arabera xehatu ditu.

- d) Ekitaldian edo ikuskizunean esku hartzen duten pertsonaiak sailkatu ditu, hauek proiektuan duten profila, garrantzia, hedapena, maiztasuna eta erlazioa kontuan hartuz.
- e) Esku hartzen duten langileen xehapena egin du, ekitaldiaren edo ikuskizunaren antzezenaren edo entseguaren une bakoitzean garatu behar dituen ekintzekin erlazionatuz.
- f) Dokumentazio grafikoa, eszenografiako diseinuak eta planoak, argien planoak, jantzi-marrazkiak eta beste batzuk antolatu eta bildu ditu.
- g) Libreto bateko sekuentzia dramatikoak gidoi teknikora egokitzeko prozesu osoa garatu du.
- h) Lehen kudeaketa-liburua idatzi du, zuzendaritzak planteatutako aldaketak, eszenen ordena, pertsonaien sarrerak eta irteerak, eszenografiako aldaketak, eszena-tresneria, soinua, luminoteknia, atsedanak eta efektuak jasoz bertan.

4. Ekitaldi edo ikuskizuneko proiektu baten entseguak planifikatzen ditu, eta, horretarako, kontuan hartzen ditu obraren zuzendaritzaren aginduak eta produkzio-ereduaren jarraibideak. Guztia, antzezteko espazioaren baldintzak eta lan-araudia kontuan hartuz egingo du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Entseguen plana egin du, ekitaldiaren edo ikuskizunaren zatien edo eszenen sekuentzia kronologikoa, eta soinua, jantzitegi, eszena-tresneria, luminoteknia eta eszenografiako aldaketak, besteak beste, kontuan hartuz.
- b) Ekitaldi edo zuzeneko ikuskizun baten proiektu baten entseguak planifikatu ditu, arte eszenikoetan lanetako legeak eta araudiak, laneko espazioak prestatzea, eta laneko arriskuak prebenitzeko xedapenak betetzea kontuan hartuz.
- c) Entseguen egutegia eta plana osatu ditu, zuzendaritza teknikoaren eta produkzioaren baldintzak, material eszenikoen entrega, bertan lan egiten dutenen ordutegiak, eta, eszenen ordenaren eta banaketaren arabera, aurrez ikusteko moduan interpretariak lanean hasiko direla kontuan hartuz.
- d) Ekitaldi edo ikuskizun baten eszenografia behin betiko finkatu baino lehen aurre-eszenografia edo antzekoa gauzatu du. Halaber, eszenaren baldintzak eta espazioa zuzen islatzen dituen entsegu-gela markatu du.
- e) Multimediako ikuskizun edo ekitaldi batean produktu bat aurkezteko eskaleta sortzeko prozesu osoa garatu du.
- f) Langileen ordutegiaren taula osatu du, produkzioan parte hartzen duten guztiei ikuskizun baten entseguetan garatuko dituzten deialdien, lanen eta beste jarduera batzuen berri emateko.

5. Ekitaldi edo ikuskizuneko proiektu bat antzezen-espazio berritara egokitzeko aukerak baloratzen ditu, eta, horretarako, ikuskizunaren baldintza artistikoak errespetatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Eszena-espazio berrira egokitu behar duten ikuskizunaren fitxa osoa edo *riderra* osatu du.
- b) Ikuskizuna espazio berri batera egokitzeko bideragarritasun artistikoa eta teknikoa ebaluatu ditu, lokalaren dokumentazio teknikoa, kudeaketa-liburuaren jarraibideak, eta teknikoki eta artistikoki ezarritako malgutasun-irizpideak kontuan hartuz.
- c) Espazio berri baterako egokitzea planifikatu du, kontuan hartuz lokalaren beraren antolakuntza-egitura, harrera-gelako teknikarien lan-baldintzak eta artisten guneko laneko espazioen (*back stage*) erabilera.
- d) Harrera-espazio berrian eszena-tresneriaren eta jantzitegiaren kokapena, eta jantzigeletan aktoreen banaketa-plana osatu ditu.

- e) Txosten batean bildu ditu eszenografia ezartzeko, proiektoreak ezartzeko, argiteriako eta ikus-entzunezkoen efektuak grabatzeko baldintza berriak, eta ekitaldiaren edo ikuskizunaren egokitzapenaren ondoriozko beste edozein aldaketa tekniko.
- f) Eszenografia paketzeko eta garraiatzeko prozesuen, bidaia-planaren eta agertoki berrian aurreikusitako muntatze-lanen baldintzak zehaztu ditu, biran lan egiten duten gainerako arloekin koordinazioa kontuan hartuz.
- g) Egokitzapen-prozesuan jatorrizko proiektu artistikoarekiko ahalik eta antzekotasun handiena gorde du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. PROIEKTU ESZENIKO BATEN EZAUGARRI DRAMATIKOAK, NARRATIBOAK ETA FUNTZIONALAK EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Obra eszeniko baten diskurtso narratiboa eta egitura dramatikoa planifikatzea. - Gaia, argumentua, pertsonaiak, espazioa eta denbora zehaztea, bai eta ikuskizuneko edo ekitaldiko egitura dramatikoaren elementuak ere, aldeaz aurreko dokumentaziotik edo gidoitik/libretotik abiatuz. - Gidoi/libreto dramatiko bat osatzeko teknikak aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Gidoi/libreto baten narrazio-sekuentzia sortzea, gidoia/libreto multzotan, ekitalditan eta eszenatan edo koadrotan banatu ondoren. - Ekitalditarako eta ikuskizunetarako gidoi/libreto bat osatzeko teknikak aplikatzea. - <i>Software</i> espezifiko erabiliz, ikuskizunetarako eta ekitalditarako gidoi/libreto lantzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen ezaugarriak. Tipologia eta elementu bereizgarriak eta espezifikoak. - Genero dramatikoak eta euren elementu bereizgarriak. - Egitura dramatikoa eta diskurtso narratiboa arte eszenikotan. - Ekitaldi eta ikuskizunetarako gidoiak/libretoak. Gidoi/Libreto artistikoak eta teknikoak. - Ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen mugimendu artistikoen eta eskolen eboluzio teknikoa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gidoiak/libretoak sortzen eta egokitzen interes eta jarrera ekintzailea. - Dokumentazioa jaso eta tratatzeko ekimena. - Ezagutza teorikoak eta praktikoak hobetzeko kezka.

2. EKITALDI EDO IKUSKIZUN BAT ESZENARATZEKO EZAUGARRIAK EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antzerkiko eszenaratzea eta zuzendaritza. - Ikuskizunetako interpretazio-kodeak analizatzea. - Ekitalditan eta zuzeneko ikuskizunetan argiteriaren balio funtzionala eta adierazpenekoa analizatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Argiteriako eskemak egitea. • Argiteriako elementuak aukeratzea. - Eszenografiako <i>software</i> espezifikoarekin argiteriako teknikak aplikatzea. - Musika-zatiak eta -funtsak, eta soinu-efektuak aplikatzea, arte eszenikoetan.

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antzerki-arkitektura: <ul style="list-style-type: none"> • Irudikatzeko espazioen ezaugarriak. • Eszenaren funtzionaltasuna. • Eszenografian makineria tradizionalako baliabideak. - Eszenaratzearekin lotuta, ekitaldiak eta zuzeneko ikuskizunak irudikatzeko agertokien eboluzio teknikoak. - Ikuskizunetarako interpretazioko tekniken eta eskolen eboluzioa. - Ikuskizunean eszena-tresneriaren eta eszenografiaren funtzioak. - Ekitalditan eta zuzeneko ikuskizunetan argiteriako teknikak. - Arte eszenikoetako soinu-efektuen eta musikaren funtzioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eszenaratzean edukiak aplikatzearen ondoriozko motibazioa eta jarrera ekintzailea. - Eszenaratze, ikuskizun edo antzezpen bakoitza bereizten duen estetikarekiko interesa. - Ezagutza teorikoak eta praktikoak hobetzeko kezka.

3. EKITALDI EDO IKUSKIZUN PROIEKTU BATEN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA, ARTISTIKOA ETA ANTOLAKUNTZAKOA LANTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arte eszenikoetako ikuskizun bat, musika-antzezpenak, ekitaldiak eta beste batzuk garatzeko prozesua prestatzea. - Eszena bakoitzeko honako baliabideak banakatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Aktoreak, partaideak, elementu eszenografikoak, eszena-tresneria, jantzitegia, argi-efektuak, soinu-efektuak eta ikus-entzunezkoak. - Teknikariaren banakatzea egitea, euren ekintzak entseguan edo ikuskizunean zehaztuz. - Zerrenda teknikoak egitea. - Dokumentazio grafikoa, eszenografiako diseinuak eta planoak, argien planoak, jantzi-marrakizkiak eta beste batzuk antolatzea. - Kudeaketa-liburua eraikitzea: <ul style="list-style-type: none"> • Eszenen ordena, iraupena eta atsedanak. • Eszenografiarako, eszena-tresneriarako eta jantzitegirako planteatutako aldaketak. • Pertsonaien sarrerak eta irteerak. • Aurreikusitako ikus-entzunezko, soinu eta argiteriako efektuak. • Lan-prozesua errazteko beharrezko ekintzen sekuentzia.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kudeaketa-liburua: ezaugarriak eta funtzioak. - Kolektibo artistikoen eta teknikoaren funtzioak eta zereginak. - Baliabideak xehatzea eta zerrenda teknikoak osatzea. - Eszenografia ezartzeko kontrol-teknikak. - Eszenografiako ereduak, diseinuak eta dokumentazio grafikoko ereduak. - Libretoko sekuentzia dramatiko bat gidoi teknikora egokitze teknika. - Kudeaketa-liburuan dauden kontrol-elementuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazioa biltzeko eta betetzeko ekimena. - Aginduak betetzeko ardura. - Lan-taldearekin erlazionatzeko prest egotea.



4. EKITALDI EDO IKUSKIZUN PROIEKTU BATEN ENTSEGUAK PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Entseguen plangintza: <ul style="list-style-type: none"> • Jardueren eta zereginen sekuentzia definitzea. • Prestatu gabeko espaziotan antzetzeko zerbitzuak eta espazioak planifikatzea. • Ordu-tegi-taula osatzea. Deialdiak. - Antzetzeko eta entseguko espazioak prestatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Espazioak egokitzea. • Espazioen banaketa funtzionala. • Aktoreak jantzigeletan banatzea. • Jantzitegia eta eszena-tresneria ipintzea. - Erkaketa aurrezenografikoa egitea, eszenaren baldintza errealean isla.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Entseguen prozesuaren antolakuntza-sistematikorako teknikak eta metodoak: <ul style="list-style-type: none"> • Jardueren plana. • Zereginen sekuentzia. • Espazioak aurreikustea. • Ordu-tegiak eta deialdiak. • Jantzigelen eta aldagelen aurreikuspena. • Deialdien eta ordu-tegien taula. • Jantzitegiko eta eszena-tresneriako zerrenda. - Laneko arriskuen prebentzioari eta segurtasunari buruzko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolamenduko taldeekin lankidetzan jardutea. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Jarraibideak betetzeko ardura, interpretazioari zein gauzatzeari dagokienean.

5. EKITALDI EDO IKUSKIZUN PROIEKTU BAT ANTZEZTEKO ESPAZIO BERRITARA EGOKITZEA BALORATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ekitaldi edo zuzeneko ikuskizun bat antzetzeko espazio berritara egokitzeko teknikak aplikatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Ikuskizuna egokitzeko fitxa edo <i>riderra</i> osatzea. • Bideragarritasun artistikoa eta teknikoa. • Espazio berritara egokitzea. - Kudeaketa-liburua edo gidoia antzetzeko espazio berritara egokitzea, jatorrizko proiektuaren leialtasuna gordez.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Egokitze-baldintzen gaineko txostenak eta dokumentazioa. - Egokitu gabeko espaziotan jardueretarako erabilitako arkitektura arinak. - Paketatze-teknikak eta espazio berritara eramatea: <ul style="list-style-type: none"> • Paketatzeko zehaztapenak, garraioa eta bidaia-plana. • Eszenategi berriari muntatzea. - Biltegiatzea eta kontserbazioa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Materialak zaindu eta kontserbatzeko lanetarako laguntza eskaintzeko interesa. - Funtzioak garatzeko ekimena izatea. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen sekuentziazioan komeni da hasieran ekitaldien eta zuzeneko ikuskizunen tipologiari buruzko ikuspegi orokorra ematea, genero bakoitzaren berezko ezaugarriak aztertu aurretik. Horregatik, proiektu eszeniko baten ezaugarri dramatikoak, narratiboak eta funtzionalak ebaluatzeari buruzko **1. multzoko** edukiekin hastea gomendatzen da. Multzo honetan bertan eskolen, genero dramatikoaren eta gidioen pertsonalizazioaren arteko diferentziak zehaztuko dira.

Modulu honek entseguak egituratu, koordinatu eta gauzatzeko funtzioak dituenek, beharrezkoa dirudi kasu erreal batekin lan egitea, hala nola, obra baten eszenaratzea edo zuzeneko beste ikuskizun-mota bat. Adibidez, lehen multzo honetan aukeratutako lan baten egitura dramatikoak planifikatuko lukete, gidoi dramatiko bat osatzeko teknikak aplikatuz. Era berean, ikuskizunetarako eta ekitalditarako gidoi-teknikak aplikatuko litzakete, bigarren aukera hautatuz gero.

Ondoren, **2. multzoko** edukiekin jarrai dezakete. Bertan, antzerki-arkitektura baten esparruan, “zuzendaritza eta eszenaratzea” kontzeptua agertzen da. Bertan sartuko dira interpretazio-kodeen azterketa, argiteriaren adierazpeneko esanahia, atzealdearen balioa, eta musikaren eta soinu-efektuen aplikazioa. Arrazoizkoa dirudi aurretik **1. multzoan** egituratutako gidoiaren kontzeptu hauek aplikatzeko aukerak aztertzea. Ildo beretik, ikuskizunei –zuzeneko ekitaldi batekin lan eginez gero–, eta baliabideei, argiteriari eta estiloei buruzko kontzeptuak aplikatu beharko lirake.

Modu sekuentzialean, **3. multzoko** edukiak garatuko dituzte, hots, dokumentazio teknikoa, artistikoa eta antolakuntzakoak lantzeari buruzkoak. Derrigorrez aplikatu behar da; berdina da obra eszeniko batekin, musika-produkzio batekin nahiz beste ekitaldi batekin lan egin. Ikasleak zerrenda teknikoak eta baliabideen banakatzekoak sortu beharko ditu. Ikasleak eszena eta alderdi tekniko-artistikoak zehaztu beharko dituen kudeaketa-liburua osatzea funtsezkoa da entseguak planifikatzen hasteko.

Batez ere antolakuntzarekin lotutako eduki horiek **4. multzoan** zehazten dira. Bertan, plangintzako alderdietan sakontzen da eta ez hainbeste lana gauzatzean. Hala ere, moduluari prozedurazko balio handiagoa ematea gomendatzen dute. Horregatik, entsegu baten gauzatzeko-fasea izango litzatekeenera hurbiltzen has daitezke.

Azkenik, **5. multzoan** kudeaketa-liburuaren eta gidoiaren aldakortasuna baloratuko dute. Horretarako, landutako dokumentazio teknikitik abiatuta, antzezteko espazio berritara egokitzapenak egingo dituzte. Puntu honetan, zenbait orduz instalazioak utziko litzaketen herriko antzeztoki baten laguntza izatea garrantzitsua litzateke, obra xehe baten egokitzapen erreala egin ahal izateko.

2) Alderdi metodologikoak

Ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketaren plangintza modulu teoriko eta prozedurazkoa da. Bere helburu da entseguak eta antzezpina egituratu, koordinatu eta gauzatzeko funtzioak garatzea.

Funtzio horiek betetzeko, ekitaldien, musika-produkzioen eta arte eszenikoen ikuskizunen proiektuen errealizazioaren plangintzarekin lotutako teknika-motak proiektu zehatz baten gainean lantzeko gomendatzen dute. Talde-proiektu honi esker, ekitaldien eta ikuskizunen proiektuen antzezpenaren entseguak planifikatu eta prestatzeko irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerak garatu, ekitaldien eta ikuskizunen proiektuak kudeatzeko gidoi teknikoak osatu, eta proiektu eszenikoak antzezteko espazio diferentetara egokitu ahal izango dituzte.

Ekitaldien edo ikuskizunen proiektuetako antzerki-testuak bereizten dituzten kodeak, edo gidoi estandarizatuak eta errealak erabiltzeko gomendatzen dute.

Horren haritik, teknika hauek ikastearen ondorioz, prozesu osoa kudeatzeko erabilitako eta sortutako ereduak dokumentazioaren gaineko informazioa bilatu behar da. Internet, dokumentu-funts digitalizatuak, eta abar bezalako teknologia berriak erabil daitezke, plangintza-ereduak lortzeko, beste proiektu eszeniko batzuen edo beste edozein ekitaldi-motaren jarduteko moduak ondorioztatzeko.

Wysiwyg, Martin Show Designer edo antzeko eszenografiako *software* espezifikoarekin argiteriako tekniken inguruko abangoardiako informatikako aplikazioei buruzko ikerketa gomendatzen dute.

Irakasleek proiektua planifikatzeari buruzko ekintzak harmonizatzeko zeregina izango dute. Horretarako, modulua osatzen duten multzoen edukiak metodologikoki azalduko dituzte, eta ideiak sortzen lagunduko duen ikaskuntza parte-hartzailea sustatuko dute. Plangintza osoaren antolakuntzak proiektua arin gauzatzen lagunduko du, gidoiaren intenzionalitatea eta honek izango lituzkeen sormen-arloko ekarpenak errespetatuz.

Azkenik, koordinazio-lanetan gomendagarria da modulu hau "Ikuskizunak eta ekitaldiak zuzentzeko prozesuak" moduluarekin batera lantzea, jardueren garapena koherenteagoa izateko. Jardunbide honi jarraituz, bi moduluak aldi berean ematea gomendatzen dute, jarduerak batera programatzeko helburuarekin. Bi moduluetan antzoki, musika-eszenatoki eta ekitalditara bisita gidatuak egiteko gomendatzen dute, ingurune fisiko profesionalarekin harreman erreala edukitzean laguntzeko. Interesgarria litzateke antzeppen eszeniko bat martxan jarri aurretik eta ondoren ikustea, Plangintza-prozesuak betetzen ote diren eta hauen eraginkortasuna zenbatekoa den ikasleak ebaluatu ahal izateko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Genero dramatikoaren eta elementu bereizgarrien sailkapena.
- ✓ Arte eszenikoei aplikatutako narrazio-diskurtsoa eta egitura sortzea:
 - Gaia, argumentua, pertsonaiak, espazioa eta denbora zehaztea.
 - Gidoi teknikoak eta artistikoak lantzea.
 - Gidoi baten narrazio-sekuentzia zehaztea, gidoia/libretoaren multzotan, ekitalditan eta eszenatan edo koadrotan banatu ondoren.
- ✓ Eszenaratzeko ezaugarriak ebaluatzea:
 - Agertokiaren antzerki-arkitekturako elementuak eta eboluzio teknikoak.
 - Honako hauen balio funtzionala eta adierazpenekoa:
 - argiztapena.
 - musika eta soinu-efektuak.
- ✓ Proiektu baten dokumentazio teknikoa, artistikoa eta antolakuntzako osatzea:
 - Baliabideak zehaztea eta zerrenda teknikoak osatzea.
 - Eszenografia ezartzea.

- Kudeaketa-liburua eraikitzea: eszenen ordena, aldaketak, sarrerak eta irteerak, argi, soinu eta ikus-entzunezko efektuak, ekintzen sekuentzia.
- ✓ Ekitaldi edo ikuskizun-proiektu baten entseguen prozesua planifikatzea:
 - Honako teknika hauek aplikatzea:
 - jardueren eta zereginen sekuentzia.
 - antzezteko espazioak planifikatzea.
 - deialdien eta ordutegien taulak osatzea.
 - Entsegu-espazioak prestatzea:
 - Espazioen banaketa funtzionala.
 - Aldagelak.
 - Jantzitegia eta eszena-tresneria.
 - Arriskuen prebentzioa.
- ✓ Kudeaketa-liburua edo gidioa antzezteko espazio berritara egokitzea.

8. lanbide-modulua ⁸

IKUSKIZUNAK ETA EKITALDIAK ZUZENTZEKO PROZESUAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ikuskizunak eta ekitaldiak zuzentzeko prozesuak
Kodea:	0909
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	165 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	8
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1421_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien entseguak prestatzen eta garatzen prozesu teknikoak eta artistikoak gainbegiratzea eta zuzentzea. UC1422_3: Lokal finko batean eta biretan zuzeneko ikuskizunak eta ekitaldiak burutzen prozesu teknikoak eta artistikoak gainbegiratzea eta zuzentzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 5.a / 6.a / 7.a / 8.a / 9.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 18.a / 19.a / 20.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekitaldi edo ikuskizun baten entseguak egiteko beharrezko elementu teknikoak, materialak eta pertsonak prestatzeko eta lortzeko prozesua ezartzen du, eta, horretarako, jatorrizko plangintza eta aplikatzeko dituen aukerak baloratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Giza talde artistikoen eta teknikoen lanak eta baliabide materialen erabilgarritasuna koordinatzeko eta gainbegiratzeko beharrezko alderdiak definitu ditu, ekitaldia edo ikuskizuna planifikatzeko fasean sortutako dokumentazio teknikoan eta lehen kudeaketa-liburuaren oinarrituz.
- Ekitaldi edo ikuskizun baten entsegu-espazioen, aldagelen, sarreren, komunen, klimatizazioaren, altzarien, argien, garbitasunaren eta beste elementu batzuen

baldintzak egiaztatzeko eta gainbegiratzeko sistema ezarri du, sor daitezkeen arazoak garaiz aurreikusiz.

- c) Gertakariak jakinarazteko sistema, eta entseguarako beharrezko elementuak eta materialak prestatzeko prozedura zehaztu ditu.
- d) Esku hartzen duten guztiek entseguetarako aurreikusitako zitazioak betetzen ote dituzten egiaztatzeko sistema ezarri du.
- e) Eszenografiako, eszena-tresneriako, jantzitegiko eta beste esparru batzuetan entsegu bakoitzaren orrazketa teknikorako kontrol-irizpideak ezarri ditu, plangintzak, irizpide teknikoak eta finkatutako segurtasuneko kontsignak betetzen direla egiaztatuz.
- f) Arlo guztietan informazio garrantzitsua zuzen transmititzea bermatuko duen komunikazio-sistema diseinatu du, baliabide egokienak erabiliz, hala nola, informazio-panel eguneratua, eguneroko taula, eta zitazioak eta deialdiak.
- g) Pareko eszenografikoan, eszenografian eta eszena-tresnerian entseguetan izandako aldaketetarako dokumentazioa kontsignatzeko eta eguneratzeko irizpideak ezarri ditu, jatorrizko planoetan adieraziz.

2. Ekitaldi edo ikuskizun bateko ekipo teknikoaren eta artistikoen laneko prozesuak zuzentzeko prozedurak diseinatzen ditu, eta, horretarako, gatazkak kudeatzeko, zuzendaritzako eta motibazioko teknikak, batetik, eta finkatutako laneko planak betetzeak, bestetik, erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ekitaldi edo ikuskizun baten errealizazio-prozesuan esku hartzen duten giza taldeekin aplikatu behar duten aginte-estiloaren ezaugarriak definitu ditu.
- b) Proiektuaren kudeaketan aplikatuko duten komunikazio-modalitatearen ezaugarriak zehaztu ditu, esku hartzen duten guztien iradokizunak eta ekarpenak analizatzea, komunikazio horizontala indartzea, eta prozesuan aurrera egitea eta elkarren artean komunikatzea bultzatuko duen beste edozein teknika kontuan hartuz.
- c) Ekitaldiaren edo ikuskizun-proiektuaren errealizazio-prozesuan sortutako pertsonen arteko gatazken kudeaketan erabiliko duten metodologiaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- d) Erabakiak hartzeko sistema jarri du martxan. Sistema horretan erabakiei lotutako arriskuak eta ondorioak hartuko ditu kontuan, eta, aldi berean, proiektuaren kudeaketan parte-hartzaileen artean onarpen-maila handiena lortuko du.
- e) Besteak beste, arriskuen prebentzioari, segurtasunari, sartzeko araudiei eta barne-arauei buruzko informazioa transmititzeko prozesua ezarri du, bai eta arau horiek betetzen ote diren kontrolatzeko eta egiaztatzeko ere.
- f) Entseguetan laneko plana betetzen ote den egiaztatzeko sistema prestatu du. Era berean, ezusteko arazoak konpontzeko sistema ezarri du ideiak eskainiz eta probleman zer ikusia duten arduradunekin negoziatuz: zuzendaritza artistikoa, produkzioa eta zuzendaritza teknikoa.

3. Ekitaldi edo ikuskizun bateko entseguetan esku hartzen duten taldeen zereginak ezartzen ditu, eta, horretarako, emaitzak eta proiektuaren helburuak betetzea erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Entseguaren garapenean prozesu bat ezarri du. Bertan honakoak hartu ditu kontuan: interpretarien eta teknikarien esku-hartze aginduak ematea, sortutako aldaketen abiadura eta ordena kronologikoa finkatzea, pertsonaien mugimenduak finkatzea eta aldaketa guztiak jasotzea; hori guztia, ekitaldia edo ikuskizuna osatzen duten ekintza guztiak betetzen direla ziurtatuz.



- b) Ekitaldi edo ikuskizun baten entseguen eta antzezenaren jarraipenerako lanbidearen berezko komunikazio-kodeak, eta lanbidearen argot eta hiztegi teknikoaren adierazpen guztiak aplikatu ditu.
- c) Esku hartzen dutenetako bakoitzaren paperaren ikaskuntza kolektiboko prozesu gisa baloratu du entseguen fasea.
- d) Entseguetan kudeaketa-liburua egunero eguneratzeko sistema bat definitu du, ekitaldiaren edo ikuskizunaren garapenera eta eboluzioari buruzko informazio tekniko eta artistiko guztiekin, bai eta zuzendaritzak proposatutako eszenaldaketa posibleekin ere.
- e) Entseguetan esku hartzen duten artisten eta teknikarien eguneroko zereginak eta ordutegiak aztertzeko eta berregokitzeko prozedura definitu du. Bertan kontuan hartuko ditu baldintza teknikoak eta produkzioak, pertsonak libre egotea eta hauen laneko ordutegiak.

4. Ekitaldia edo ikuskizuna hasi aurreko jarduerak gainbegiratzeko prozedurak ebaluatzen ditu, eta, horretarako, bere funtzioaren erantzukizuna eta bere jardueren eragina aitortzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taulan hitzartutakoa jarraituz, antzezlekura teknikariak eta artistak iristeko kontrol-prozedura finkatu du.
- b) Antzezenean esku hartzen duten elementu artistiko eta tekniko guztien funtzionamendua gainbegiratzeko orrazketa egitea planifikatu du, esku hartzen duten taldeen zereginaren iraupenaren eta haien ordenaren arabera, eta ezustekoak konpontzeko behar den denbora kontuan hartuz.
- c) Aretoa zabaltzeko plana egin du eta partaideei jakinarazi die modu ordenatuan, ekipo bakoitzak lanean egingo dituen aurreikusitako denborak adieraziz.
- d) Jendea hartzeari buruzko alderdi guztiak kontrolatzeko prozedura bat ezarri du, hala nola, jendetza-bolumena, txarteldegian sarrerak banatzea eta antzezena garaiz hastean eragin dezaketen beste alderdi batzuk.
- e) Komunikazio- eta seinaleztapen-sistema guztien funtzionamendua egiaztatzeko sistema planifikatu du, antzezenean esku hartzen duten sail guztien artean.
- f) Bertaratutako ikusleen, artisten eta langileen segurtasunari buruzko arauak ezarri ditu antzezena egiteko.
- g) Ekitaldia edo ikuskizuna abian jartzean esku hartzen duten ekipo guztien adostasuna jaso ondoren, ikuskizuna hasteko ordena emateko sistema zehaztu du.

5. Ekitaldiaren edo ikuskizunaren antzezenean jarraitu behar diren ekintzen ordena ezartzen du, eta, horretarako, antzezena teknikoki zuzen egitea eta proiektuaren helburuak lortzea erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aktoreen, kantarien, abesbatzen, dantzarien eta figurazioaren sartzeko eta irteteko aginduak, antzezlekuko mekanismoen mugimendua eta dekorazioaren aldaketak, argi, soinu eta ikus-entzunezko efektuak, jantzigetako eta eszenatresneriako aldaketak, besteak beste, jasoko dituen ekitaldi edo ikuskizun baten antzezena koordinatzeko prozedura ezarri du.
- b) Ekitaldi edo ikuskizun baten antzezenaren elementu partzialak zehatz-mehatz tenporizatu ditu, hala nola, dekoratu-aldaketak, atsedendia, bisak eta ikusleak agurtzea, besteak beste. Bertan egon daitezkeen aldaketak funtzioeko eguneroko jakinarazpen edo txosten batean aurreikusiko dira.

- c) Mota diferenteko ekitaldi edo ikuskizun baten (arte eszenikoak, musika-produkzioak, multimediako aurkezpenak, mitinak eta beste batzuk) antzezpenean sarrien eman daitezkeen gertaerei erantzuteko sistema aurreikusi du.
- d) Ekitaldia edo ikuskizuna behin-behinean edo behin betiko eteteko prozedura zehaztu du, jendeari eman behar zaion informazio-mota eta komunikatzeko modu egokiena kontuan hartuz.
- e) Ekitaldian edo ikuskizunean esku hartzen duten taldeek egin behar dituzten lanak planifikatu ditu, jendea biltzen den lokalen Larrialdi eta Ebakuazio Plana betetzen dela ziurtatzeko.

6. Ekitaldiaren edo ikuskizunaren antzezpena ixteko eta baloratzeko prozedurak ezartzen ditu, eta, horretarako, antzeppen berriak optimizatuko dituen dokumentazioa lantzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ekitaldiaren edo ikuskizunaren garapena etengabe baloratzeko helburuarekin, bildutako datu azpimarragarri guztiak idatziz jasotzeko funtzioaren eguneroko jakinarazpenak edo txostenak egiteko prozedura definitu du.
- b) Esparru artistikoan eta teknikoan antzemandako gertakariak konpontzeko jardun-protokoloa diseinatu du. Bertan, langileen aldaketa posibleak eta doikuntza teknikoak aurreikusiko ditu, bai eta arazoa konpontzeko behar den denbora eta behar diren entseguak ere.
- c) Langileen taula egunero osatzeko plana zehaztu du. Bertan, hurrengo deialdirako ordutegiak eta zereginak, batetik, eta ekitaldian edo ikuskizunean esku hartzen duten talde guztientzako komunikazio-sistema eraginkorra, bestetik, bilduko ditu.
- d) Ekitaldian edo ikuskizunean esku hartzen duten talde eta sail guztien ekarpenak bilduko dituen, eta etorkizunean eszenaratzea erreproduzitzeko abiapuntu-eredu gisa balioko duen behin betiko kudeaketa-liburua osatzeko sistema ezarri du.
- e) Ekitaldiaren eta ikuskizunaren errealizazioan erabilitako ikus-entzunezko material, testu eta partitura guztiak bildu, artxibatu eta produkzio-sailari entregatzeko prozedura zehaztu du, etorkizuneko antzeppenetan erabiltzeko helburuarekin.

c) Oinarrizko edukiak:

1. ELEMENTU TEKNIKOAK, MATERIALAK ETA PERTSONALAK PRESTATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzendaritza teknikoarekin eta artistikoarekin koordinatzea kudeaketa . - Prebentziorako jardueren koordinazioa aplikatzea. - Entsegu-dokumentuak lantzea: <ul style="list-style-type: none"> • Entseguen memoria. • Kudeaketa-liburua eguneratzea. • Kudeaketa-gidoia egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Entseguetan orrazketa teknikoaren errealizazio-teknikak. - Aldaketa teknikoak eta eszenografikoak kontrolatzea. - Entseguen dokumentazioaren ezaugarriak eta hauek kudeaketa-liburuan jasotzea. - Prebentzio-teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolamenduko taldeekin lankidetzan jardutea. - Laneko dokumentuak osatzeko prestasuna. - Jarraibideak betetzeko ardura, interpretazioari zein gauzatzeari dagokienean.

2. EKITALDI EDO IKUSKIZUN BATEN EKIPO TEKNIKOEN ETA ARTISTIKOEN LANEKO PROZESUEN ZUZENDARITZA PROZEDURAK DISEINATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eszenaratzean kudeaketa-prozedura aplikatzea. - Entseguen gela markatzeko teknikak aplikatzea. - Entseguetan sortutako Informazioa emateko teknikak aplikatzea. - Laneko plana aplikatzea eta bere jarraipena egitea. - Entseguetan elementu eszenikoak gainbegiratzeko eta kontrolatzeko prozedurak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzendaritzako teknikak eta estiloak. - Ekitalditan eta ikuskizunetan motibazio-teknikak eta gidaritza. - Funtzionamendu-arauak: <ul style="list-style-type: none"> • Sartzeko arauak. • Segurtasuna eta lan-arriskuak. • Kontrola, egiaztatzea eta betetzea. - Interpretazio-teknikak eta -estiloak. - Entseguetan elementu eszenikoak gainbegiratzeko prozedurak.
jarrazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolamenduko taldeekin lankidetzan jardutea. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Jarraibideak betetzeko ardura, interpretazioari zein gauzatzeari dagokienean.

3. EKITALDI EDO IKUSKIZUN BATEN ENTSEGUETAN ESKU HARTZEN DUTEN TALDEEN ZEREGINAK EZARTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Teknikariei eta antzezleei esku-hartze zuzendaritzak analizatzea. - Ekitalditan eta ikuskizunetan pertsonaien mugimenduak eta desplazamenduak adieraztea. - Ekitaldi edo ikuskizun bat osatzen duten ekintza guztiak kontrolatzeko eta finkatzeko teknikak aplikatzea. - Entseguetan kudeaketa-liburua eguneratzea. - Entseguetan zehar interpretazioan aldaketak finkatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ekitalditan eta ikuskizunetan talde-lanaren ezaugarriak. - Teknikariei eta antzezleei zuzendutako esku-hartze zuzendaritza. - Entseguetan zehar interpretazioko aldaketak finkatzea. - Entseguetako aldaketa teknikoaren kontrol-teknikak. - Ekitaldi edo ikuskizun bat osatzen duten ekintza guztiak kontrolatzeko eta finkatzeko teknikak. - Teknikarien eta artisten eguneroko zereginak eguneratzeko prozedurak.
jarrazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolamenduko taldeekin lankidetzan jardutea. - Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Eduki teorikoak aplikatzearen ondoriozko motibazio-xedapena.

4. EKITALDIA EDO IKUSKIZUNA HASI AURREKO JARDUERAK GAINBEGIRATZEKO PROZEDURAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Teknikarien eta artisten iristeen kontrola kudeatzea. - Orrazketa teknikoaren errealizazioa gainbegiratzeko teknikak aplikatzea. - Aretoaren irekitzea planifikatzea: oharrak eta prebentzioa. - Jendearen harrera-prozesua kudeatzea.
-----------------------	---

	- Antzezpenean segurtasuna gainbegiratzea eta kontrolatzea.
kontzeptuzkoak	- Ekitaldia edo ikuskizuna hasi aurreko jardueri buruzko kontrol orokorreko teknikak: <ul style="list-style-type: none"> • Gainbegiratzeko jarduerak. • Prozedurak eta jarduerak ebaluatzea. - Orrazketa teknikoaren errealizazioa gainbegiratzeko teknikak. - Seinalatzeko eta komunikazioko sistemak kontrolatzeko teknikak. - Antzezpenean segurtasuna kontrolatzeko prozedurak.
jarrerazkoak	- Sortuko diren gertakizunei soluzioak bilatzeko ekimena. - Jarraibideak betetzeko ardura, interpretazioari zein gauzatzeari dagokienean. - Eszenako lanean segurtasun-arauak identifikatzea.

5. ANTZEZPENEAN JARRAITU BEHAR DITUZTEN EKINTZEN ORDENA EZARTzea

prozedurazkoak	- Ekitalditan eta musikako (pop-rock, klasikoa eta sinfonikoa) eta ikuskizunetako (antzerkia, dantza eta lirika) antzezpenean prozesu espezifikoak lantzea eta kudeatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Aktoreen, kantarien, abesbatzen, dantzarien, figurazioaren, aurkezleen eta parte-hartzaileen sarrera eta irteerako ordenak. • Dekoratu mekanismoen sarrerako eta irteerako ordenak. • Dekoratu-aldaketen ordena. • Argi, soinu eta ikus-entzunezko efektuen ordena. • Eszena-tresneriako eta jantzitegiko aldaketen ordenak. - Antzezpeneko zatiko elementuen denboren kontrola aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Antzezpen bat abian jartzeko faseak edo ekintzak. - Tipologiaren arabera ikuskizunen antzezpenean ematen diren prozesuak. - Ekitaldietan eta ikuskizunetan gertakizunak kontrolatzeko prozedurak. - Jendea biltzen den lokaletan Ebakuatzeko eta Segurtasuneko Plana aplikatzeko teknikak.
jarrerazkoak	- Sortuko diren gertaerei soluzioak bilatzeko ekimena. - Jarraibideak betetzeko ardura, interpretazioari zein gauzatzeari dagokienean. - Eszenako lanean segurtasun-arauak identifikatzea.

6. EKITALDIAREN EDO IKUSKIZUNAREN ANTZEZPENA BALORATZEKO ETA IXTEKO PROZEDURAK

prozedurazkoak	- Funtzioaren inguruko egunero jakinarazpenak edo txostenak egitea. - Gorabeherak konpontzea: <ul style="list-style-type: none"> • teknikak. • artistekin. - Amaierako kudeaketa-liburua osatzeko prozedurak aplikatzea. - Materialak aukeratzeko prozedurak aplikatzea haiek artxibatze eta katalogatzeko.
kontzeptuzkoak	- Eguneroko taularen irudikapena eguneratzeko teknikak. - Gorabeheren parteak. - Ekitaldiaren eta zuzeneko ikuskizunaren balantzea: amaiera eta balorazioa. - Artxibatze, erregistratzeko eta katalogatzeko teknikak.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sortuko diren gertaerei soluzioak bilatzeko ekimena. - Jarraibideak betetzeko ardura, interpretazioari zein gauzatzeari dagokienean. - Eszenako lanean segurtasun-arauak identifikatzea.
--------------	--

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Jarduera praktikotan oinarritutako sekuentziazioa finkatzeko, modulu hau proiektu baten barruan lantzea gomendatzen dute, hala nola, antzerki-obra bat edo beste edozein motatako ikuskizuna, blokeen prozedurazko edukiak aplikatu ahal izateko.

Entseguan parte hartuko duten elementu teknikoak, materialak eta pertsonalak prestatzea lantzen duen **1. multzotik** hastea gomendatzen dute, beharrezko dokumentazio guztiaren ezaugarriak aztertuz.

1. multzo hau **2. multzoko** prozedurazko hainbat alderdirekin batera lantzea gomendatzen dute, hala nola, markatzeko teknikekin, informazioa transmititzearekin eta eszenaratzean kudeaketa-prozedura aplikatzearekin batera. Multzo honetan bertan, laneko prozesuetan zuzendaritzaren papera eta entseguetan elementu eszenikoak gainbegiratzeko prozedurak ezartzea komeni da.

Horrenbestez, aipatutako alderdi horiei esker, **3. multzoko** eta **5. multzoko** edukiak aldi berean eta beharrezkoa denean garatzea ahalbidetzen dute. **3. multzoan** koordinazioari buruzko gaiak emango dituzte. Zuzendaritzaren lanaren bitartez interpretarien eta teknikarien parte-hartzea antolatzen da, ekitaldi edo ikuskizun bateko entseguetan haien erantzukizunak ezarriz. Ikuspegi didaktikotik entsegu-denbora hori ikaskuntza-prozesu gisa baloratuko dute, lanbidearen hiztegi espezifiko eta berezko komunikazio-kodeak erabiliz. Entseguetan zehar kudeaketa-liburuan alderdi teknikoak eta artistikoak eguneratuz, ikasleek ekitaldiaren edo ikuskizunaren eboluzioa edo aurrerapausoa hobetzen jarraitu ahal izango dute. **5. multzoarekin** alternantzia justifikatzen da, antzeppen batean jarraitu behar dituzten ekintzen ordena multzo honetan finkatzen delako. Multzo honetan ikasleak zehaztu ahal izango ditu ekitalditan, musikako antzeppenetan (pop-rock, klasikoa eta sinfonikoa) eta ikuskizun-antzeppenetan (antzerkia, dantza eta lirika) jarraitzen dituzten ordenen zerrendak edo prozesu espezifikoak.

Faseak, ekintzak eta dagozkien ordenak antolatu ondoren, ekitaldia edo ikuskizuna hasi aurreko jarduerak gainbegiratzeko ahalbidetuko duten plangintzari eta kudeaketari buruzko **4. multzoko** edukiak aurkez daitezke.

Azkenik, ikuskizunaren balantzeari buruzko errealizazioari, eta ixteko prozedurei buruzko **6. multzoan** dauden edukiak garatuko dituzte. Multzo honetan bertan amaierako kudeaketa-liburua osatzeko prozedurak, eta katalogatzeko eta artxibatze teknika azaltzen dituzte.

2) Alderdi metodologikoak

Eszenarekin, musikarekin edo ekitaldiekin lotutako zuzeneko ikuskizunak antzeztean agente teknikoen eta giza agenteen koordinazioari eta entseguen errealizazioari dagozkien funtzioak garatzen dituzte modulu honetan. Helburu horrekin, ikasleek lan-taldeak osa ditzaten eta proiektu honen errealizazioa burutu dezaten gomendatzen dute.

Antzerki-lan baten eszenaratzea izan daiteke erreferentzia gisa emandako proiektu-adibide bat. Eszena-gomendio hau lanbide-heziketako ikastetxe baten aukeretara hobeto egokitu daitekeela dirudi, ekitaldi-aretoa eta, tarteka, ikasgela osagarriak erabil ditzaketelako. Talde guztietan ikasle bakoitzak zeregin bat edo profil bat izan dezan, eta bere erantzukizuna finkatua egon dadin gomendatzen dute, laneko egoera errealak simulatzeko aukera emanez.

Antzerki, musika eta ekitaldi artistikoen antzeppenak bezalako mota diferentetako ekitaldiak, musika-produkzioak eta arte eszenikoko ikuskizunen proiektuak errealizatzeko teknikak landu beharko dituzte ikasleek. Teknika horiek irakaskuntza-ikaskuntza jarduerekin lotuta egongo dira, eta antzeppenetan eta entseguetan ekipo teknikoaren eta artistikoen lanen koordinazioa, kudeaketako alderdiak eta amaierako lantze teknikoak jorratuko dituzte. Atal honekin lotuta, irakasleek ikasleak adierazpen-modu berrietan sakontzera bultzatuko dituzte, ikuskizunen proiektuen errealizazioari dagokionean. Ikerketa-lanaren ondorioz, ikasleek egindako ekarpen horiek, aldizka, gainerako ikaskideekin partekatu ahal izango dituzte. **“Ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketaren plangintza”** moduluan bezala, abian jarriko dituzten ekitaldien edo ikuskizunen proiektuetan profesionalki erabilitakoarekin bat etorriko den dokumentazio estandarizatua erabiltzea gomendatzen dute.

Aipatutako funtzioen eskuduntzak errazago eskuratzeko, irakaskuntza-ikaskuntzako jarduerak **“Ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketaren plangintza”** moduluarekin koordinatzea komeni da. Horrenbestez, alderdi metodologikoak erreferente komun gisa har daitezke plangintzako edukietan.

Illo horretatik, bi moduluak denboran aldi berean ematea gomendatzen dute, jarduera bateratuak programatu ahal izateko. Bi moduluen arteko diferentzia handiena da **“Ikuskizunak eta ekitaldiak zuzentzeko prozesuak”** moduluak lanaren antzeppena eta exekuzioa abian jartzen dela esan nahi duela, bere eskuduntza-unitateetako baten enuntziatuan adierazten den moduan: “Lokal finko batean eta biretan zuzeneko ikuskizunak eta ekitaldiak burutzen prozesu teknikoak eta artistikoak gainbegiratzea eta zuzentzea”.

Zuzeneko behaketaren ondoriozko ikasketak oso garrantzitsuak direnez, antzokiak edo ikuskizunetarako prestatutako beste antzepleku-mota bat bezalako ingurune profesionalak bisitatu behar dira. Enpresarekin sortutako harreman horri esker, ikasleek lanaren egoera errealak, arazoei aurre egiteko moduak, eta tokian bertan zalantzak konpontzeko aukerak ezagutuko dituzte.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Elementu teknikoak, materialak eta pertsonalak prestatzea:
 - Kudeaketa zuzendaritza teknikoarekin eta artistikoarekin koordinatzea.
 - Aldaketen kontroleko eta entseguen errealizazioko dokumentazio teknikoak.
 - Kudeaketa-liburua eguneratzea eta kudeaketa-gidoia errealizatzea.
- ✓ Honako gai hauei buruzko zuzendaritzako prozedurak aplikatzea:
 - Eszenaratzeko kudeaketa.
 - Entseguen gela markatzeko teknikak.
 - Sortutako informazioa transmititzeko teknikak eta entseguetan aldaketa teknikoak kontrolatzeko teknikak.
 - Entseguaren ondoren ekintza guztiak kontrolatzeko eta finkatzeko teknikak.
 - Seinalezatzeko eta komunikazioko sistemak kontrolatzeko teknikak.
 - Gorabeherak aurreikustea.



- Errealizazioa abian jartzea, ekitaldi bertako edo artisten (aktoreak, kantariak, aurkezleak eta abar) sarreren eta irteeren ordena ezartzea, dekoratuko makinak, argi-efektuak, soinu-efektuak eta ikus-entzunezko efektuak, eta jantzitegiko eta tresneriako aldaketei dagozkienak.
 - Jendea biltzen den lokaletan Ebakutzeko eta Segurtasuneko Plana aplikatzeko teknikak.
- ✓ Ekitaldiaren edo ikuskizunaren antzezpena baloratzea:
- Funtzioaren inguruan egunero jakinarazpenak edo txostenak egitea.
 - Amaierako kudeaketa-liburua lantzea.
 - Ikuskizunaren balantzea egitea. Amaiera eta balorazioa.

9. lanbide-modulua ⁹

IKUS ENTZUNEZKO ETA ESZENAKO BALIABIDE TEKNIKOAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ikus-entzunezko eta eszenako baliabide teknikoak
Kodea:	0910
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	165 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua
Helburu orokorrak:	2.a / 14.a / 15.a / 17.a / 22.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ikuskizuneko eta ikus-entzunezkoetako proiektutan erabili behar dituzten argi- eta eszenoteknia-ekipoen baldintza teknikoak zehazten ditu, eta, horretarako, bere ezaugarri funtzionalak eta eragileak analizatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Emisio-teknologiarekin, fotometriarekin, kolorimetriarekin, argi-sorta motarekin, tentsioarekin, potentziarekin eta argi-eraginkortasunarekin lotutako ikuskizuneko, agertokiko eta ikus-entzunezko hainbat proiektutan beharrezkoak diren iturri naturalen, gorien, fluoreszenteen eta deskargakoen ezaugarriak ebaluatu ditu.
- Ikuskizunetako, eszenako eta ikus-entzunezko proiektutan, kokalekuen, eszenen, dekoratuen, aurkezleen, gonbidatuen, ikusleen eta antzezleen gainean, argiteriaren efektuak alderatu eta definitu ditu zuzeneko argi, argi errefraktatu, argi islatu eta argi modularreko tresna finkoekin zein robotizatuekin.
- Potentziari, fase elektrikoei, kable-sekzioei, konektoreei, koadro elektrikoei eta lineen banaketari dagokienean multzo elektrogeno edo elektrizitate-hartuneko aukerak definitu ditu, ikuskizunen eta ikus-entzunezkoen proiektutan.
- Telebistako, antzezteko eta ikuskizunetako proiektutarako mahai-argien eta dimmer-en konfigurazio diferenteak zehaztu ditu, bertan sartutako argi-materialaren, eta adierazpeneko eta dramatikako asmoen arabera.

- e) Ikuskizunetako, eszenako eta ikus-entzunezko proiektutan erabilitako argi-aparatu moten gainean, kolore efektuen iragazkien, eta kolore-tenperaturako bihurkarien, neutroen eta barreiatzaileen erabilera zehaztu du.
- f) Ikuskizun, eszena, telebista eta zinematografiako hainbat proiektutara egokitutako eszena-makineria eta elementu eszenografiakoak definitu ditu.

2. Ikus-entzunezko proiektutan erabiliko dituzten telebistako, bideoako eta zinemako irudiak jasotzeko ekipamenduaren ezaugarri teknikoak zehazten ditu, eta, horretarako, bere ezaugarri funtzionalak eta operatiboak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Helburuen parametro teknikoak eta enkoadraketaren elementu morfologikoen gainean dituzten efektuak erlazionatu ditu.
- b) Ikus-entzunezko grabazio edo filmazio-motetarako egokiak diren pelikula fotokimikoan, zinta magnetikoan, disko optikoetan, memoria-txarteletan eta disko gogorretan erregistroko alternatibak justifikatu ditu.
- c) Segundoko irudiei, esplorazioari, definizioari, itxura-erlazioari eta formatuari dagokienean bideoan eta zineman proiektu diferenteetarako egokiak izango diren kameran ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Ikus-entzunezko proiektuekin eta hauen argizatze-baldintzekin lotuta, bisore-doikuntzak, matrize digitaleko doikuntzak, beltzen maila, buxadura-denborak, kolore-tenperaturara moldagarritasuna eta argi-sentsibilitateari dagokionean, kameran gaitasunak ebaluatu ditu.
- e) Kamerek eskaintzen dituzten denbora-kodeen aukerak, kamera batekin edo gehiagorekin grabaziotan denbora-kodeen erregistro-metodoak, eta ondoren egingo dituzten laborategiko eta postprodukzioko prozesuak erlazionatu ditu.
- f) Kameran klipen katalogazio eta kudeaketa digitaleko aukerak ebaluatu ditu.
- g) Kameran edo audioko ekipo espezifikotan soinua jasotzeko baldintzak definitu ditu, eta kameran kanpoko sarrerak eta bere mikrofonoen monitorizatzeko, kontrolatzeko eta doitzeko beharrak zehaztu ditu.
- h) Filmaketa edo grabazioko baldintzekin lotuta, kamera-euskarriak ebaluatu ditu, eta kamera-mugimenduen oinarri narratibo eta estetikoekin erlazionatu ditu.

3. Ikus-entzunezko proiektuetan, antzezpenetan, ikuskizunetan, musika-grabaziotan eta irrati-programetan soinu egokiko ekipamenduaren ezaugarri teknikoak zehazten ditu, eta, horretarako, bere ezaugarri funtzionalak eta operatiboak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dramatikako eta komunikazioko asmoen, soinuak jasotzeko edo zabaltzeko ekipamenduaren eta espazioen ezaugarri akustikoen arabera, ikuskizunetako eta ikus-entzunezko proiektutan beharrezko osagaien eta mikrofonoen ezaugarri teknikoak definitu ditu.
- b) Ikuskizunen eta ikus-entzunezko proiektutan erabiliko dituzten audioko erregistroko eta grabazioko ekipoen eta bozgorailuen, potentzia-etapen, banagailuen, anplifikadoreen, nahaste-mahaien, informatikako ekipoen, erreprodukzio-ekipoen eta mikrofonoen baldintzen arabera, kable- eta konektore-mota diferenteekin audio-lineen beharrak justifikatu ditu.
- c) Zinematografiako filmaketetan eta ikus-entzunezko grabaziotan zuzeneko soinu-erregistroko ekipoen eta audio-mahaien konfigurazio diferenteak egokiak direla justifikatu du.
- d) Telebistako zuzeneko programetan eta grabaziotan anplifikazio-ekipoen eta audio-mahaien, zuzeneko ikuskizunen eta antzezpenen beharrak zehaztu ditu, estudioen, aretoen eta hainbat espazioen baldintza akustikoak kontuan hartuz.

- e) Musikako, bikoizketako eta soinu-efektutako estudiantako grabaziotan, audio-ekipamenduko konfigurazioen zehaztapen teknikoak eta ezaugarri operatiboak definitu ditu.
- f) Irrati-programetarako eta musika-grabazioaren proiekturako, irrati-estudioaren eta grabazio-estudioaren konfigurazioen egokitasuna justifikatu du.

4. Errealizazio-kontrolaren baliabide teknikoaren konfigurazioa zehazten du, eta, horretarako, telebista-programetan multikamerako hainbat estrategiatara egokitzen du, eta bere ezaugarri funtzionalak eta eragileak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarraitutasuneko kontrolaren eta unitate mugikorren, telebistako platoa eta errealizazio-kontrolaren konexioen eta ekipoen diagrama justifikatu ditu.
- b) Bideo-nahasgailuen eta hauen gaitasunen ezaugarriak ebaluatu ditu, sarrerako lineak aukeratzeko eragiketari, sinkronizazioari, oinarriko busei eta osagarriari, trantsizioei, inkrustazioei, DSKri eta efektu digitalei dagokienean.
- c) Telebistako programetan audio-mahaiaren sarrerako lineen beharrak, eta kontrolean eta estudioan mahai horretatik hainbat lekutara egindako bidalketak definitu ditu.
- d) Errealizazioaren postuen, kameraren, kudeaketaren, audio-mahaiaren, bideo-errekuzioaren eta -grabazioaren, kameraren kontrolaren, argi-kontrolaren, grafismoaren eta kanpoko konexioen arteko komunikazio-eskema diseinatu du.
- e) Bideoaren eta audioaren euskarrien eta formatuen aukeraketa justifikatu du, bai eta audio segi bideo motako, eta bideo eta audio kapsulatuko teknologia ere.
- f) Kameraren eta euren kontrol-unitateen espezifikazioak ebaluatu ditu, eta hainbat programa grabatuta eta zuzeneko emisiotan irudien doikuntza-eragiketari justifikatu ditu.
- g) Eszenografia birtualeko sistemen gaitasun teknikoak, eta kamerekin eta irudi-nahasgailuarekin duten lotura zehaztu ditu.

5. Edizio, grafismo, animazio, efektu, soinu-zuzentze, formatu-aldaketa eta amaierako prozesuen baldintzen arabera, ikus-entzunezko proiektuan postproduktzioaren ekipamendua zehazten du, eta, horretarako, bere ezaugarri funtzionalak eta eragileak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Postproduktzioaren ekipamenduaren ezaugarri eragileak eta espezifikazio teknikoak, batetik, eta zinema, bideo eta telebistako proiektuan muntatze- eta edizio-metodologiak diferentek, bestetik, erlazionatu ditu.
- b) Muntatzeko eta postproduktzioaren hainbat proiektuan edizio linealaren eta edizio ez-linealaren egokitasuna justifikatu du.
- c) Edizio ez-linealeko ekipa baten multzoen diagrama eta edizio-sistema, bere periferikoak, sareetara eta zerbitzarietara konexioa, magnetoskopiorekin edo beste erreproduktore, grabagailu eta matrize batzuekin konexioak diseinatu ditu, jasotzeko edo digitalizatzeko, editatzeko eta helburu duen euskarrira iraultzeko prozesuen eraginkortasuna ziurtatuz.
- d) Ikus-entzunezko proiektuak banatzeko euskarrietan eta edizio-prozesuan erabili behar dituzten erakusketa-estandarrei, fotograma nagusiei, audio- eta bideo-codecei, bit-tasei, konprimatze-estandarrei, kuantifikazioei, laginketa-maiztasunei, ustiapenari, formatuei eta grabazioaren euskarriari dagokienean, edizio-proiektuaren erabakiak justifikatu ditu.
- e) Postproduktzio-prozesuaren amaieran entregatuko dituzten materialen aukera teknikoak finkatu ditu, ikus-entzunezko hainbat proiektuan banatzeko kanaletarako, laborategitarako eta beste enpresa batzuetarako *offline* eta *online* grabazioak eta edizio-erabakien zerrendak barne hartuz.
- f) Editore ez-linealaren gaitasunak eta postproduktzioaren proiektuen exigentziak erlazionatu ditu, proiektu-aurkerari, formatu diferentek onartzeari, audio- eta bideo-

pistei, trantsizioei, efektuei, sinkronizatzeko eta orekatzeko gaitasunei, prozesatzenborei, errotulazioko eta integrazioko ahalmenei dagokienean, grafismoko, konposizio bertikaleko eta 3Dko aplikazioekin.

- g) Ikus-entzunezko proiektuak soinuatzeko prozesutan beharrezkoak diren audioko postprodukzio-aplikazioak eta ekipamenduko ezaugarriak ezarri ditu.
- h) Telebistako albistegitako funtziotara egokitutako albisteak editatzeko sistema birtualen aukera teknikoak eta operatiboak zehaztu ditu.

6. Multimedia-proiektutan ekipamendu teknikoaren egokitasuna definitzen du, eta, horretarako, bere espezifikazioak ebaluatzen ditu, eta proiektuen beharrekina eta ingurunearen errekerimenduekin lotuta bere gaitasunak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prozesadorei, memoriari, disko gogorrari, grabatzeko eta erreproduzitzeko unitate optikoei, txartel grafikoari, pantailari eta periferikoei dagokienean, multimediako proiektutarako informatikako ekipoen zehaztapenak definitu ditu.
- b) Informatikako ekipoa sarean konfiguratzeko beharrak, zerbitzaria/bezeroak erlazioak, biltegitzeko eta segurtasuneko kopiarako metodoak, eta, funtzioen arabera, multimedia-proiektuko kideentzako baimenen protokoloak zehaztu ditu.
- c) Irudien tratamenduko aplikazioen gaitasun teknikoak eta eragileak, bektore-ilustrazioa, 2D animazioa, 3D animazioa eta modelatzea, diseinu interaktiboa, web diseinua, bideo-edizioa eta egilea justifikatu ditu, hainbat proiektu interaktiborekin, ikus-entzunezko web-diseinukoekin, bideojokoetakoekin, eta DVDn egiletasunekoekin eta beste euskarri batzuekin erlazionatuz.
- d) Multimediako hainbat proiektutara egokituta, bideo-erreproduktoreen, audio-lineen, mikrofonoen, eskanerren eta argazki-kameren bitartez eskuratutako baliabideetarako, irudi, audio eta bideo artxiboko formatu eta aukera zehatzak erabiltzea justifikatu du.
- e) Eskuragarritasun-maila diferenteko erabiltzaileen beharrak eta ustiapen-baliabideen exigentzia teknikoak zehaztu ditu, eta multimedia-aplikazioen irteera-aukerak haietara egokitu dira.

7. Edozein euskarri edo sistema bidez emitituko edo banatuko dituzten ikus-entzunezko eta multimediako programen ezaugarri interaktiboak, multikanalak eta multimediak, eta aukera teknikoak definitzen ditu, eta, horretarako, haien ezaugarri teknikoak aztertzen ditu eta aukerak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) LTD, IPTV, satelite, kable, *streaming*, *podcast* eta telefonia mugikor bidez emango dituzten telebistako programak konfiguratzeko aukerak eta zerbitzu teknikoak definitu ditu, euren parametroen arabera.
- b) Emisio analogiko, DAB irrati digitaleko estandar, LTD, *streaming*, *podcast* eta telefonia mugikor bidez emango dituzten irrati-programen aukera teknikoak justifikatu ditu, sistema bakoitza definitzeko parametro teknikoak betetzeari dagokienean.
- c) *Set-top-box*, deskodegailu interaktibo, telefono-linea, SMS, Internet edo kable bidez telebista interaktiboko programetan itzulera-kanaleko beharrak eta euren aukera teknikoak justifikatu ditu.
- d) Euskarri-motari, edukierari, bideo-formatuei, audio eta bideo kodifikazioari-deskodikazioari, biten tasari, eskualdeei eta bateragarritasunari dagokienean, euskarri digitalen bitartez hedatu behar dituzten ikus-entzunezko produktuak konfiguratzeko aukerak zehaztu ditu, bai eta egiletzako eta nabigazioko baldintzak ere.
- e) Euskarri digitalen bitartez zabalduko dituzten musika-produktuen konfigurazio-aukerak justifikatu ditu, euskarri-motari, modulazioari, laginketa-maiztasunari,

kuantifikazioari, seinale-zarata erlazioari, maila dinamikoari, grafikoei eta menu interaktiboiei dagokienean.

- f) Internet, LTD, telefonia mugikor eta euskarri digitalen bitartez hainbat plataformatarako zabalduko dituzten bideojoko eta proiektu interaktiboen ezaugarri teknikoak finkatu ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. IKUSKIZUNETAN ETA IKUS ENTZUTEZKO HEDABIDETAN BEHARREZKOAK DIREN ARGITERIAKO ETA ESZENOTEKNIKO EKIPOEN BALDINTZA TEKNIKOAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Argi-iturri naturalen eta artifizialen neurketa fotometrikoak. - Argi-iturri naturalen eta artifizialen kolore-tenperaturaren neurketak. - Ikuskizunak eta ikus-entzunezko hedabideak argitzeko instalaziotan konfigurazio elektrikoak eta diagramak interpretatzea. - LED, fluoreszentzia, deskarga, goritasun-lanparak eta ikus-entzunezkoak argitzeko iturrien katalogoen interpretazio teknikoak. - Eszenoteknia eta argitzeko <i>softwarea</i> ebaluatzea. - Eszenako makineria konfiguratzea eta funtzionatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Argiaren fisika. Argi-iturri naturalen eta artifizialen kolore-tenperaturak. - Kolorimetria: magnitudeak eta neurtzeko tresnak. - Fotometria: magnitudeak eta neurtzeko tresnak. - Argiaren adierazpen-kalitatea: <ul style="list-style-type: none"> • Argi zuzena. • Argi errefraktatua. • Argi islatua. - Kolore-tenperaturako bihurketak: iragazkien bitarteko doikuntzak. - Ikuskizunetan eta ikus-entzunezko hedabidetan argi-instalaziotarako elektrizitate aplikatua. - Fluoreszentzia, deskarga eta inkandeszentziako lanparak eta ikus-entzunezkoak argitzeko iturriak. - LED teknologia argiterian. - Ikuskizunetarako eta ikus-entzunezko hedabidetarako argiteria-ekipoak: sorta irekiko proiektoreak, lentedun proiektoreak, argi arineko islagailuak, tresna modularrak eta robotizatuak. - Eszenoteknia eta antzerki-arkitektura.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuaren espezifikazioak ikustea. - Azaleratzen diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa. - Terminologia teknikoa erabiltzen zehaztasuna.

2. ZINEMAN, BIDEOAN ETA TELEBISTAN IRUDIA JASOTZEKO EKIPOEN EZAUGARRI TEKNIKOAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zineman eta bideoan erabilitako foku-distantzien errendimenduari buruzko dokumentazio teknikoa analizatzea. - Bideo digitaleko erregistro-sistemen ezaugarri teknikoak zenbatzea. - Bideokamera baten eskuliburuaren ezaugarri teknikoak interpretatzea. - Zine-kamera baten eskuliburuaren ezaugarri teknikoak interpretatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zinemako eta bideoko helburuak: motak, parametroak eta osagarriak.

	<p>Ikus-entzunezko produktiotan erabilitako helburuen ezaugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Foku-distantziak. • Optikaren eta enkoadraketaren arteko erlazioa. • Eremu-sakontasuna. • Eremu-sakontasunean eragiten duten faktoreak (irekiera, milimetrajea, eta fokatze-distantzia). <p>- Irudia jasotzeko teknologietarako erregistro-euskarri egokiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bideoa: <ul style="list-style-type: none"> ○ Formatuak: Movie (MOV), AVI, MPEGs. ○ Txartelen tipologia: SD / SDHC, P2, Flash... • Zinema: ASA sentsibilitatea eta kolore-tenperaturak. <p>- Erregistro-ekipoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bideokameren ezaugarri teknikoak eta errendimendua. • Zine-kameren ezaugarri teknikoak. <p>- Zine-kameren eta bideokameren euskarriak. Eskuzko kamerarako osagarriak, <i>steadycam</i>, <i>bodycam</i> eta antzekoak.</p> <p>- Elementu osagarriak: <i>travelling</i>, <i>dollies</i>, lumak, garabiak eta buru beroak.</p> <p>- Kamera-sistema robotizatuak.</p>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuen espezifikazioak ikustea. - Azaleratzen diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa. - Terminologia teknikoa erabiltzen zehaztasuna.

3. IKUS ENTZUNEZKO HEDABIDETAN, IRRATIAN ETA IKUSKIZUNETAN SOINU EGOKIKO EKIPAMENDUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mikrofono-mota diferenteekin soinua jasotzeko probak egitea. - Ikus-entzunezko, irrati eta ikuskizunetako proiektutan, inguruneko ezaugarri akustikoen edo nahi den emaitzaren arabera mikrofonoak aukeratzea. - Ikus-entzunezkoetarako, ikuskizunetarako eta irratiarako audio-mahai analogikoekin eta digitalekin oinarritako eragiketak egitea. - Telebistako eta irratiako estudiantarako eta agertokitarako anplifikazioa eta lineak konfiguratzea. - DVD-RAM, disko gogor edo memoria-txartelean audio-grabagailuen ezaugarri teknikoak analizatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Audio-seinalearen parametroen unitateak eta neurriak. - Seinalea modulatzea (AM, FM, PCM, eta abar) - Audio-seinalea grabatzeko eta gordetzeko formatuak: <ul style="list-style-type: none"> • Digitala. • Analogikoa. - Ikus-entzunezko, irrati eta ikuskizunetako proiektutan soinua jasotzeko mikrofonoen ezaugarri tekniko orokorrak. - Ikus-entzunezkoetarako, ikuskizunetarako eta irratiarako audio-mahai analogikoen eta digitalen zerbitzu teknikoak. <ul style="list-style-type: none"> • Ateak. • Erreberberadoreak. • Ekualizadoreak. • Ekipoen sinkronizagailuak. - Telebistako estudiantan, grabazio-estudiantan, irratian, ikuskizunetan eta espazio eszenikotan audioa anplifikatzea. - Zinematografiako eta ikus-entzunezko zuzeneko soinurako, musika-grabaziotarako, eta telebistako eta irratiako programetarako audioko erregistro digitaleko ekipoak. - Irrati-estudioen eta grabazio-estudioen konfigurazioaren ezaugarriak.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuen espezifikazioak ikustea. - Azaleratzen diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa. - Terminologia teknikoa erabiltzen zehaztasuna.
--------------	--

4. TELEBISTAKO JARRAITUTASUN KONTROLA, UNITATE MUGIKORRA ETA ERREALIZAZIO KONTROLEKO BALIABIDE TEKNIKOEN KONFIGURAZIOA ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errealizazioko kontrol-sistema bateko ekipoen eskuliburu teknikoak interpretatzea: bideo-nahasgailuak, sinkronismo-sorgailuak, matrizeak edo bideoko Patch Panel aurresektoreak, kamerak eta kameren kontrol-unitateak, bideo-erreproduktoreak eta grabagailuak, titulatzaileak, <i>autocue</i> sistemak eta eszenografia birtualeko sistemak. - Errealizazioko kontrol-sistema bateko ekipoen artean konektatzeko multzo-diagramen interpretazio teknikoa. - Jarraitutasuneko sistema informatikoaren eta ekipoen arteko lotura. - Kamera baten elementu teknikoaren konfigurazioa eta doikuntza: <ul style="list-style-type: none"> • TBko estudioan. • emankizunean. - CCU bidez seinalea egiaztatzea eta doitzea. - Baliabide teknikoaren artean konexioak egitea, nahi dugun konfigurazioaren arabera, eta ondo funtzionatzen duela eta seinalea ondo jasotzen dela egiaztatuz.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Nahasgailuen ezaugarri teknikoak, sinkronismo-generadoreak, Patch Panel, bideo-aurresektoreak, kamerak eta CCUK, magnetoskopia, tituladoreak, <i>autocue</i> sistemak eta eszenografia birtualeko sistemak. - Telebistako jarraitutasun-kontrolako audio- eta bideo-ekipamendua. - Emanaldietan eta estudioan telebista-kameren ezaugarri teknikoak. Zuri-balantzea, beltz-balantzea, tenperatura-iragazkiak, NDak, audioko eta bideoko puntako seinaleak, esposizioa konpentsatzeko sistemak... - Kameren kontrol-unitateen eta kontrol eragileen ezaugarri teknikoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuen espezifikazioak ikustea. - TBko eta bideoko seinalearen erreferentziako neurri zuzentzaileen aplikazioan zorrotasuna. - Teknologia berriak ikertzeko interesa.

5. IKUS ENTZUNEZKO PROIEKTUTAN POSTPRODUKZIO EKIPAMENDUA ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Magnetoskopia digitalen ezaugarri eragileen interpretazio teknikoa. - Bideo-lineen editoreen ezaugarri eragileen interpretazio teknikoa. - Postprodukzio-gela ez-linealen konfigurazioak analizatzea. - Edizio ez-linealeko proiektuko konfigurazioak analizatzea. - Edizio ez-linealeko proiektuaren irteerako konfigurazioak analizatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Magnetoskopia digitalen ezaugarri teknikoak eta eragileak. - Bideo editore linealen ezaugarri teknikoak eta eragileak. - Postprodukzio ez-linealeko gelen ekipamendua. - Edizio ez-linealeko aplikazioen ezaugarri teknikoak eta eragileak. - Zinematografiako eta ikus-entzunezko postprodukzio-proiektutan edizio linealaren eta edizio ez-linealaren egokitasuna zehazteko faktoreak.

	<ul style="list-style-type: none"> - Albisteak idazteko eta editatzeko sistema birtualen ezaugarri teknikoak eta eragileak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio teknikoko eta eskuliburuen espezifikazioak ikustea. - Ekipoen eboluzio teknikorako interesa.

6. MULTIMEDIA PROIEKTUTAN EKIPAMENDU TEKNIKOAREN EGOKITASUNA DEFINITZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Multimedia-produkzioko <i>software</i>aren ezaugarriak eta prestazioak ebaluatzea. - Multimedia-proiektuaren eragiketa teknikoak baldintzatzen dituzten helburuko baliabideen ezaugarriak analizatzea: pantaila-tamainak, audio- eta bideo- baldintzatzaileak, bideo- eta audio-formatuak, eta irisgarritasuneko eta erabilerako baldintzak. - Multimedia-produkziorako ekipoen sistema bat konfiguratzeko. - Multimedia-produktu bat sortzeko faseak analizatzea, <i>hardware</i> eta <i>software</i>ko beharrak antzemanaz.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Multimedia produkzioarako ekipamendu informatikoaren ezaugarri teknikoak. - Biltegiratzeko sistemak: tipologia eta zerbitzuak. - Sarrerako eta irteerako <i>hardware</i>a: eskanerren zerbitzuak, tableta grafikoak eta inprimagailuak. - Multimedia-proiektutarako egokiak diren bideo, audio eta irudiko artxibo-formatuak. - Multimedia-produktuak sortzeko egile-tresna bereziak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Azaleratzen diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa. - Multimedia-produkzioan ekipo eta konfigurazio egokiak ikertzeko jakin-mina.

7. MULTIMEDIAKO ETA IKUS ENTZUNEZKO PROGRAMEN AUKERA TEKNIKOEN, ETA MULTIMEDIA ETA MULTIKANAL EZAUGARRIEN ETA EZAUGARRI INTERAKTIBOEN DEFINIZIOA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bideo-seinalea deskribatzea eta analizatzea. - Seinale analogikoen eta digitalen arteko diferentziak analizatzea. - TBko sistemak deskribatzea eta analizatzea. - Neurtzeko tresnak erabiliz, seinaleak neurtzea eta interpretatzea. - A/D eta D/A bihurketa analizatzea. - TB digitalean erabilitako arauak sailkatzea. - TBko seinale digitalak transmititzeko moduak deskribatzea. - A/D irradian maiztasun-bandak eta modulazioa analizatzea. - CD eta DVD audioari buruzko audiorako formatuen propietateak baloratzea. - DVD eta Blue-rayri buruz bideorako formatuen propietateak baloratzea. - Emititzen ari den audio-seinale baten parametro teknikoak (modulazioa, laginketa-maiztasuna, kuantifikazioa, seinale-zarata erlazioa, maila dinamikoa) aukeratzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telebista-sistemak. PAL kodifikazioa eta sistema. - Telebista-estandarrak definizio estandarrean eta emisio-formatuak

	<p>LTD, IPTV, satellite, kable eta mugikortasun bidez.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bereizmen handirako gaur egungo sistemak: <ul style="list-style-type: none"> • Definitutako arau teknikoak: Estatu Batuetakoa (ATSC), europarra (DVB-T) eta japoniarra (ISDB-T) - HD eta Full HD. Bereizmen handiko parametroak: <ul style="list-style-type: none"> • Bereizmenak. • Ekortze-dualtasuna. • <i>Frame</i>-maiztasuna. • Itxura-erlazioa. • Konektagarritasuna: DVI edo HDMI. - Audio- eta bideo-formatuak: <ul style="list-style-type: none"> • DVD • Blu-ray - Bideo-seinale analogikoen eta digitalen ezaugarriak. - Irudiak digitalizatzea. Irudiak konprimitzea. - Telebista interaktiboa: baliabideak, estandarrak, deskodegailu interaktiboak eta itzulera-kanalak. - Seinaleak transmititzea, jasotzea eta hedatzea. - Modulazioa, maiztasun-bandak eta irrati analogikoko eta digitaleko estandarrak. - Telefonia mugikorrean irrati interaktiboko teknologiak eta hargailuak. - Ikus-entzunezko eta musikako produktuak banatzeko euskarri digitalak. - Interneten <i>streaming</i> eta <i>podcast</i> hedapena, audiorako eta ikus-entzunezko hedabidetakako. - Internet, LTD, telefonia mugikor eta euskarri digitalen bidez interaktiboaren hedapenaren ezaugarriak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Azalera diren teknologiekiko eta kontzeptu teoriko berriekiko interesa. - Eskuliburu teknikoaren espezifikazioak ikustea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziarioa

Modulu hau bi atal nagusitan egitura daiteke, hots, irudiari dagozkionak eta audioari dagozkionak. Bi kasuetan, ekipamendu-azterketa analogikoa eta digitala ezar daitezke sekuentziarioan. Bi atal horiek garatzean multzo diferentetako edukiak txandaka daitezke, ikuskizunen eta ikus-entzunezkoen proiektutara egokitutako ekipamenduen gaineko lan tekniko posiblei koherentzia emateko helburuarekin.

Irudiaren atala:

Hasteko, egokia da **1. multzoan** aurkituko ditugun espektro elektromagnetikoaren eta argiaren fisikaren ezaugarri buruzko azalpena egitea. Aldez aurreko kontsiderazio honi esker argiztapen-irudiei, kolore-tenperaturari, neurketa fotometrikoari, eta ikus-entzunezko eta eszenografiako testuinguruei aplikatutako konfigurazioei buruzko edukiak garatu ditzakegu.

Ondoren, **2. multzoan** aipatzen diren irudi-erregistroko ekipoen edukiak garatzea egokia dirudi. Ezaugarri teknikoaren azterlana zinemako, bideo eta telebistako kaptazio-ekipoari

lotuta egongo da. Hala ere, teknologia digitalaren garapena kontuan hartuz, egokia dirudi bideo- eta TBko kamerak ezagutzeari garrantzi handiagoa ematea.

Jarraian, **7. multzoan** lantzen diren bideo-seinale analogikoa eta digitala, eta telebistako estandarrak aztertu behar dira. Horrela, neurri-tresnekin seinalea interpreta daiteke eta, behar denean, seinale hori zuzendu daiteke.

Bideo-seinalearen kontrola seinale-tratamenduko ekipoetan landu eta alda daiteke, grabatzen hasi aurretik. Eduki horiek **4. multzoan** eta **5. multzoan** biltzen dira. **4. multzoan** telebistako errealizazio baten berezko jarduerak garatuko dituzte, kameraren eta CCUen, sinkronismoen generadoreen, bideo-nahasgailuen, Patch Panel bidezko interkonexioen, titulazailen, *autocue* eta eszenografia birtualeko sistemen gainean jardunez. **5. multzoan** bideo- eta edizio-gela baten postprodukzioari buruzko edukiak gara daitezke, sarrerako eta irteerako konfigurazioak, errendimendu teknikoak eta edizio-moduak aipatuz. Bi multzoen edukiak elkarrekin garatu daitezke. Puntu honetan, **2. multzoa** eta **7. multzoa** har daitezke, erregistro-euskarriei, formatu-motei eta hedatzeko modu berriei buruzko edukiak elkartzeko.

Audio-atala:

Audioari buruzko erreferentziak homogeenagoak izan daitezke **3. multzoan** bateratzen badituzte. Bertan, soinu-baliabideen ezaugarri teknikoak definitzen dituzte. Soinuaren izaerari eta bere neurtzeko unitateei buruzko ikuspegi globala emanez hasia komeni da.

Aurrerago landuko diren unitatetan, mikrofonoen ezaugarri teknikoak baloratu ahal izango dituzte, seinale-tratamenduko ekipoak dituzten audio-mahaiekin jardungo dute, eta grabatzeko euskarri diferenteak landuko dituzte.

Ikuskizunen barrutitan, irratietan eta ikus-entzunezko baliabideei (postprodukzio gelak eta telebistako errealizazio-kontrolak) aplikatutakoetan erabilitako berezko soinu-baliabideen berezitasunak bereizi behar dira. Audioko eduki horiek ere beste multzo batzuetan biltzen dira, hala nola, **4. multzoan** eta **7. multzoan**, baina **3. multzoaren** hedapen gisa landu daitezke.

Azkenik, **6. multzoan** bideoaren eta audioaren baldintza teknikoak ebaluatzeko eta multimedia-proiektutara egokitzeak aukera egongo litzateke. Irudiko, audioko eta bideo- formatuak erabiltzeaz gain, ikaslea gai izango da mota honetako produkzio baterako beharrezko *hardwarea* eta *softwarea* zehazteko.

2) Alderdi metodologikoak

“**Ikus-entzunezko eta eszenako baliabide teknikoak**” moduluaren bitartez zeharkako prozedurazko ezagutzaren beharri erantzuten zaio; ezinbestekoa, ikus-entzunezko eta ikuskizunetako programen errealizazio-prozeduren azpian dauden oinarri teknologikoak definitzeko. Bertako edukietan irudiaren eraketari eta ikuspegiari eta kolorea jasotzeari buruzko prozesu fisikoak azaltzen dituzte; halaber, entzute-prozesua azaltzen dute. Horiek guztiak irudiak eta soinuak jasotzeko, erreproduzitzeko eta transmititzeko baliabideen diseinu teknikoarekin erlazionatzen dituzte.

Horrenbestez, moduluaren helburuak lortzea ahalbidetzen duten ikaskuntzako jarduerak honako arlo hauekin lotuta daude: bideo- eta zinemako kameraren sistema optikoen eta objektiboaren aukeraketa, telebistako estudioen instalazio teknikoaren kokapena, telebistako jarraitutasun-kontrolen eta unitate mugikorren funtzionamendua, multimedia programetan informatikako ekipamendua eta postprodukzio sistemak aukeraketa, edizio-postprodukzio instalazioen kokapena, eta ikuskizunen, irratien eta ikus-

entzunezko baliabideen prozesuen askotariko tipologia bat erabakitzeke argiztapeneko eta soinuako konfigurazioak aukeratzea.

Oinarrizko printzipio gisa, modulua azaltzean planifikatutako hainbat ekintza gauzatu behar dituzte helburu zehatz batzuekin. Ekintza horiek ikaskuntzaren garapena ebaluatzen lagundu behar dute, eta ikasleari laneko egoera zehatzei erantzuteko ahalmena eman behar diote. Zeharkako ezagutzaren aplikazioa egiaztatzeke, beste modulu batzuen irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuetan ikasleek lortutako emaitzak eta iritziak hartu ahal izango dituzte kontuan.

Metodologia didaktiko gisa, irakaslearen azalpenak maila kontzeptualean eta enpirikoan problemak analizatzeko eta ebazteko jarduerekin osatuko dituzte, ikasleen heziketa sendoa eta heldua ziurtatzeko helburuarekin. Horren haritik, programazioan landutako eta aipatutako ikaskuntzako jardueretan sakonduko dituzten edukiei buruzko alderdiak ikertuko dituzten lan-taldeak eratu ahal izango dituzte. Irakaslearekin koordinatutako metodologia aktibo honek ezagutza eguneratzeko ohitura dinamikoak sortzen ditu, eta etengabeko berrikuntza teknologikoari errazago aurre egiten eta onartzen laguntzen du.

Era berean, ikaskuntza bultzatuko duten eta ebaluazio-tresna gisa erabili ahal izango dituzten kasu praktikoak gauzatzeko, eta ikus-entzunezko proiektutara eta ikuskizunetara egokitutako ekipamenduko proiektu teknikoak edo *riderrak* definitzeko proiektuak gauzatzeko gomendatzen dute. Hala, ikasleak eta, oro har, taldeak zein aurrerabide egiten duten jakiteaz gain, gabeziak antzeman eta neurri zuzentzaileak hartu ahal izango dira.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Musika-girotzea burutzea:
 - Musika-pasarte klasikotan eta modernotan.
 - Programa-tipologiaren arabera: kirolekoa, entretenimendukoa, informatiboa edo publizitatekoa, besteak beste.
- ✓ Argi-iturriak analizatzea eta argiztapen-ekipoak aukeratzea:
 - Unitate fotometrikoak zerrendatzea:
 - Unitateen arteko erlazioa.
 - Iturri naturalen eta artifizialen neurketa.
 - Eszenaren kolore-tenperaturaren eta erregistro-baliabidearen arteko egokitze-metodoak definitzea.
 - Ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako argi-iturriak, argi-mahaiak eta *dimmerak* konfiguratzeko, proiektuaren premia termokolorimetrikak eta adierazpenekoak kontuan hartuz.
 - Argiztapen-ekipoen eskuliburuak interpretatzea.
- ✓ Jasotzeko eta erregistratzeko ekipoen ezaugarri teknikoak ebaluatzea:
 - Honakoen dokumentazio teknikoa aztertzea:
 - Foku-distantziak.
 - bideoko eta zinemako kameraren ezaugarriak: formatua, itxura-erlazioa, definizioa, azterketa eta segundoko irudiak, argi-sentsibilitatea, irabazia, kolore-tenperaturetara egokigarritasuna, buxatze-denborak, beltzen maila eta doikuntzak matrize digitalean, denboren kodea eta soinua jasotzea.
 - bideo digitalaren erregistro-euskarriak: pelikula fotokimikoa, zinta magnetikoa, disko optikoak, memoria-txartelak eta disko gogorrak.
- ✓ Bideo- eta telebista-seinalearen analisisa:
 - Bideo-seinalearen ezaugarriak garrantzizkoenak adieraztea.

- Bideo-seinalea osatzen duten elementuen egitura eta maila normalizatuak adieraztea.
 - Laginketa digitala.
 - Konprimitze-sistemak.
 - TBko emisio-sistemak eta modulazio-modu diferenteak alderatzea.
 - Neurketa-ekipoekin jardutea eta bideo-seinalea zuzentzea.
- ✓ TBko errealizazioko eta edizio-postprodukzioko kontrolean ekipoen konfigurazioaren definizioa:
- Telebistako errealizazioaren kontrol-sistema baten konexioan esku hartzen duten ekipoen eskuliburu teknikoaren interpretazioa.
 - Edizioko (lineala eta ez-lineala) eta postprodukzioko gelen konexioan esku hartzen duten ekipoen eskuliburu teknikoaren interpretazioa.
 - Konektatzeko zerbitzuen eta multzoen diagramen interpretazio teknikoa:
 - Errealizazioko postuen, kameren, kudeaketaren, audio-mahaiaren, bideo-erreprodukzioaren eta -grabazioaren, kameren kontrolaren, argi-kontrolaren, grafismoaren eta kanpoko konexioen arteko komunikazio-eskema.
- ✓ Multimedia-proiektutako ekipamendu teknikoa zehaztea:
- Informatikako ekipoen sareko konfigurazioaren analisia: zerbitzaria/bezeroak erlazioak, segurtasun-kopiak biltegitratzea eta multimedia-proiektuko kideentzako baimenak.
 - Multimediako hainbat proiektutarako *hardwarea* eta *softwarea* zehaztea:
 - Irudien tratamendua, bektore-ilustrazioa, 2D animazioa, 3D animazioa eta modelatzea, diseinu interaktiboa, web diseinua, bideo-edizioa eta egilea justifikatu ditu, hainbat proiektu interaktiborekin, ikus-entzunezko web-diseinukoekin, bideojokoetakoekin, eta DVDn egiletasunekoekin erlazionatuz.
 - Multimedia-proiektutarako bideo, audio eta irudiko formatuen eta helmuga-baliabideen ezaugarriak.
- ✓ Soinu-baliabideen ezaugarri teknikoaren definizioa:
- Audio-seinalearen neurketa-unitateen analisia.
 - Honako elementu hauen errendimenduari buruzko zehaztapen teknikoaren balorazioa:
 - mikrofonoak.
 - ikus-entzunezkoetarako eta ikuskizunetarako nahaste-mahaiak.
 - seinalea tratatzeko ekipoak.
 - grabagailuak.
 - Audio-ekipoen eskuliburu teknikoaren interpretazioa, eta irratiko eta grabazioko estudiotan konektatzea.

10. lanbide-modulua **10** INGELES TEKNIKO

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ingeles teknikoa
Kodea:	E-200
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	40 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko kompetentziak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskaintako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarriko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

- h) Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.
- i) Lan-ingurunean garatu beharreko kompetentziak deskribatu ditu.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze-edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- c) Euskarri telematikoen bitartez jasotako mezua interpretatu dute: e-mail, fax, beste batzuen artean.
- d) Sektoreko web-orri bateko oinarritzko informazioak identifikatu ditu.
- e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
- h) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- i) Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.
- j) Bere kompetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- k) Lan-ingurunean garatu beharreko kompetentziak deskribatu ditu.
- l) Nork bere prestakuntza eta lanbide-kompetentziak aurkezteko Europako herrialdeetan erabilitako jarraibideen araberako Curriculum Vitae egin du.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
- e) Beste herrialdearen berezko balioak eta ohiturak identifikatu eta bere jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzearen.

c) Oinarritzko edukiak:

1. PROFILAREKIN LOTUTAKO AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea. - Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehentasunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantzen adierazpena eta bestelakoak.
----------------	--

	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea. - Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak. - Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa. - Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea. - Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea. - Laneko elkarrizketa bat prestatzea, nork bere prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko terminologia espezifikoak. - Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, boz pasiboaren erabilera, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak. - Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarreak. - Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea. - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Informazio-trukean bete-betean parte hartzea. - Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea. - Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2. PROFILAREKIN LOTUTAKO IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hainbat formatutan emandako mezuak ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza. - Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna. - Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea. - Puntuazio-markak erabiltzea. - Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea. - Testu koherenteak lantzea. - Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea. - Norberaren profilarekin lotzen den lan-eskaera egitea: curriculum eta motibazio-gutuna.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarri telematikoak: fax, e-mail, burofax, web-orriak. - Hizkuntzaren erregistroak. - Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura. - Europako Curriculum Vitaearen ereduak. - Heziketa-zikloarekin lotutako kompetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Beste kultura batzuen alderdi profesionalakiko interesa erakustea. - Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea. - Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.

3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea. - Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntza (ingeleza) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokoloak baloratzea. - Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Eduki-multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango dien ibilbide didaktiko bat antolatzea.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoez eta sintaktikoez ez lukete inongo zentzurik, ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarritzko lau hizkuntza—gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamena eta idazmena garatzea da lortu beharreko helburua.

Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egiturak (aditz-denbora, hiztegia, eta abar), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek

ikasteko aukeretan irimotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezzen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezzen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-gaitasun batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneousatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Ahozko hizkuntzari garrantzi berezia eman beharko zaio, egungo egoera profesionalak eta globalizazioak hori eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu-eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jarioa azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, bere burua behatzeak eta bere akatsak aztertzeak ikaskuntza bere alderdi neketsuenean hobetzen lagun diezaion ikasleari, hots, ahozko mezuak sortzen. ahozko mezuak sortzea. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da-eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-inguruetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionaleri.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (kartak, fakturak, gidak eta liburuxkak), eta web-orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitzen diren mota desberdinetako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, eta abar) eskaini behar zaizkie ikasleei.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, e-posta, burofaxa, etab.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzailerik eta bideratzaile gisa jardungo dute ikasgelan ahozko ingelesa erabil dadin, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezzen, eta ikasleak ahalik eta gehien inplikaturik dituzte beren ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Lehenetsunez ahozko hizkuntza erabiltzea lanbide-inguruneari dagozkion materialekin: erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak, zenbakiak, datak, orduak, eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileak.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoak eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezeroen galderak, istripu txikiak, unean uneko azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoak berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitae aurkeztea txartel eragingarriarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea, etab.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bidez grabatzea, geroago aztertzeko.

11. lanbide-modulua **11** IKUS-ENTZUNEZKOEN ETA IKUSKIZUNEN ERREALIZAZIO- PROIEKTUA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen errealizazio-proiektua
Kodea:	0911
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	50 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak (Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu-mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduako proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- Ereduko enpresak ezaugarritu ditu, haien antolamendu-egitura eta sail bakoitzaren eginkizunak adierazita.
- Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
- Aurreikusten diren eskaerei erantzuteko behar den proiektu mota identifikatu du.
- Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.
- Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.

2. Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.
- Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien iristea identifikatu du.
- Egiteko beharrezkoak diren baliabide naturalak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
- Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- Abian jartzeko finantziario-beharrak identifikatu ditu.
- Diseinatze beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektuaren inplementazioa edo gauzatzea planifikatzen du, eta esku hartzeko plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Jarduerak sekuentziatu ditu, eta inplementatze-beharren arabera antolatu ditu.
- Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.
- Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
- Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
- Proiektua ezartzeari datxezkion arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipamenduak definitu ditu.
- Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.
- Ezartzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
- Proiektua ezartzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.
- Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
- Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta izan daitezkeen konponbidea ebaluatzeko eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.
- Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berariazko dokumentuak prestatu ditu.
- Proiektuaren baldintza-agiria betetzen dela bermatzeko sistema ezarri du, halakorik dagoenean.

5. Proiektua aurkeztu eta defendatzen du. Horretarako, eraginkortasunez erabiltzen ditu proiektua gauzatzean eta heziketa-zikloko ikasteko prozesuan bereganatutako konpetentzia teknikoak eta pertsonalak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.
- b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpena prestatu du.
- c) Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.
- d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.
- e) Proiektua defendatu du, eta talde ebaluatzaileak haren inguruan egindako galderei arrazoiak emanez erantzun die.

c) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua da heziketa-ziklo osoan zehar landu diren konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak indartu eta finkatzea. Horretarako, talde-proiektu bat garatuko da.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezten lortuko da. Talde homogeneoak eta gaitasun osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen eginkizuna garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Modulu hau denboran bat datorrenez "Lantokiko prestakuntza" moduluarekin, praktikak egiten diren enpresa ideia-iturri egokia izan daiteke proiekturako. Nolanahi ere, komenigarria izango da tutoreak garatu ahal izango diren zenbait proiektu teknikoki bideragarri eskura izatea.

Ondoren, proiektua garatzeko eredu bati jarraituz, haren faseak landuko dira:

- Definizioa eta helburuak.
- Beharrak hautematea edo arazoak identifikatzea.
- Diseinua eta plangintza.
- Jarraipena eta kontrola.
- Amaiera eta ebaluazioa.

Azkenik, talde bakoitzak proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatu eta gauzatuko du, eta, horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako aurkezpen-teknikak erabiliko ditu.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola talde-lana eta PBL-AOI (Problem Based Learning - Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko zenbait moduluren konpetentziak zeharka bilduko dituzten proiektuen garapenean berriaz oinarritutako PBL metodologia erabil daiteke. Metodologia horiek ikaslea behartzen dute problemak identifikatzera, horiek konpontzeko hautabideak bilatzera, horretarako beharrezko baliabideak abian jartzera eta informazioa behar bezala kudeatzera.

Gainera, aipatutako metodologiek une batzuetan sustatzen dute bakarkako lana garrantzitsua da taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektuaren defentsan ondoren erabili beharko dituen ezagupenak eta kompetentziak bereganatzeko.

Bestalde, talde-lanak harreman-kompetentziak garatzen ditu ikasleengan, eta taldeen funtzionamenduarekin eta ondoriozko guztiarekin ohitzen ditu ikasleak: talde-antolamenduarekin, rolen eta zereginen banaketarekin, pertsonen arteko komunikazioarekin, gatazken ebazpenarekin, eta abar.

Ikasleen autoikaskuntza osatzeko, proiektu talde bakoitzari aldizka jarraipen bat egitea proposatzen da, ikaskuntza gidatzeko eta taldeari finkatutako helburuen barruan eusteko. Gainera, sortzen diren beharren arabera, laguntzako azalpen edo mintegiren bat programatzea gomendatzen da, proiektua garatzeko beharrezkoak diren berariazko edukiei edo metodologiei buruzko ezagupenetan gabeziak betetzeko.

Azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuaren azalpen bat egitea proposatzen da, bi helburu hauekin:

- Proiektua garatzean ikasle bakoitzak bereganatutako kompetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Komunikazioari dagokionez, ikasleen kompetentzia pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatu eta garatzeko, ikasleei teknologia berriak erabil ditzaten proposatuko zaie (diapositiba-aurkezpenak, web-orrien formatuak eta abar lantzeko informatika-aplikazioak). Horretarako, proiektzio-kanoiak eta ordenagailuak ere erabiliko dituzte, etorkizunean lanaren jardunean erabilgarriak izango dituzten erremintekin ohitzeko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzeko garaian, garrantzitsua da proiektuaren —azken produktu gisa— eta proiektua egiteko jarraitu den prozesuaren ebaluazioa egitea. Talde-lanaren funtzionamenduari buruzko informazioa jaso beharko da, baita taldekide bakoitzak proiektuan eta zereginetan izandako inplikazioari buruzko informazioa, taldean sortutako zailtasunei buruzko informazioa, eta ikasle bakoitzak eskuratutako kompetentzia pertsonalei eta sozialei buruzko informazioa ere, besteak beste.

Era berean, kalifikazioaren zati batean, proiektuaren azalpenari eta defentsari buruz irakasleak egindako balorazioa jasotzea proposatzen da. Zehazki, azalpenaren ebaluazio-adierazleetako batzuk honako adierazle hauek izan daitezke:

- Proiektuaren aurkezpenak duen diseinu-kalitatea.
- Aurkezpena lagunduko duten baliabideen erabilera: informatika-baliabideak, ereduak, maketak, eta abar.
- Azalpenaren argitasuna.
- Azalpenaren antolamendua.
- Azalpenaren bizitasuna.
- Azalpenaren eraginkortasuna.
- Erakutsitako komunikazio-trebetasunak: ahots-doinua, hitzezko adierazpena, hitzik gabeko komunikazioa.
- Ebaluazioaz arduratzen diren irakasleek egindako galderei erantzuteko gaitasuna.

Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektua babestean. Horrela, norbanako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak

moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Hala, taldea osatzen duten kide guztiek proiektua garatzen lagundu dutela ziurtatzen saiatu beharko da.

Azkenik, komeni da produktua, prozesua eta proiektuaren azalpena ebaluatzean hautemandako puntu sendoak eta ahulak nabarmenduko dituen erantzun xehatua ematea projektuko talde bakoitzari. Horrela ikasleek erraz identifikatu ahal izango dituzte lan-jardunean egin eta azaldu beharreko beste proiektu batzuetan zer alderdi hobetu beharko duten.

12. lanbide-modulua

LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laneko prestakuntza eta orientabidea
Kodea:	0912
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	18.a / 20.a / 24.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profilarri lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- c) Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sistemaren dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio simple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarriko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneke lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarrizko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. LAN MUNDURATZEKO ETA BIZITZA OSOAN IKASTEKO PROZESUA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea. - Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. - Tituluaren lanbide-sektorea zehaztu eta aztertzea. - Norberaren ibilbidea planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Beharrekina eta hobespeneekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. ▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak. - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeke zerranda bat ezartzea. - Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. - Erabakiak hartzeko prozesua. - Sektorereko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. - Europar ikasi eta enplegatzeke aukerak. Europass, Ploteus.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea. - Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. - Autoenplegua lan-munduratzeko hautabidetzat baloratzea. - Lan-munduratzeko egokirako lan-ibilbideak baloratzea. - Lanarekiko konpromisoa izatea. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2. GATAZKA ETA LAN TALDEAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea. - Antolamendu-egiturak aztertzea. - Kideek lan-taldean izan ditzaketan eginkizunak aztertzea. - Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea. - Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea. - Gatazkek ebazteke moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea. - Lan-taldeen sorrera aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa. - Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera. - Lan-taldeen sorrera aztertzea. - Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa. - Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak. - Gatazkaren definizioa: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. - Gatazka ebatzi edo deuseztatzeke metodoak: bitartekotza, adiskidetzea eta arbitrajea.



jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena baloratzea. - Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak baloratzea. - Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea. - Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea. - Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.
---------------------	---

3. LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea. - Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. - Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. - Nomina interpretatzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.
-----------------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen oinarritzko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren artzatarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa. - Lan-kontrata: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. - Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. - Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). - Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak. - Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZ. - Kontrata aldatu, eten eta deuseztatzea. - Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera. - Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa. - Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...
-----------------------	---

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana arautzearen beharra baloratzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea. - Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. - Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez. - Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea.
---------------------	---

4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen
-----------------------	--

	<p>garrantzia aztertzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak. - Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa. - Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. - Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. - Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. - Arrisku-faktoreak aztertzea. - Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. - Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. - Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea. - Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arrisku profesionalaren kontzeptua. - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa. - Profilarri lotutako lan-ingurunearen berriazko arriskuak. - Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia ezagutzea. - Lanaren eta osasunaren arteko lotura baloratzea. - Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea. - Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia baloratzea.

6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarritzko prebentzio-tresna gisa. - LAP Laneko Arriskuaren Prebentziora buruzko oinarritzko araua aztertzea. - LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. - Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. - Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.
-----------------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. - Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - LAPean eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak. - Prebentzioaren kudeaketa enpresan. - Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria). - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. - Prebentzioaren plangintza enpresan. - Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - LAParen garrantzia eta beharra baloratzea. - LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa baloratzea. - Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea. - Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

7. ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Norbera babesteko teknikak identifikatzea. - Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakoak dituzten betebeharrak aztertzea. - Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. - Larrialdi-egoerak aztertzea. - Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. - Langileen osasuna zaintzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak. - Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. - Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak. - Seinale motak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larrialdien aurreikuspena baloratzea. - Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea. - Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziak

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzeko eta egokitze aldia.

- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europan lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitzeko hasierako aldia gaindituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein supoziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Segurtasun-baldintzak: soldata, lanaldia eta laneko atsedena.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkaritza.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko gaitasunak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.

- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzegatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira: ikaslearen esperientzia pertsonalak azaltzea, prentsa-albisteak erabiltzea, IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabiltzea.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorrazteko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagun arteko gatazkak... erabil daitezke; aldean portaerak eta arazoaren konponbideak aztertzearen.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatu-etako ordezkariak, lan-arloko abokatuak, eta abar), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea... Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak... Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, hala nola: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komeni da ikasleak benetako lan bat bilatzeko kasu praktiko baten simulazioa egitea: zeregin horretarako gehien erabiltzen diren dokumentuak egitea (curriculum, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan lan-eskaintzak hautatzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziako produkzio-sektorea deskribatzea:
 - Erreferentziako produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
 - Sektorian enplegatzeak aukerak identifikatzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
 - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
 - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
 - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lan-taldeak, eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:

- Lan-taldeen tipologia identifikatzea.
- Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
 - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
 - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea.
 - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
 - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
 - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
 - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
 - Bizitza osoan ikastearen garrantzia baloratzea.

13. lanbide-modulua **13**

ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Enpresa eta ekimen sortzailea
Kodea:	0913
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	4
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu-mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	16.a / 23.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berriazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziako herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.

- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbioletrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. EKIMEN SORTZAILEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak azterzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.). - Ekintzaileen funtsezko faktoreak azterzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza. - Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. - Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. - Enpresaburu kontzeptua. - Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatutako gisa. - Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa. - Ekintzaileen arteko lankidetzak. - Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. - Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan. - Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea. - Ekintzailetzaren bultzatzaile gisa, ekimena, sormena eta erantzukizuna baloratzea.

2. ENPRESA ETA HAREN INGURUNEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. - Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. - Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra azterzea.
	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide-arloko ereduak enpresa bat azterzea. - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. - Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea. - Erabakitako ideien gainean berrikuntza-eraketak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren betebeharrak berriazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra). - Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. - Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.

	- Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.
jarrerazkoak	- Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea. - Genero-berdintasuna errespetatzea. - Enpresa-etika baloratzea.

3. ENPRESA BAT SORTU ETA ABIARAZTEA

prozedurazkoak	- Marketin-plana finkatzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. - Produkzio-plana prestatzea. - Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea. - Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. - Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.
kontzeptuzkoak	- Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak. - Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. - Zerga-arloa enpresetan. - Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste). - Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. - Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.
jarrerazkoak	- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea. - Administrazio eta legezko izapideak betetzea.

4. ADMINISTRAZIO FUNTZIOA

prozedurazkoak	- Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea. - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea. - Merkataritzako dokumentuak betetzea: fakturak, txekueak eta letrak, besteak beste.
kontzeptuzkoak	- Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak. - Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa. - Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). - Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
jarrerazkoak	- Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. - Administrazio eta legezko izapideak betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziak

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehenetsunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo da; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenetik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa, etab. aztertuko dira.

Azkenik, ikasleari oinarritzko kontzeptuak azalduko zaizkio kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruan.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailetza-gaitasunak bereganatzearen.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Gainera, hainbat liburu edo artikulua irakurtzera bultzatzea dezake ikaslea, horien edukia kurtsoko proiektura egokitze aldera.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banan-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
 - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sectoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
 - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
 - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
 - Sectorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
 - Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
 - Merkatuaren beharrei erantzuneko dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
 - Lan-taldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
 - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilita, etab.

- Hautatutako negozioerako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
 - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
 - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
- Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
 - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
 - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
 - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
 - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
- Diruzaintzako plan bat aztertzea: emaitzen kontua eta egoera-balantzea.
 - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
 - Merkataritzako dokumentuak betetzea: fakturak, txekuek eta letrak, besteak beste.

14. lanbide-modulua **14** LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lantokiko prestakuntza
Kodea:	0914
Heziketa-zikloa:	Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioa
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Irudia eta Soinua
Iraupena:	360 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	22
Irakasleen espezialitatea:	Hedabideak eta Prozesuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu-mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren egitura eta sektorean dauden ereduazko enpresa-antolamenduak alderatu ditu.
- Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota enpresa-jardueraren garapenarekin lotu ditu.
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aintzat hartu eta justifikatu ditu:

- Lanpostuan beharrezkoa den pertsonal- eta denbora-eskuragarritasuna.
 - lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
 - Jarrerazko eskakizunak, lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
 - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - Lan-talde barruan eta enpresan ezarritako hierarkiekin harremanetan izateko jarrerak.
 - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak identifikatu ditu, baita lanbide-jardueran aplikatzeko den Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak ere.
 - c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.
 - d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
 - e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
 - f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.
 - g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
 - h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.
 - i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu du.
 - j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Ikus-entzunezko lan baten sekuentzien filmaketa/grabazioa planifikatzen eta zuzentzen ditu, eta, horretarako, beharrezko dokumentazio teknikoak lantzen du, eta egokitasuneko eta errentagarritasuneko irizpideen arabera saioen banaketa justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuaren irizpide formalak eta estetikoak aztertu ditu, garaiko itxurak, erreferentzia historikoak, estilo artistikoak, argiztatze-estiloak, soinu-segmentuaren jatorria eta eszenografia kontuan hartuz.
- b) Giza baliabideak eta baliabide materialak esleitu ditu, bai eta multimedia, bideo edo zinemako proiektuaren produkzio-sekuentzia bakoitza erregistratzeko behar den denbora ere, xehatze-zerrendetan oinarrituz.
- c) Filmaketa/Grabazio Plana landu du, finkatutako aurrekontura egokituz eta sor daitezkeen kontingentziak aurreikusiz beste soluzio batzuk barne hartuz.
- d) Artistekin eta teknikariekkin entseguak egin dituzte, eragiketa teknikoak eta artistikoak zuzen gauzatu dituztela eta eszenaratzera egokitzen direla baloratzeko, denborak eta iraupenak ebaluatuz.
- e) Hartualdiak filmatzeko/grabatzeko prozesua zuzendu du, interpretazioa, ekintza, armen edo efektu berezien erabilera kontrolatuz, bai eta ibilgailuen eta bakarrik mugitzen direnena ere, besteak beste.
- f) Egindako hartualdia eta bere soinu-kontrola baloratu ditu, eta behin eta berriz errepikatu du hartualdi zuzena lortu arte.
- g) Filmaketan/grabazioan sortutako ikus-entzunezko materiala kudeatzeko, kontserbatzeko eta artxibatze prozesua burutu du, etorkizunean erabiltzeko eta egokitzeko.

4. Kontroleko multikamera-errealizazioaren garapen espaziala eta denborazkoa planifikatzen eta gauzatzen du, eta, horretarako, telebistako programaren komunikatzeko asmoak gauzatzea eta esku-hartze tekniken koordinazioa erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gidoia banakatzean oinarrituta, telebista-programa bateko eskaleta garatu du.
- b) Telebista-programa baten erreproduzioan beharrezko materialak eskuratzea kudeatu du, eta jatorrizko formatu diferentek bateratu ditu.
- c) Kameran kokapena eta hauen estaldura, mugimenduak, pertsonaien edo pertsonen kokalekua, soinu-hartuneko baldintza teknikoak eta argiztapen-efektuak planifikatu du.
- d) Programa baten errealizazioan edo emisioan bideo-zatien emisioa eta erreproduzioa, erabilitako iturriak eta jarduera artistikoak kontrolatu ditu.
- e) Multikamera bitartez telebista-programak egin ditu, prozesuan esku hartzen duten giza baliabide eta baliabide tekniko guztiak kudeatuz.
- f) Ekipo osagarrien, zerbitzarien eta erredakzioko eta edizio-eko sistema birtualen konfigurazioa, eta multipantailako monitorizazioa zehaztu ditu.

5. Ikus-entzunezko programa bat muntatzeko eta postproduzitzeko prozesua planifikatzen eta gauzatzen du, eta, horretarako, edizio-plataformen ezaugarriak proiektuaren helburu teknikoak burutzearekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bideo-ko, grafikoak sortzeko artxiboko eta soinuko formatuak definitu ditu, ikus-entzunezko produktu baten muntaia egiteko.
- b) Euskarri fisikoen edukia zuzen trinkotu, deskribatu eta minutatu du, aurrerago, produktu baten muntaketan identifikatzeko.
- c) Ikus-entzunezko programa baten Muntaketako eta Postprodukzioko Plana osatu du, irudi, audio eta material grafiko guztien kalitate teknikoa eta erabilgarritasuna egiaztatuz.
- d) Besteak beste, denbora-kodea, sarrerako eta irteerako fluxuen aukeraketa, gailuak urrutitik erabiltzea eta sinkronizazio-doikuntzak bezalako parametrotan edizio-sistemaren osagaiak konfiguratu ditu.
- e) Ikus-entzunezko produktu bat muntatu/postproduzitu du, proiektuaren dokumentazioan eskatutako kalitate-estandarra kontuan hartuz.
- f) Muntaiari kanpoko plataforma bateko tokian bertan sortutako efektuak sartu ditu. Halaber, kanpoko errotulazioko eta grafismoko plataformak edo karaktereak osatzeko ekipoen errotulazioa eta grafikoak ere sartu ditu.
- g) Produktu baten masterraren ezaugarriak ikus-entzunezko emanaldian erabilitako formatu eta teknologia diferentetara egokitu ditu.

6. Entseguak planifikatzen ditu eta ikuskizun edo ekitaldi baten antzezpena zuzentzen du, eta, horretarako, proiektuaren baldintza artistikoak eta teknikoak analizatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku hartzen duten langileen xehapena egin du, ekitaldiaren edo ikuskizunaren antzezpenaren edo entseguaren une bakoitzean garatu behar dituen ekintzekin erlazionatuz.
- b) Lehen kudeaketa-liburua idatzi du, zuzendaritzak planteatutako aldaketak, eszenen ordena, pertsonaien sarrerak eta irteerak, eszenografiako aldaketak, eszena-tresneria, soinua, luminoteknia, atsedanak eta efektuak jasoz bertan.
- c) Ekitaldi edo zuzeneko ikuskizun baten proiektu baten entseguak planifikatu ditu, arte eszenikoetan lanetako legeak eta araudiak, laneko espazioak prestatzea, eta laneko arriskuak prebenitzeko xedapenak betetzea kontuan hartuz.

- d) Multimediako ikuskizun edo ekitaldi batean produktu bat aurkezteko eskaleta sortzeko prozesu osoa garatu du.
- e) Antzetzenean esku hartzen duten elementu artistiko eta tekniko guztien funtzionamendua gainbegiratzeko orrazketaren errealizazioa planifikatu du.
- f) Ekitaldian edo ikuskizunaren antzetzenean jarraitu behar dituzten ekintzen ordena ezarri du.
- g) Amaierako kudeaketa-liburua idatzi du, ekitaldiaren edo ikuskizunaren geroagoko antzetzpenak abian jartzeko oinarri gisa.
- h) Eszena-espazio berrira egokitzeko, ikuskizunaren edo ekitaldiaren fitxa osoa edo *riderra* osatu du.

c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira.

- ✓ Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea, eta horiek enpresak eskainitako zerbitzu-motarekin erlazionatzen ditu:
 - Enpresak sortutako produktu-motaren, eskainitako zerbitzuaren eta bezero-motaren ezaugarrien balorazioa.
 - Zerbitzu-eskaintza garatzean produkzio-eremu bakoitzaren funtzioak eta laneko prozesuak identifikatzea.
- ✓ Enpresaren jarduerak garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzea:
 - Jarrera pertsonalak eta profesionalak lanpostuaren ezaugarrietara egokitzea.
 - Talde-lanetan lan egiteko estrategiak aplikatzea.
 - Lanpostuan burutu beharreko jarduerekin lotutako kudeaketako dokumentazioa eta dokumentazio teknikoa erabiltzea.
 - Jarduera profesionalean sortutako produktuaren kalitatea ebaluatzea.
- ✓ Ikus-entzunezko lan baten sekuentzien filmaketa/grabazioa planifikatzea eta zuzentzea, beharrezko dokumentazio teknikoa osatuz:
 - Proiektuaren asmoak definitzea eta proiektua gauzatzeko beharrezko irizpide formalak eta estetikoak analizatzea.
 - Multimediako edo ikus-entzunezko lan bat errealizatzeko beharrezko baliabide teknikoak eta giza baliabideak zehaztuko dituzten banakatze-zerrendak osatzea.
 - Ikus-entzunezko laneko teknikariek eta artistekin entseguak egitea.
 - Hartualdiak grabatzea edo filmatzea, gidoiaren exijentzia teknikoak eta interpretaziokoak jarraituz, eta euren ikus- eta soinu-kalitatea baloratzuz.
- ✓ Telebistako kontrol-gelan multikamera-errealizazioa eta -planifikazioa:
 - Gidoiaren banakatzean oinarrituta, programa baten eskaletaren errealizazioa.
 - Telebista-programa baten aurreproduktioan beharrezko materialak identifikatzea.
 - Eszenan pertsonaiak edo pertsonak ipintzearekin lotutako alderdiak eta alderdi teknikoak (kameren kokapena eta estaldura, argiztapen-mota, eta soinu-hartunearen baldintza teknikoak) zehaztea.
 - Ekipo osagarrien, zerbitzarien eta erredakzioko eta edizioko sistema birtualen konfigurazioa, eta monitorizazioa.
 - Telebista-programa multikameraren errealizazioa, erabilitako iturriak, eta baliabide teknikoak eta giza baliabideak kontrolatuz.

- ✓ Ikus-entzunezko programa bat muntatzeko eta postproduzitzeko prozesuaren planifikazioa eta errealizazioa:
 - Bideoak, grafikoak sortzeko artxiboko eta soinuak formatuak definitzea, ikus-entzunezko produktu baten muntaia egiteko.
 - Ikus-entzunezko programa baten Muntaketa eta Postprodukzioko Plana osatzea, irudi, audio eta material grafiko guztien kalitate teknikoa eta erabilgarritasuna egiaztatuz.
 - Besteak beste, denbora-kodea, sarrerako eta irteerako fluxuen aukeraketa, gailuak urrutitik erabiltzea eta sinkronizazio-doikuntzak bezalako parametrotan bideoak edizio-sistemaren (lineala edo ez-lineala) osagaiak konfiguratzeko.
 - Ikus-entzunezko produktu baten muntaiaren/postprodukzioaren errealizazioa, efektuak, grafikoak, errotulazioa eta animazioak erantsiz, proiektuaren dokumentazioaren eta helburuarekin bat etorriz.

- ✓ Entseguak planifikatzea eta ikuskizun edo ekitaldi baten antzezpena zuzentzea, proiektuaren baldintza artistikoak eta teknikoak analizatuz:
 - Ekitaldi edo zuzeneko ikuskizun-proiektu baten entseguak planifikatzea, honako alderdi hauek kontuan hartuz: beharreko teknikarien banaketa eta kudeaketa-liburu jarraibideak. Bertan, zuzendaritzak planteatutako aldaketak, eszenen ordena, pertsonaien sarrerak eta irteerak, eszenografia-aldaketak, eszena-tresneria, soinua, luminoteknia, atsedanak eta efektuak jasoko dira.
 - Eskaleta bat osatzea, multimediako ikuskizun edo ekitaldi baten aurkezpenean aplikatzeko.
 - Ekitaldian edo ikuskizunaren antzezpenean jarraitu behar dituzten ekintzen ordena ezartzea.
 - Etorkizuneko antzezpenetarako kudeaketako amaierako liburua idaztea, eta ekitaldiaren edo ikuskizunaren fitxa osoa edo *riderra* osatzea, agertoki berri batera egokitzeke.

4 GUTXIENEO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

4.1 Espazioak:

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (M ²) / 30 IKASLE	AZALERA (M ²) / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Irudi eta soinuuko gela teknikoa	60	40
Ikus-entzunezko produkzioen estudioak	180	180
Postprodukzioko eta muntatzeko gelak	90	90
Agertokiko gela	150	110

4.2 Ekipamenduak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	<ul style="list-style-type: none"> - Arbela. - Ikus-entzunezko baliabideak (TB, DVD, CD erreproduktoreak). - Sarean instalatutako ordenagailuak, proiektzio-kanoia, Interneteko sarrera eta audio-sistemak.
Irudi eta soinuuko gela teknikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Ondorengo hauen ezaugarri berdinak edo hobekiak dituzten ordenagailuz osatutako lan-estazioak: <ul style="list-style-type: none"> • Dual Core 2,5 GHz prozesadorea, 1 MB L2ko cache memoria, PCI Express arkitektura; 4 G SDRAM. • FireWire ataka bat eta USB 2.0. atakak. • Kanpoko soinu-txartela USB eta/edo FireWire konexioarekin, MIC/INS bi sarrerekin eta 4 LINE. • Postu bakoitzeko 19"ko pantaila bat. - Ordenagailuen konfigurazioa sarean eta Interneteko sarrerarekin. - 10 unitateko <i>racken</i> muntatutako soinu-erreprodukzioko eta -kontrolako postu bat, irakaslearen ordenagailu bidez kontrolatua, USB eta/edo FireWire konexioa duen kanpoko soinu-txartelarekin, MIC/INS bi sarrerekin eta 4 LINE. - 2 kutxa akustiko (LR) autoanplifikatuak. - Proiektzio-pantaila eta soinua erreproduzitzeko sistemadun bideo proiektorea. - Irudi finkoa eta mugikorra sortzeko, tratatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko informatikako aplikazioak. - Soinua sortzeko, tratatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko informatikako aplikazioak (MIDI). - Musika-produkzioko informatikako aplikazioak (Cubase, Logic, Soundforge, Nuendo edo Pro-tools motakoak).
Ikus-entzunezko	<ul style="list-style-type: none"> - Honako elementu hauek dituen plato batez osatutako

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
produkzioen estudioak	<p>telebista-estudioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bideoako eta audioko konexioak errealizazio-kontrolarekin. • Kudeatzeko elkar komunikazioko sistema, kamerak eta osagarriak. • Eskuko mikrofonoak, gorbata-mikrofonoak eta mikrofono direkzionalak, horietako zenbait hari gabeko bertsioan. • Bideo eta audioko monitorizazio-sistema, bideo-pantailen, aurikularren eta bozgorailuen bitartez. - Errealizazio-kontrola honako elementu hauekin: <ul style="list-style-type: none"> • Audio eta bideoako monitorizazio-sistemarekin. • Datuak biltegitratzeko kanpo-sistemak, irudien eta soinuen sarrerarekin eta irteerarekin. • 16 kanaleko audioko nahaste-mahaiarekin. • Soinua monitorizatzeko sistema aktiboarekin. • Kudeaketa-softwarea eta soinu-artxiboak sortzeko ordenagailuarekin. • Platodun elkar komunikatzeko sistemarekin. - hari gabeko mikrofontia-sistemaz, electret kondentsadore-mikrofonoz (kanoi motza), mikrofono dinamiko direkzionalak eta pertika-motako gorbata-mikrofonoz, zeppelinez, esekidurez eta soinua grabatzeko sistema eramangarri osatutako soinua jasotzeko ekipo autonomoak.
Postprodukzioko eta muntatzeko gelak	<ul style="list-style-type: none"> - Bideoa eta audioa jasotzeko ekipo autonomoak: <ul style="list-style-type: none"> • HD kamaskopio trinkoak, kamaskopiorako euri-babeseko zorroekin eta kamaskopia eramateko poltsekin. • Kamaskopiorako tripodeak. • Eremuko monitorea elikadurarekin. • Kamaskopioentzako bateriak. Bateria-kargagailuak. • Kamaskopioentzako elikadura-iturriak. • <i>Steadycams</i>. • Argiztatzeko ekipo autonomoak, kabledun zuzi halogenoekin, tripodeekin eta barreiatzaileekin. • Soinua jasotzeko ekipoak honako elementu hauez osatuak: hari gabeko mikrofontia-sistema, mikrofono dinamiko direkzionala eta gorbata-mikrofontia, pertika, zepelina, esekidurak eta soinua grabatzeko sistema eramangarria. - Ikuskatzeko ekipoak: ikuskatzeko sei ekipo, honako elementu hauez osatuak: monitorea, aurikularrak, DVD grabagailua/erreproduktorea, Blu-ray erreproduktorea. - Makillaje-gela: makillajerako besaulkiak, ispiluak, argiteria artifiziala, ile-apainketako konketa, aldagela eta dutxa. - Atrezko eta dekoratuen biltegia. - Ordenagailuz, postu bakoitzeko bi pantailaz, eta aurikular bidezko soinu-monitorizazioko sistema bidez osatutako banakako edizio-ekipoak. - Ordenagailuen instalazioa sarean eta Interneteko sarrerarekin. - Datuak biltegitratzeko kanpo-sistemak, irudien eta soinuen sarrerarekin eta irteerarekin. - Proiekzio-pantaila eta soinua erreproduzitzeko sistemadun bideo proiektorea. - Eskanerra. - Gelan erreproduzitzeko soinua monitorizatzeko hedapen-sistema. - Irudi finkoa eta mugikorra sortzeko, tratatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko informatikako aplikazioak. - Soinua sortzeko, tratatzeko, editatzeko eta postproduzitzeko informatikako aplikazioak.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Agertokiko gela	<ul style="list-style-type: none"> - 20 m²-ko agertokia, altuera erregulagarriko oholtzekin eta hauek finkatzeko sistemekin. - Argi, soinu eta eszenografiako tresnak ipintzeko egitura, konexio elektrikoko kutxekin, baldin eta ez dituzten haga elektrifikatuak. - Mikrofonia. <i>Drum set</i> honako elementu hauez osatua: <ul style="list-style-type: none"> • Dunbalerako mikrofonoa. • Kutxarako mikrofonoa. • Tinbaletarako hiru pintza-mikrofono. • OHrako bi kondentsadore-mikrofono. • Eskuzko mikrofono dinamikoen maleta (10 unitate). • Diafragma handiko bi kondentsadore-mikrofono. • Instrumenturako bi pintza-mikrofono. • Girorako bi kanoi-mikrofono. • Gutxienez 2 diadema-kapsula eta bakoitzari dagozkion emisoreak eta hargailuak izango dituen hari gabeko mikrofonía-seta. • Eskuzko hari gabeko bi mikrofono. • Hamabi mikrofono-oin konbentzional. • Altuera txikiko bost mikrofono-oin. - Pare estereofonikotarako bi pletina. - Injekzio estereoko lau kutxa. - Mikrofono-lineak eta <i>jack-canon</i>, <i>jack-jack</i> latigadoreak eta tartekatuak. - Barruti beteko lau elementuz eta bi azpibaxuz gutxienez osatutako PA modularreko sistema. - Elementuak denboran, mailan eta maiztasunean lerrokatu ahal izateko PArako kudeaketa-sistema. - Agertokiko lau monitore dagozkien potentzia-etapekin. - <i>In ear</i> erantzute-sistema, gutxienez, hari gabeko bi emisore eta bi hargailurekin. - FOH nahaste-mahai digitala, gutxienez, 24 sarrera-kanalekin, 4 busekin, 4 bidalketa osagarriekin eta irteera estereoarekin. - Monitoreen nahaste-mahai digitala, gutxienez, 24 sarrera-kanalekin, 4 busekin, 8 bidalketa osagarriekin eta irteera estereoarekin. - Agertokirako konexio-kutxa, gutxienez, 24+8 parerekin. - Monitore analogiko edo digitalak eta FOHrako seinalea banatzeko sistema. - Monitoreentzako kanpoko prozesadoreen <i>racka</i> 31 bandako 4 ekualizadore grafikorekin, 4 konpresore/zarata-aterekin, 2 efektu-prozesadoreekin, baldin eta monitorean nahaste-mahaian sartuta ez badaude. - FOHrako kanpoko prozesadoreen <i>racka</i> 31 bandako 2 ekualizadore grafikorekin, 8 konpresore/zarata-aterekin, 2 efektu-prozesadoreekin, baldin eta FOHren nahaste-mahaian sartuta ez badaude. - Sonometroa. - FFT bikoitzeko analizatzailea. - Neurtzeko mikrofonoa.

5. IRAKASLEAK

5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena, ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioko heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0902. Zinemako eta bideoak errealizazioaren plangintza	<ul style="list-style-type: none"> Hedabideak eta Prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea
0903. Zinemako eta bideoak errealizazio-prozesuak	<ul style="list-style-type: none"> Hedabideak eta Prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea
0904. Telebistako errealizazioaren plangintza	<ul style="list-style-type: none"> Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak 	<ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0905. Telebistako errealizazio-prozesuak	<ul style="list-style-type: none"> Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak 	<ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0906. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren plangintza	<ul style="list-style-type: none"> Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak 	<ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0907. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren errealizazioa	<ul style="list-style-type: none"> Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak 	<ul style="list-style-type: none"> Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0908. Ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketaren plangintza	<ul style="list-style-type: none"> Hedabideak eta Prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea
0909. Ikuskizunak eta ekitaldiak zuzentzeko prozesuak	<ul style="list-style-type: none"> Hedabideak eta Prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea
0910. Ikus-entzunezko eta eszenako baliabide teknikoak	<ul style="list-style-type: none"> Hedabideak eta Prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea

0911. Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioko proiektua	<ul style="list-style-type: none"> • Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
	<ul style="list-style-type: none"> • Hedabideak eta Prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea
E-200. Ingeles teknikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Ingelesa 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea
0912. Laneko prestakuntza eta orientabidea	<ul style="list-style-type: none"> • Laneko prestakuntza eta orientabidea 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea
0913. Enpresa eta ekimen sortzailea	<ul style="list-style-type: none"> • Laneko prestakuntza eta orientabidea 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea
0914. Lantokiko prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Hedabideak eta Prozesuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Irakaskuntza ko irakaslea
	<ul style="list-style-type: none"> • Irudi eta Soinu Prozedurak eta Teknikak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

LOGSE LEGEAN EZARRITAKO HEZIKETA ZIKLOEN BARNEAN HARTZEN DIREN LANBIDE MODULUAK (LOGSE 1/1990)	HEZIKETA ZIKLOAREN LANBIDE MODULUA (LOE 2/2006): IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUEN ETA IKUSKIZUNEN ERREALIZAZIOA
Zinemako eta bideoko errealizazioa	0902. Zinemako eta bideoko errealizazioaren plangintza 0903. Zinemako eta bideoko errealizazio-prozesuak
Telebistako errealizazioa	0904. Telebistako errealizazioaren plangintza 0905. Telebistako errealizazio-prozesuak
Ikus-entzunezkoen muntaia/edizioa eta postprodukzioa	0906. Ikus-entzunezkoen muntaia eta postprodukzioaren plangintza 0907. Ikus-entzunezkoen muntaia eta postprodukzioaren errealizazioa
Errealizazio-sistema teknikoak	0910. Ikus-entzunezko eta eszenako baliabide teknikoak
Ikus-entzunezko proiektuen eta ikuskizunen errealizazioko goi mailako teknikari tituluaren lantokiko prestakuntza	0914. Lantokiko prestakuntza

7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZAGARRITASUN ETA EGOKITASUN LOTURAK

7.1. Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA ATAL EGIAZTATUAK	BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE MODULUAK
UC0700_3: Ikus-entzunezko proiektua garatzeko beharrezkoak diren baliabideak zehaztea. UC0701_3: Filmatzeko/grabatzeko behar diren giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta artistikoen egokitzapena eta bitartekoak koordinatzea.	0902. Zinemako eta bideoko errealizazioaren plangintza
UC0702_3: Filmaketa/grabazioa eta postprodukzio-prozesua antolatzea eta kontrolatzea.	0903. Zinemako eta bideoko errealizazio-prozesuak
UC0216_3: Telebistako produkzio baten errealizazio-premien, agertokiaren eta kokalekuen eszenaratzearen garapena koordinatzea.	0904. Telebistako errealizazioaren plangintza
UC0218_3: Telebistako produktuen postprodukzioan parte hartzea. UC0217_3: Baliabide teknikoak eta giza baliabideak kontrolatuz telebistako produkzio baten errealizazio-kontrollean laguntzea.	0905. Telebistako errealizazio-prozesuak
UC0947_3: Ikus-entzunezko produktu baten muntaketa- eta postprodukzio-prozesua planifikatzea. UC0948_3: Muntaketa eta postprodukzioarako beharrezko materialak eta efektuak prestatzea.	0906. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren plangintza
UC0949_3: Muntaketa egitea, hainbat lekutako materialak eta postprodukzioko tresnak erabiliz. UC0950_3: Muntaketako eta postprodukzioko amaierako prozesuak koordinatzea amaierako ikus-entzunezko produktua sortu arte.	0907. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren errealizazioa
UC1420_3: Premia teknikoak eta artistikoak zehaztea, eta zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien entseguak planifikatzea.	0908. Ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketaren plangintza
UC1421_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien entseguak prestatzen eta garatzen prozesu teknikoak eta artistikoak gainbegiratzea eta zuzentzea. UC1422_3: Lokal finko batean eta itzulietan zuzeneko ikuskizunak eta ekitaldiak burutzen prozesu teknikoak eta artistikoak gainbegiratzea eta zuzentzea.	0909. Ikuskizunak eta ekitaldiak zuzentzeko prozesuak

Heziketa-ziklo honetan matrikulatutako pertsonen tituluaren banean hartzen diren konpetentzia-atal guztiak 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera egiaztatzen badituzte –1224/2009 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, lan-espereziaren bitartez eskuratutako lanbide-konpetentziak onartzeari buruzkoa–, honako lanbide-modulu hau izango dute baliozkotuta: 0910. Ikus-entzunezko eta eszenako baliabide teknikoak”.

7.2. Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE MODULU GAINDITUAK	EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA ATALAK
0902. Zinemako eta bideoko errealizazioaren plangintza	UC0700_3: Ikus-entzunezko proiektua garatzeko beharrezkoak diren baliabideak zehaztea. UC0701_3: Filmatzeko/grabatzeko behar diren giza baliabideen, baliabide teknikoaren eta artistikoen egokitzapena eta bitartekoak koordinatzea.
0903. Zinemako eta bideoko errealizazio-prozesuak	UC0702_3: Filmaketa/grabazioa eta postprodukzio-prozesua antolatzea eta kontrolatzea.
0904. Telebistako errealizazioaren plangintza	UC0216_3: Telebistako produkzio baten errealizazio-premien, agertokiaren eta kokalekuen eszenaratzearen garapena koordinatzea.
0905. Telebistako errealizazio-prozesuak	UC0218_3: Telebistako produktuen postprodukzioan parte hartzea. UC0217_3: Baliabide teknikoak eta giza baliabideak kontrolatuz telebistako produkzio baten errealizazio-kontrollean laguntzea.
0906. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren plangintza	UC0947_3: Ikus-entzunezko produktu baten muntaketa- eta postprodukzio-prozesua planifikatzea. UC0948_3: Muntaketa eta postprodukzioarako beharrezko materialak eta efektuak prestatzea.
0907. Ikus-entzunezkoen muntaiaren eta postprodukzioaren errealizazioa	UC0949_3: Muntaketa egitea, hainbat lekutako materialak eta postprodukzioko tresnak erabiliz. UC0950_3: Muntaketako eta postprodukzioko amaierako prozesuak koordinatzea amaierako ikus-entzunezko produktua sortu arte.
0908. Ikuskizunen eta ekitaldien kudeaketaren plangintza	UC1420_3: Premia teknikoak eta artistikoak zehaztea, eta zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien entseguak planifikatzea.
0909. Ikuskizunak eta ekitaldiak zuzentzeko prozesuak	UC1421_3: Zuzeneko ikuskizunen eta ekitaldien entseguak prestatzen eta garatzen prozesu teknikoak eta artistikoak gainbegiratzea eta zuzentzea. UC1422_3: Lokal finko batean eta itzulietan zuzeneko ikuskizunak eta ekitaldiak burutzen prozesu teknikoak eta artistikoak gainbegiratzea eta zuzentzea.



*Instituto Vasco del Conocimiento
de la Formación Profesional*

*Lanbide Heziketaren
Ezagutzaren Euskal Institutua*

Vía Galindo Kalea, 14
48910 – Sestao, Bizkaia

T. 944 47 40 37
F. 944 47 38 62

www.ivac-eei.eus
web@ivac-eei.eus

Fp

EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación
Profesional